

**BIZKAIA GOAZEN 2030EKO
LEHENTASUNEZKO JARDUKETEN
EGOERARI BURUZKO URTEKO TXOSTENA**

Egoera 2017ko abenduaren 31n





Bi urte igaro dira **Bizkaia Goazen 2030**, lurralderako gobernu talde honek prestatutako kudeaketa plan estrategikoa abian jarri zenetik, eta gaitasun osoan jarraitzen du aurrera.

2017. urtean zehar, aurrerapen handiak egin ditugu jardun askotan. Oraindik ere baditugu bete beharreko konpromisoak baina, zailtasunak gorabehera, erritmo onean jarraitzen dugu aurrera. Aurten, berriz ere, 2015eko uztailean 1ean Gernikako Batzar Etxean emandako inbestidura hitzaldian agindu genuenez, Bizkaia Goazen 2030 planean zehaztutako ardatz estrategikoetan jasotako konpromisoetan egindako aurrerapausoen berri eman nahi diegu bizkaitarrei. Izan ere, ardatz horiek zuzentzen dute gure gobernu ekintzaren esparrua eta lehentasunak, eta horietan oinarrituta eraiki nahi dugu Bizkaia hobe bat.

Aldundi hau, egunez egun, konpromiso horiek gauzatzen ari da, 120 ekintzen bitartez. Ekintza horien garapen, aurrerapen eta aurreikuspen-maila jaso dugu jarraian aurkeztuko dugun **Bizkaia Goazen 2030** ezartzen hasi ginenetik igarotako lehenengo bi ekitaldien balantze txostenean.

Bizkaia Goazen 2030 planaren harira burututako jardunen egoera balantze horrek berresten du jardun horiek guztiak aktibatuta daudela honezkero.

Ekintzen % 62a exekuzio fasean daude, eta % 29a dagoeneko amaituta daude. 2017ko abenduaren 31n, horien % 9a diseinu fase aurreratuan zeuden, eta hasiera egutegi espezifikoak zuten. 120 jardunen exekuzio maila, batez beste, % 67koa da.

Halaber, txostenak Bizkaiko adierazle sozioekonomikoek 2017an izandako bilakaera globala jasotzen du. Aurrerapen nabarmena egon da honako hauetan: enpleguaren eta jardura ekonomikoaren susperraldiak egonkor jarraitzeko joeran, gizarte gastuari emandako lehentasunean eta haren bilakaeran, baliabide kudeaketaren eta iruzurraren aurkako borrokaren eraginkortasunean, turismoaren bultzadan eta Bizkaiko jardura ekonomikoaren nazioartekotzean.

Finean, **Bizkaia Goazen 2030** planak erakutsi du aldundia martxan dela, eta ekimena eta proiektuak dituela. Izan ere, pertsonen eta beren arazo eta ilusioen zerbitzura dago aldundi hau.

Unai Rementeria Maiz

BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO GENERAL DE BIZKAIA



1 KONTU-EMATEA, ZER DELA ETA? AGIRI HONEN HELBURUAK	4
2 BIZKAIA GOAZEN AGIRI ESTRATEGIKOAREN EGITURA ETA IRISMENA	6
3 ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOEI LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERA	10
4 LEHENTASUNEZKO JARDUKETEN GARAPENEAN AURRERA EGINDAKO MAILA	31
5 GENERO- ETA GAZTERIA-IKUSPEGIA ETA PARTE HARTZEKO BALIABIDEAK ERABILTZEA	55
6 BALORAZIO OROKORRA	64
7 ERANSKINA: LEHENTASUNEZKO PROIEKTUEN JARRAIPEN-FITXA ZEHATZAK	70

1

***KONTU-EMATEA, ZER DELA ETA?
AGIRI HONEN HELBURUAK***



2016ko otsailaren 1ean, ahaldun nagusiak **Bizkaia Goazen 2030** aurkeztu zuen. **Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015-2019** **epealdirako ekintza estrategia hori 4 ardatzetan egituratuta dago. Ardatz horiek 17 helburu estrategiko hartzen dituzte barne, eta helburu horiek 120 ekintzatan gauzatzen dira, eta bakoitzak dagozkion periodizazioak, inbertsioak eta talde hartzaileak ditu, Bizkaia hobea lortze aldera aurrera jarraitzeko.**

Estrategia horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa jarduera elikatzen du eta lurraldearen lau lehentasunetara zuzentzen gaitu: jarduera ekonomiko handiagoa eta kalitatezko enplegu gehiago duen Bizkaia bat; gizarte eta lurralde kohesio handiagoa duen Bizkaia bat, pertsona guztiei aukera berdinak ematen dizkiena; munduarekin, aukera globalekin, konektatuago dagoen Bizkaia bat; eta administrazio modernoagoa, gertukoagoa eta arduratsuagoa duen Bizkaia bat.

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu duen Gobernu Irekia ereduan **kontu-emate** publikoak eginkizun garrantzitsua bereganatu du, kudeaketa arduratsuaren eta hurbilagoaren zati ezinbestekoa baita. Erantzukizun hori islatzeko, herritarren aurrean –eta etengabe agintaldiak irauten duen bitartean– aurkeztu dira zeintzuk izan diren gain hartutako konpromisoak eta horien betetze mailaren balorazioa.

Kontu-ematea ikuspegi publiko eta parte-hartzaitetik egingo da. Horrek esan nahi du urtero jarraipen txostenak argitaratuko direla eta Bizkaiko ahaldun nagusiak aldira **aurrez aurreko bilerak** egingo dituela Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten **eskualdeetan kontu-ematea eta entzute aktiboa** gauzatzeko. Hala, 2016ko azarotik 2017ko maiatzera arte Bizkaiko ahaldun nagusiak 10 bilera izan ditu herritarren aurrean kontu-emateak gauzatzeko, zehazki, Bilbon, Nerbioi-Ibaizabalen, Arratian, Durangaldean, Ezkerraldean, Lea-Artibain, Enkarterrin, Eskuinaldean, Txorierrri-Mungialdean eta Busturialdean. Bilera horietan guztira Bizkaiko 78 udalerritako 650 auzotarrek parte hartu dute. Ahaldun nagusiak entzun die eta berarekin zuzenean hitz egiteko aukera izan dute, euren kezken inguruan. Horrez gain, hobeto ezagutu ahal izan dituzte Bizkaiko Foru Aldundiaren 120 proiektu estrategikoak.

2017. urtea behin amaituta, jarraian aurkeztuko den txostenak egoeraren eta 2016 eta 2017an zehar lehentasunezko proiektu eta ekimenen garapen eta aurrerapen mailaren jarraipena ebaluazioa jasotzen ditu. Azken finean, Bizkaia Goazen 2030 ekintza strategiaren bitartez sustatu diren proiektuen ezarpenaren lehenengo bi urteetako balantze metatua osatzen du, orokorra zein xehatua ekintza bakoitzeko.

2

BIZKAIA GOAZEN AGIRI ESTRATEGIKOAREN EGITURA ETA IRISMENA



IKUSPEGI OROKORRA

Bizkaia Goazen 2030ek lau ardatz nagusi ditu, bakoitzak 17 helburu estrategikorekin, eta xede dute hurrengo urteetan lurralde gisa aurre egin beharko dien erronkei erantzutea **120 jarduketa zehatzen** bitartez, zeinetarako inbertitzeko 652 milioi baino gehiago gordetzea aurreikusi den 2015-2019 aldian.



4 HELBURU ESTRATEGIKO

- Kalitatezko enplegua
- Ekintzaileak bultzatzea
- Gure enpresa sarea laguntzea
- Enpresen eta atzerriko inbertsioaren erakarpena
- 26 aurreikusitako jarduketa
- 159.537.000 euroko inbertsioa

Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia

7 HELBURU ESTRATEGIKO

- Gure loturak erraztu
- Garapen jasangarria eta gizarte mailan orekatua
- Zerbitzu eta laguntza sare jasangarria
- Aukeren berdintasunean
- Gazteria
- Euskara
- Kultura
- 53 aurreikusitako jarduketa
- 440.173.000 euroko inbertsioa

Gizarte zein lurralde kohesioa eta aukera berdintasuna dituen Bizkaia

2 HELBURU ESTRATEGIKO

- Foru administrazioa modernizatzea
- Aldundi hurbilagoa, herritar udal eta eskualdeekiko
- 24 aurreikusitako jarduketa
- 26.228.000 euroko inbertsioa

Bizkaia modernoa, hurbil eta arduratsua

4 HELBURU ESTRATEGIKO

- Nazioartekotzekoa
- Gazteentzako aukerak nazioartean
- Nazioarte mailako foro nabarmenetan kokatzea
- Nazioarteko turismo jomuga
- 17 aurreikusitako jarduketa
- 26.230.000 euroko inbertsioa

Bizkaia munduari lotuta

4 JARDUKETA-ARDATZ

17 HELBURU ESTRATEGIKO LEHENTASUNEZKO

120 JARDUKETA

652 MILIOIKO INBERTSIOAREKIN, GUZTIRA



1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA DITUEN BIZKAIA



Bizkaitarrek **kalitatezko enplegua** izateko aukerak sortu, bereziki epe luzeko langabetuen eta gazteen artean. Epe luzerako enpleguaren bermea izango den trebakuntza eta talentuaren garapena indartu.



Ikuspegi orotariko **ekintzaileak bultzatzea**, Bizkaian kultura ekintzailea indartuz eta ekimen ekintzaileei balio erantsiko zerbitzu eta laguntzak eskainiz.



Gure empresa sarea lagundu Aldundiaren eta Bizkaiko enpresen arteko aliantza estrategiko batean oinarrituz. Berrikuntzan, nazioartekotzean eta lankidetzan oinarritutako sektore tradizionalak sendotu eta goraka ari diren sektore berriak garatu.



Enpresen erakarpena eta atzerriko inbertsio produktiboa indartu. Lurralde ireki eta abegitsu batek izan behar dituen baldintzak sortu, akuilu eta pizgarritz ondo hornituz, inbertsio hauek Bizkaia erakartzeko lan bizi eta proaktiboa egiten den heinean.

2. GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA



Bizkaiko komunikazio sareen hobekuntza, garraio bide ezberdinen bitartez **gure loturak erraztuz**, bai barne mailan eta baita Europako hiri garrantzitsuenekin eta lurraldeekin ere.



Bizkaiko eskualdeen **garapen jasangarria eta gizarte mailan orekatuaren** alde egitea, eskualde guztientzako aukerak sortzen lagunduz.



Inor atzean utziko ez duen gizarte **zerbitzu eta laguntza sare jasangarria** sendotu eta bultzatu. Arreta gehien behar duten kolektiboen beharrei kalitatezko konponbide azkarrak eskaini, batez ere, nagusiei, haurrei, pertsona desgaituei eta genero indarkeriaren biktima diren emakumei.



Aukeren berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidario baten eraikuntzan aurre egin.



Bizkaiko **gazteriar** zuzendutako konfidantzazko esparru berriak sortu, gure lurraldearen etorkizunaren eraikuntzan parte-hartzaile izan daitezen.



Euskararen erabilera bultzatu hezkuntza esparrutik haratago. Ume eta gazteei zuzendutako euskaraz egindako aisialdia eta gizarte heziketan oinarritutako ekimenen eskaintzaren sorrera azpimarratu.



Bizkaiko garapen ekonomiko eta gizarte **garapenean giltzarri den kulturaren** aldeko apostu sendoa. Kultura denontzat eskuragarri egin, gure kultura baliabideei balioa eman eta sorkuntza adierazpen ezberdinak lagundu.



3. BIZKAIA MODERNOA, HURBILA ETA ARDURATSUA



**Foru administrazioa moder-
nizatu** eta udalei zuzendutako
zerbitzuak optimizatu.



**Aldundi hurbilago bat lortu,
bai herritarrekiko eta baita
Bizkaiko udalekiko ere.**

Bizkaiko eskualdeetara fisikoki
hurbilduz eta komunikazio
eta partaidetzarako ildo
berriak sortuz, lurraldearen
eta herritarren beharrei eta
erronkei hobeto erantzuteko.

4. BIZKAIA MUNDUARI LOTUTA



Bizkaiko enpresa
sareek eta erakundeek
nazioartekotzeko egin
duten apostua babestu,
etorkizunera begira ahalmen
handiagoa duten merkatuetan
kokatzen lagunduz.



Gure **gazteei nazioarteko
harreman, esperientzia
eta ezagutzetara sarbidea
erraztu**, ekonomia eta gizarte
globalizatuaren erronkei
aurre egiteko aukera izan
dezaten.



Bizkaiko enpresei eta
herritarrei mundura
konektatzeko aukera
emateko, lurraldea **nazioarte
mailako foro nabarmenetan
kokatu**, bai eta erreferentzia
diren herrialde eta lurraldeen
jarduera onenen ezagutza
erraztu ere.



**Nazioarteko turismo
jomuga** moduan Bizkaiak
duen ahalmen osoa garatu,
sektorea osatzen duten
enpresa eta eragileei
lagunduz eta nazioarte
mailako ekimenak erakarriz.

3

ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOEI LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERA



Jarduketa-estrategia ororen asmoa da ezarriko den errealitate sozioekonomikoan teilakatzea. Helburu nagusia da inguruko adierazleengan eragin positiboa izatea, hau da, hobetzeko lehentasunezko jarduketa hauek diseinatzeko arrazoa diren adierazleengan.

Jarraian, gaur egungo egoera eta Bizkaia Goazen 2030 ekimenean definitutako helburu eta ardatz estrategikoekin zerikusia duten adierazle garrantzitsuen bilakaera azaldu ditugu, eta horretarako 4 ardatz estrategiko jaso dira:


- **Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia.**
- **Gizarte- zein lurralde-kohesioa eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia.**
- **Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua.**
- **Bizkaia munduari lotuta**



1. ARDATZA: JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA DITUEN BIZKAIA

BIZKAIKO HIRUHILEKOKO BARNE PRODUKTU GORDINA KATEATUTAKO BOLUMENAREN INDIZEA (URTEEN ARTEKO ALDAKETA-TASAK)

Iturria: Eustat




Bizkaiko ekonomia 2014. urtean hasitako suspertze-bidean dago oraindik ere, eta BPGd-k urte arteko % 3,1eko hazkunde-tasa izan du 2017ko hirugarren hiruhilekoan aurreko urte hiruhileko berarekin alderatuta.

Hazkunde-tasa hori estatukoaren berbera da, baina % 3ko hazkundea izan duen Euskadi osokoa baino handiagoa da, bai eta Eurogunekoa baino handiagoa ere (% 2,5).

BIZKAIKO INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA INDIZEA ETA URTE ARTEKO ALDAKUNTZA (*)

Iturria: Eustat




(*) 2010eko oinarria = 100



BIZKAIKO BIZTANLE LANDUNEN ETA LANGABEEN EBOLUZIOA

Iturria: EUSTAT, BJA



2008. urtean gure lan-merkatuan nabaritzen hasi ginen krisialdi sakon baten ostean, Bizkaian enplegua 2014. urtetik aurrera hasi zen suspertze-seinaleak ematen. Joera horri eutsi diogu, eta 2017ko laugarren hiruhilekoan langabezia-tasa % 12,8koa zen.

2016ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, datua 1,2 puntu murriztu da ehunekotan (% 14tik % 12,8ra), eta horrek esan nahi du 7.500 pertsona gutxiago daudela langabezia Bizkaian, 2016ko hiruhileko berarekin alderatuta.

16 URTE ETA GEHIAGOKOEN JARDUERA-, OKUPAZIO- ETA LANGABEZIA-TASAK BIZKAIAN


Iturria: EUSTAT, BJA

ADINAREN ARABERAKO TASAK	2014KO URTEKO BATEZBESTEKOAK				2017KO URTEKO BATEZBESTEKOAK			
	Guztira	16 urtetik 24 urtera	25 urtetik 44 urtera	45 urte edo gehiago	Guztira	16 urtetik 24 urtera	25 urtetik 44 urtera	45 urte edo gehiago
Jarduera-tasa	% 55,70	% 26,50	% 89,80	% 41,00	% 55,70	% 22,60	% 90,50	% 43,50
Okupazio-tasa	% 46,10	% 15,70	% 72,50	% 35,80	% 48,70	% 17,20	% 78,40	% 38,70
Langabezia-tasa	% 17,20	% 40,80	% 19,30	% 12,60	% 12,60	% 23,70	% 13,30	% 11,00



ENPRESA KONFIANTZAREN ADIERAZLE BATERATUA (HIRUHILEKOKO BATEZ BESTEKOA)



Iturria: INE (Euskadi osoko datua. H1, 2013= 100)



Enpresa konfiantzaren adierazleak une jakin batean establezimenduetako arduradunek beraien negozioaren egoeraren eta itxaropenen inguruan duten ikuspuntua adierazten du, eta garapen positiboa erakusten du adierazle honek.

BIZKAIKO INDUSTRIAREN KONFIANTZA ADIERAZLEA

Iturria: Koiuntura industrialeko inkesta. Bilboko Merkataritza Ganbera




*Aurreikuspena



BIZKAIKO INDUSTRIA-SEKTOREAREN IKUSPUNTUAK. 2017KO V. BIHILEKOA


Iturria: Industriaren egoerari buruzko inkesta. Bilboko Merkataritza Ganbera

EKOIZPENA




● GORAKORRA (% 23,23) ● EGONKORRA (% 58,59)
● BEHERAKORRA (% 18,18)

ESKABIDE-ZORROA




● GORAKORRA (% 24,75) ● EGONKORRA (% 57,43)
● BEHERAKORRA (% 17,82)

ENPLEGUA




● GORAKORRA (% 20) ● EGONKORRA (% 65)
● BEHERAKORRA (% 15)

SALMENTAK




● GORAKORRA (% 26) ● EGONKORRA (% 54)
● BEHERAKORRA (% 20)

ESPORTAZIOAK



● GORAKORRA (% 28,28) ● EGONKORRA (% 53,54)
● BEHERAKORRA (% 18,18)

INBERTSIOA



● HANDIAGOA (% 20) ● BERDINA (% 58)
● TXIKIAGOA (% 22)



I+G ARLOKO BARNE-GASTUAREN BILAKAERA (MILA EUROTAN), LANGILERIA GUZTIRA ETA LANALDI OSOKO BALIOKIDEKO LANGILEAK BIZKAIAN

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2011/2016 ald.
Barne-gastua	639.549	628.890	617.889	608.292	597.268	601.399	-% 6,0
Langileak, guztira	13.734	14.298	14.146	14.712	15.120	13.938	% 1,5
Langileak (AOB)	8.192	8.546	8.578	8.935	8.562	8.193	% 0,0

I+G-N EGINDAKO GASTUA (% BPGD) HERRIALDEKA. 2006 - 2016

Iturria: Eurostat eta Eustat

	2006	2016
Alemania	2,46	2,94
EU (28 herrialde)	1,76	2,03
Herbehereak	1,76	2,03
Euskadiko AE	1,46	1,82
Erresuma Batua	1,59	1,69
Bizkaia	1,35	1,67
Italia	1,09	1,29
Portugal	0,95	1,27
Espania	1,17	1,19



1. ARDATZA: JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA DITUEN BIZKAIA: Bizkaiko gaur egungo egoerari buruzko ondorioak


- 2009 urtetik aurrera izandako krisi ekonomikoaren suspertzea mantendu da Bizkaian. Suspertze hori jarraitua izan da 2014. urtetik, eta BPGd-ren hazkundera % 3,4koa izan da 2016. urtean. 2017an ere joera horri eutsi zaio.
- Barne produktu gordina bi urtez igo da modu egonkorrean, eta industria-produkzioaren indizeak, berriz, 5 puntu baino gehiago berreskuratu ditu azken hiru urteotan.
- Bizkaiko langabezia-tasa, 2017ko laugarren hiruhilekoan % 12,8 zen, hau da, azken 4 hiruhilekoetan 1,2 puntu egin du behera.
- I+G jarduerak erakutsi du nahiko egonkorra izan dela azken urteetan gastu eta langileei dagokienez.
- Enpresa itxaropenek konfiantzan hobekuntza egon dela erakusten dute, enpresa-jardueraren garapen positiboan.



2. ARDATZA: GIZARTE- ZEIN LURRALDE-KOHESIOA ETA AUKERA-BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA


BIZKAIKO GIZARTE-ZERBITZUEN GASTUAREN BILAKAERA (BPGD-EN EHUNEKOETAN). 2000-2015

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika




DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ONURADUNAK BIZKAIAN (ESPEDIENTE AKTIBOAK, GUZTIRA). 2014-2017

Iturria: Lanbide; Anlisi, Azterlanak eta Estatistika Zerbitzua



BIZKAIKO GIZARTE-ZERBITZUEN BIZTANLEKO GASTUAREN BILAKAERA (EUROTAN). 2000-2015


Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika






BENETAKO ESKASTASUN- ETA POBREZIA-EGOEREN BILAKAERA BIZKAIAN (%) 2008-2016

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta gizarte-desberdintasunari buruzko inkesta



BENETAKO ESKASTASUN- ETA POBREZIA-EGOERAK LURRALDE HISTORIKOAN (%) 2016

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta gizarte-desberdintasunari buruzko inkesta



DEFINIZIOAK

Mantentze-pobrezia

Oinarrizko beharrei epe laburrean aurre egiteko nahikoa diru-baliabide ez izatea da, bereziki janariaren, etxebizitzaren, oinetakoen eta jantziaren gaineko gastuei aurre egiteko.

Metatze-pobrezia

Metatze-pobrezia lotuta dago epe luzean gutxieneko bizitza-maila egokia izateko beharrezkoak diren kontsumo-iraunkorreko ondasunak lortzeko etxerik ez edukitzeko gaitasunari. Ez da mota horretako ondasunak edukitzeko eta eskuragarri dauden ondare-baliabideen mailaren eskastasun diferentzialaren egoera zehatz bat, egoera global bat baizik. Inguruabar horren ondorioz, ez dira edukitzen bizitza duin bati eusteko bizitza-baldintza nahikoak.

Benetako pobrezia

Hauxe da pobreziaren adierazlea: Pobreziaren dimentsio ezberdinetatik batean edo bestean (mantentzea edo metatzea) ageri diren oinarrizko beharrak ongi ez estaltzeko arriskua duten egoeren inguruabarrak, horiek biztanleriaren eguneroko bizitzan behar beste orekatuta ez daudenean gutxieneko ongizate maila batera iristea posible izateko, pobreziaren bizipenetik harago.

Ongizaterik eza

Eskastasun-egoerak aztertzeari lotuta dago, mantentze terminoetan, eta gizarte jakin batean epe laburrean funtsezkotzat jotako gastuei aurre egiteko nahikoa diru-baliabiderik ez izateari egiten dio erreferentzia, hain zuzen ere gizarte horretako bizimoduan, ohituretan eta ohiko jardueretan gutxieneko parte-hartzea izateko. Ongizaterik ez izateko arriskuan daude, aipaturiko epealdian, gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate-mailak izateko aipaturiko mugatik beherako diru-sarrerarik ez duten familia guztiak.




BIZKAIAN ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA.

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

	2011/2012	2016/2017	Aldea
Haur Hezkuntza	47.899	44.921	-% 6,2
Lehen Hezkuntza	62.107	65.111	% 4,8
Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH)	36.507	41.101	% 12,6
Batxilergoa	14.787	15.478	% 4,7
Lanbide Heziketa	17.452	19.808	% 13,5
Helduen Hezkuntza (HHE)	10.037	6.080	-% 39,4
Unibertsitate Hezkuntza	36.378	38.193	% 5,0
Guztira	225.167	230.692	% 2,5


UNIBERTSITATEK KANPOKO BIZKAIKO ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, HIZKUNTZA-EREDUAREN ARABERA

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika



EUSKALDUNTZE-MAILA BIZKAIAN (BI URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEEN EHUNEKOA)

Iturria: Eustat, inkesta soziolinguistikoa 2011 eta 2016





GENERO-BERDINTASUNAREN ADIERAZLEAK	ADIERAZLEAREN EGOERA
Jarduera-tasa	16 urte eta gehiagokoen jarduera-tasa ia 10 puntu baxuagua da emakumeei dagokienez (% 51,2 eta % 60,9) (Iturria: Eustat, PRA, 2017ko laugarren hiruhilekoa)
Langabezia-tasa	Langabezia-tasa zertxobait baxuagoa da emakumeen kasuan (% 12,7 eta % 12,9) (Iturria: Eustat, PRA, 2017ko laugarren hiruhilekoa)
Aldi baterako kontratazio-tasa	Aldi baterako kontratuak dituzten emakumeen ehunekoa gizonena baino 4 puntu altuagoa da (% 26,1, % 22ren aurrean) (Iturria: EUSTAT, BJA, 2017ko 3. hiruhilekoa. EAE osoko datua)
Ordainsaria	Emakumeei dagokienez, 16,99 € da lan egindako ordu bakoitzeko; gizonen kasuan, berriz, 19,49 € (EIN, Soldaten Egituraren Inkesta. 2015. urtea. EAE osoko datua)
Errenta	Bizkaiko emakumeen batez besteko errenta pertsonala gizonen errentaren % 59 da (14.769 €, eta 24.899 euroren aldean) (Iturria: Eustat, 2015)
Lanbide Heziketa eta unibertsitateko ikasketak egiten ari diren pertsonak	Bizkaian unibertsitateko ikasketak egiten dituztenen % 53 emakumeak dira. Lanbide Heziketan zenbateko hori bakarrik % 38ra iristen da (Iturria: EUSTAT, 2015-2016 ikasturteko datua)
Interneten erabilera	“Eten digitala” Bizkaian 4,6 puntukoa da; ondorioz, 15 urte eta gehiagoko emakumeen % 71,9k Internet erabili zuen azken hiru hilabeteetan, eta gizonen kasuan, berriz, % 76,5 izan zen (iturria: EUSTAT, Informazioaren gizartearen inkesta, 2016ko abendua)



BIZKAIKO GARRAIO-SISTEMAKO BIDAIARI-KOPURUA

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa (BGP)



BIDAIARIAK (MILAKA)	2012	2013	2014	2015	2016	% 2015-16
Bizkaibus	28.256	28.057	27.298	26.127	26.607	% 1,8
Bilbobus	25.814	25.821	26.074	26.121	25.928	-% 0,7
Beste autobus batzuk	1.219	1.304	1.286	1.469	1.505	% 2,5
AUTOBUSA	55.289	55.183	54.658	53.717	54.040	% 0,6
Metro Bilbao	87.615	87.133	87.397	87.536	87.105	-% 0,5
Renfe	10.111	9.045	8.903	9.077	9.007	-% 0,8
Euskotren	5.289	5.173	5.221	5.003	4.688	-% 6,3
Euskotran	3.084	3.120	2.980	2.888	3.007	% 4,1
Feve	1.277	1.172	1.096	1.043	972	-% 6,8
TRENA	107.376	105.643	105.597	105.546	104.779	-% 0,7
Bizkaiko Zubia	3.685	3.597	3.952	3.664	3.526	-% 3,8
Artxandako F.	522	565	614	729	773	% 6,1
Larreinetako F.	156	156	146	165	149	-% 9,8
Solokoetxeko IG.	586	-	-	-	-	-
Begoñako IG.	388	-	-	-	-	-
Ereaga IG.	274	312	345	362	364	% 0,4
Igarotzeko txalupak	702	591	566	488	535	% 9,6
Bizikletak mailegatzea bizimeta	9,8	5,4	4,0	3,5	2,7	-% 22,3
Bizikletak mailegatzea Bilbon Bizi	-	-	-	-	345	-
BESTE BATZUK	6.323	5.226	5.626	5.411	5.694	% 5,2
GUZTIRA	168.988	166.052	165.881	164.674	164.513	-% 0,1

Ez dago Solokoetxeko eta Begoñako igogailuen daturik 2013tik 2016ra, ezta Sopolbusenak ere (beste autobus batzuk) 2015etik 2016ra.

Iturria: txosten honetan jasotako datuak hainbat erakunde eta enpresa operadoretatik jaso dira.

BIZKAIBUSEKO ERABILTZAILEN GOGOBETETASUN-MAILA ZERBITZUARI DAGOKIONEZ


Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa (BGP)





AIREAREN KALITATEA BIZKAIAN (airearen kalitate ona izan den egunen ehunekoa)

Iturria: Bizkaiko Iraunkortasunaren Adierazle Sistema - Bizkaia 21



KONTSUMOKO URAREN KALITATEA BIZKAIAN (biztanleriaren ehunekoa, hornitutako kontsumorako uraren kalitatearen sailkapenaren arabera)

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila Kontsumo publikoko uren kalitatearen estatistika



■ Txarra
■ Onargarria
■ Ona



2. ARDATZA: GIZARTE- ZEIN LURRALDE-KOHESIOA ETA AUKERA-BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA

Bizkaiko gaur egungo egoerari buruzko ondorioak


- Gizarte-zerbitzuek Bizkaiko BPGn duten pisua 2,2 halakotu da 2000. eta 2015. urteen artean. Era berean, biztanle bakoitzeko gastua nabarmenki areagotu da, hain zuzen ere, 4 halakotu da azken 15 urteetan.
- Bizkaiko etxebizitzaren azken bi urteetako errenta-maila suspertu da, oro har, diru-sarreraren ezari lotutako ongizate-errentaren eta pobrezia-errentaren arrisku-adierazleak garbi hobetu direlako.
- Duela gutxi suspertze-etapari esker, behar-kopurua txikia egon da diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten familien kopuruan, eta tresna hori gizarte-koltxoi bat da oraindik ere iraupen luzeko langabezia-egoeretan eta diru-sarrerarik ez dauden egoeretan.
- Bizkaian, 230.000 pertsona baino gehiagok parte hartzen dute hezkuntza formaleko jardueretan, eta horietako 38.000k unibertsitateko ikasketak egiten dituzte.
- Ikusi da euskaraz dakitenen kopuruak gorako joera izan duela. Biztanle euskaldunen edo ia euskaldunen kopurua % 48ra iritsi zen 2016. urtean, ia 2011. urtean baino 5 puntu gehiago.
- Azken urteotan aurrerapen garrantzitsuak izan badira ere, oraindik alde nabarmenak daude genero delak eta, bereziki lan-arloan. Eten digitala gero eta gehiago txikitzen doa.
- Bizkaia garraio publikoaren sistema oso bat du. Metroa da lurraldean gehien erabiltzen den zerbitzua, eta bidaiari guztien % 53 hartzen ditu. Atzetik doaz Bizkaibus eta Bilbobus, bidaiari % 16,5 eta % 16rekin, hurrenez hurren.
- Herritarrek Bizkaibuseko zerbitzuari buruzko iritzia ona dute, hain zuzen ere, erabiltzaileen % 84 pozik daude.
- Ingurumenaren eta uraren kalitatea gero eta hobea da urtetik urtera, eta oso maila onak erdietsi ditu.
- Bizkaia nazioartean gailendu egiten da hondakinen kudeaketari dagokionez. Bakarrik % 12 deuseztatzen da, eta materialen % 60ko balorizazioa lortzen da.



3. ARDATZA: BIZKAIA MODERNOA, HURBILA ETA ARDURATSUA


BIZKAIKO AURREKONTU OROKORREN BILAKAERA (MILIOI EUROTAN)

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia



METATUTAKO ZOR PUBLIKOAREN ETA AURREKONTU BALIAGARRIAREN BILAKAERA (MILIOI EUROTAN)

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. 2016ko itxieraren balioztapena



■ Metatutako zorra (milioi eurotan)
■ Kudeaketa propiorako baliagarri osoa (milioi eurotan)



ZERGA-IRUZURRAREN AURKAKO BORROKAREN ONDORIOZKO ZENBATEKOAREN BILAKAERA

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia

Kontzeptua (milioi eurotan)	2012	2013	2014	2015	2016
BEZa	212,2	217	303,9	227,7	133,2
Sozietateak eta ez-egoiliarren errenta	174,4	182,9	91,2	115,4	231,2
PFEZ - Ondarearen zerga	54,7	56,3	84,6	51	45,2
Beste batzuk	12,9	10,9	44,1	37,9	52,0
Guztira	454,2	467,1	523,8	431,9	461,6



3. ARDATZA: BIZKAIA MODERNOA, HURBILA ETA ARDURATSUA: Bizkaiko gaur egungo egoerari buruzko ondorioak


- Bizkaiko 2017. urteko aurrekontu orokorra, guztira, 7.395 milioi euro da, eta horietatik 1.365 milioi aldundiak berak kudeatzeko erabili ziren. Aurrekontuaren % 64 Eusko Jaurlaritzaren jarduera finantzatzeko erabiltzen da, eta % 11 Bizkaiko udalena finantzatzeko. Gainera, kupoaren bitartez estatuari egiten zaion ekarpena gauzatutako aurrekontuaren % 6 inguru da. 2018rako 7.813 milioi euroko aurrekontua onetsi da, 2017an baino % 5,7 gehiago.
- Nahiz eta krisi ekonomikoari aurre egiteko beharraren ondorioz metatutako zorra azken hamar urteetan hazi den, zorraren egonkortzea antzeman da 2012. urtetik aurrera, eta, zehazki, 1.200 milioi euro inguruan dago. Bizkaiko Foru Aldundiak metatutako zorra, guztira, 1.207 milioi eurokoa zen 2017. urtean.
- Baliagarri orokorrari dagokionez, 1.316 milioi eurokoa zen 2017an, hau da, aldi berean metatutako zorra baino ehuneko 10 handiagoa. Azken lau urteotan, bilakaera positiboa ikusi da aurrekontu baliagarrian metatutako zorrari dagokionez, eta zorraren pisua ehuneko 12 puntuan murriztu da 2013. eta 2017. urteetako ekitaldien artean.
- Zerga-iruzurraren aurkan izandako arrakasta nabarmendu behar da; izan ere, urtean, batez beste, 468 milioi euro azaleratu dira azken 5 urteetan. Bizkaiko Foru Ogasunak, guztira, 2.339 milioi euro azaleratu ditu 2012-2016 aldian. Zenbateko horren erdia baino gehiago egoiliarrek ez direnen errentari eta sozietateen gaineko zergari dagokie, % 29 BEZaren likidazioei eta % 10 PFEZri eta ondarearen gaineko zergari.



4. ARDATZA: BIZKAIA MUNDUARI LOTUTA


BIZKAIAN ALDIZKA ESPORTATZEN DUTEN ENPRESA-KOPURUA

Iturria: Kanpo-merkataritzaren Espainiako Institutua Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak (ESTACOM)



BIZKAIKO ENPRESEN ESPORTAZIOAK (MILAKA EUROTAN)

Iturria: Kanpo-merkataritzaren Espainiako Institutua Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak (ESTACOM)






BIDAIARIEN SARREREN, GAU-OSTATUEN ETA BATEZ BESTEKO EGONALDIAREN BILAKAERA

Iturria: Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETH). Eustat

	2012	2013	2014	2015	2016	2012-2016 ald.
Bidaiarien sarrerak	1.174.627	1.145.054	1.140.832	1.249.211	1.341.720	% 14,20
Estatukoak	774.650	733.413	720.635	784.840	842.140	% 8,70
Atzerritarak	399.977	411.641	420.197	464.371	499.580	% 24,90
Bertan igarotako gauak	2.217.740	2.115.775	2.188.926	2.370.523	2.574.955	% 16,10
Batez besteko egonaldia	1,89	1,85	1,92	1,90	1,90	% 0,50

HOTEL-ESTABLEZIMENDUEN ESKAINTZAREN BILAKAERA

Iturria: "Turismoa Bizkaian 2016" memoria, Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusia





4. ARDATZA: BIZKAIA MUNDUARI LOTUTA: Bizkaiaren gaur egungo egoerari buruzko ondorioak

- Bizkaiko enpresen nazioartekotzea da, oraindik ere, Bizkaiko ekonomia suspertzeko gako bat. Hori horrela, Bizkaiko enpresa esportatzaileen jarduera bikoiztu egin da 2000. urtetik, eta krisialdian ere hazi egin da.
- 2016. urtean 4.000 enpresak baino gehiagok izan zuten esportazio-jarduera, eta horietatik 1.277 enpresek modu erregularrean esportatzen dute. Horrek % 17ko hazkundea dakar, 2012. urtearekin alderatuta.
- Turismoa Bizkaiko ekonomiari gero eta ekarpen handiagoa egiten dion jarduera da, eta BPGd-ren % 5,2 da.
- Turismoak Bizkaian izan duen bilakaera ona izan da azken 5 urteetan. Aldi horretan, hotel-establezimenduetan egon diren bidaiarien kopuruak % 14,2an egin du gora, eta 2016. urtean

1.341.720 pertsonara iritsi zen. Ostatu-gauek ere gora egin dute, % 16,1ean, hain zuzen ere. Batez besteko egonaldiak 1,9 gau izan ziren 2016. urtean. 2017ko itxiera datuak falta direlarik, azarora arteko datuek baieztatu egin dute aldeko joera, eta hala, 2016ko aldi berarekin alderatuz bidaiarien kopurua %5,1 gehitu da eta ostatu-gauen kopurua %4,1 da.

- Bisitarien jatorriari dagokionez, atzerriko bisitarien kopurua % 24,9 hazi da aldi horretan, eta 10 bidaiaritik 4 atzerritarrak izan ziren 2016. urtean.
- Bizkaian dauden ostalaritza-establezimenduen kopuruari dagokionez, joerak argi uzten du eskaintzak gora egin duela. Azken hamar urteetan, hotel-establezimenduen kopuruak % 28an egin du gora; hortaz, 2006. urtean 169 establezimendu zeuden, eta 2016. urtean, berriz, 217.

4

LEHENTASUNEZKO JARDUKETEN GARAPENEAN AURRERA EGINDAKO MAILA



4.1

LEHENTASUNEZKO JARDUKETEN GARAPENEAN AURRERA EGINDAKO MAILAREN IKUSPEGI OROKORRA






LEHENTASUNEZKO JARDUKETEN EGOERAREN AURRERAKUNTZA-MAILARI BURUZKO IKUSPEGI OROKORRA 2017/12/31N

Bizkaia Goazen 2030 agiri estrategikoan 2015-2019 aldirako aurreikusitako 120 jarduketetatik, **35 ekintza (% 29) amaituta daude, eta 74 gauzatzen ari dira (% 62).**

Gainerako jarduketak, **11 (% 9), diseinatzen ari dira** ondoren martxan jartzeko, eta hala, jarduketa guztietan jada hasi dira lanean.

Gauzatzen ari diren jarduketei dagokienez, 61 (% 82) gauzatzearen % 50eko kopurura iritsi dira edo hori gainditu dute, eta 13 (% 18) maila hori baino baxuago daude.

Modu horretan, Bizkaia Goazen 2030entzat lehentasunezkoak diren jarduketak kontuan hartuz, **2017ko abenduaren 31n gauzatzearen batez besteko maila % 67koa zen.**






JARDUKETAREN EDO PROIEKTUAREN EGOERA POSIBLEAK ETA AURRERAKUNTZA-MAILA

EGOERA	DESKRIBAPENA	AURRERAKUNTZA-MAILA (*)
Amaituta	Amaitu den ekintza.	% 100
Gauzatzen	Hasita dagoen ekintza, baina oraindik amaitu gabe dagoena. Horrez gain, urtero gauzatzen diren ekintzak barne hartzen dira, nahiz eta hurrengo aldian horiei eutsi (urteko planak, urtero deitzen diren programak...).	% 26 - % 99
Diseinatzen	Oraindik hasi ez den ekintza, eta diseinu- edo definizio-fasean dagoena, baina gauzatzeko egutegi zehatz bat ezarrita duena.	>% 0 - % 25
Hasi gabe/ atzeratuta	Ekintza ez da oraindik hasi (2018. urtean hastea aurreikusi delako, adibidez) edo atzeratu egin da, hau da, garatu egingo dela aurreikusi da, baina ez da diseinatu/definitu eta ez da gauzatzeko egutegi zehatz bat ezarri.	% 0

(*) 2017an jarduketaren aurrerakuntza maila nolakoa zen adierazten du ehunekoetan (%) jarduketa gauzatzeko aurreikusitako aldiarekin alderatuz edo agintaldiko aldiarekin alderatuz (2015-2019), gauzatze jarraitua duten jarduketaren kasuan.



2017/12/31N LEHENTASUNEZKO JARDUKETEN IKUSPUNTUA ARDATZEN ARABERA



4.2

LEHENTASUNEZKO JARDUKETEN GAUZATZE-EGOERAREN TAULA OROKORRA



1. ARDATZA
JARDUERA EKONOMIKOA
ETA ENPLEGUA DITUEN BIZKAIA



1. ARDATZA JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA DITUEN BIZKAIA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
1.1	Bizkaitarrentzat kalitatezko enplegua sortzeko aukerak lortzea, arreta berezia jarritzuzko langabeen eta gazteen enpleguari, eta gaikuntza nahiz talentuaren garapena sustatuz epe luzerako enpleguaren berme modura	1.1.1	Bizkaiko Foru Aldundirako Lan-eskaintza Publikoa	Gauzatzen	% 53
		1.1.2	Enplegu anezkak (ANEZKA) sortzea Bizkaiko eskualdeetan	Gauzatzen	% 80
		1.1.3	Bazterkeria-arriskuan dauden langabeak laneratzeko plana	Amaituta	% 100
		1.1.4	Gazteen enplegarritasuna sustatzeko plana	Amaituta	% 100
1.2	Ekintzailtza babestea beraren alderdi guztietan, Bizkaian ekintzailtzaren kultura indartzea eta balio erantsi handiko zerbitzuak eta laguntzak eskaintzea ekinbideei	1.2.1	Ekintzailtzentzako <i>mentoring</i> edo <i>coaching</i> programa	Gauzatzen	% 50
		1.2.2	Emakumezkoak buru dituen ekintzailtza bultzatzeko plana	Gauzatzen	% 50
		1.2.3	Ekintzailtzaren kultura sustatzeko Egin eta Ekin programa eta Zitek programa indartzea	Gauzatzen	% 50
		1.2.4	Enpresa berritzaileak sortzeko eta enpresa-haztegiak kudeatzeko laguntza programak	Gauzatzen	% 50
		1.2.5	Ekintzailtzentzako hazi kapitaleko funtsak eta mikrokredituak sendotzea	Gauzatzen	% 50



1. ARDATZA JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA DITUEN BIZKAIA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
1.3	Aldundiaren eta Bizkaiko enpresen arteko itun estrategikoan oinarrituta, gure enpresa-ehuna babestea; horretarako, berrikuntza, nazioartekotzea eta lankidetzaren oinarri harturik, gure ohiko sektoreak sendotzea, eta gorantz datozen sektore berriak garatzea.	1.3.1	3i programa abiaraztea	Gauzatzen	% 50
		1.3.2	Elkarlanean programa abiaraztea	Gauzatzen	% 50
		1.3.3	Energy Intelligence Center delakoa sortzea, energia sektorea eta beraren balio katea Bizkaian finkatzea errazteko	Gauzatzen	% 30
		1.3.4	AIC zentroa eta beraren III. fasea sendotzea, automozio sektorea eta beraren balio katea Bizkaian finkatu daitezen	Gauzatzen	% 80
		1.3.5	Fabrikazio Aurreratuko Zentroa abian jartzea eta sendotzea, aeronautika sektorea eta beraren balio katea Bizkaian finkatzeko	Gauzatzen	% 95
		1.3.6	Nagusi Intelligence Center-en garapena	Gauzatzen	% 33
		1.3.7	IKTen arloko Bizkaiko aukera-hobieiei buruzko lantaldea sortzea	Amaituta	% 100
		1.3.8	ETE-etan inbertitzeko eta pertsona autonomoek inbertitzeko laguntza programak	Amaituta	% 100
		1.3.9	Tokiko merkataritza garatzeko programa	Gauzatzen	% 50



1. ARDATZA JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA DITUEN BIZKAIA

	HELBURUA	EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)	
1.4	Enpresen erakarpina eta kanpoko inbertsio produktiboa indartzea; horretarako, lurralde ireki eta abegitsu batek eskaini behar dituen baldintzak sortzea, behar besteko akuilu eta pizgarrien bitartez, eta, aldi berean, horrelako inbertsioak Bizkaira ekartzeko lan proaktibo handia egitea.	1.4.1	“Doing Business in Biscay” programa abiaraztea	Diseinatzen	% 20
		1.4.2	Inbertsioa erakartzea gure lurraldera	Diseinatzen	% 25
		1.4.3	Europako funtsak erakartzea aldundiak eta Bizkaiko udalek sustatutako programak elkarrekin finantzatzeko	Gauzatzen	% 30
		1.4.4	Enpresa multinazionalen I+G unitateak Bizkaira erakartzea	Diseinatzen	% 15
		1.4.5	<i>Crowdfunding</i> -erako plataforma publikoa sortzea	Gauzatzen	% 30
		1.4.6	ETE-en berrikuntzarako laguntza programak	Gauzatzen	% 50
		1.4.7	ETEak nazioartekotzeko laguntza programak	Gauzatzen	% 50
		1.4.8	ETE-etan inbertitzeko eta pertsona autonomoek inbertitzeko laguntza programak	Amaituta	% 100

2. ARDATZA
GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA
ETA AUKERA BERDINTASUNA
DITUEN BIZKAIA



2. ARDATZA GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA

	HELBURUA	EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)	
2.1	Bizkaiko komunikazio-sarea hobetzea eta garraio mota guztien bitartez gure konektibitatea areagotzea, bai barruko komunikazioetan, bai Europako metropoli eta eskualde nagusiekiko loturetan	2.1.1	Aurrera egitea tarifen eredu integral berri bat ezartzeko ahalmen handiko ordainpeko errepideen sarean	Amaituta	% 100
		2.1.2	Gerediaga-Elorrio ardatza amaitzea	Amaituta	% 100
		2.1.3	Ermuko saihesbidea amaitzea (Beko Errekako eta Uretamendiko tartekak)	Gauzatzen	% 75
		2.1.4	Amorebieta-Muxika tartea amaitzea (Urdinbideko tunelak)	Gauzatzen	% 85
		2.1.5	N-637aren eta N-633 eta BI-737aren arteko lotura egokitzea, Arrontegi-Mungia noranzkoan (Derioko lotunea)	Amaituta	% 100
		2.1.6	Sarbide eta espaloietako obrak amaitzea BI-631 errepidean (Egirleta)	Amaituta	% 100
		2.1.7	Gasolina-zerbitzuguneen eta Egirletako gainaren artean trazadura zuzentzeko proiektua	Amaituta	% 100
		2.1.8	La Arenako zubia konpontzeko obren proiektua idaztea eta obrak burutzea (A-8)	Gauzatzen	% 91
		2.1.9	Hobekuntza obrak amaitzea BI-623an Durango parean	Amaituta	% 100
		2.1.10	Motozaleak babesteko sistemak	Gauzatzen	% 70



2. ARDATZA GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
2.1	Bizkaiko komunikazio-sarea hobetzea eta garraio mota guztien bitartez gure konektibitatea areagotzea, bai barruko komunikazioetan, bai Europako metropoli eta eskualde nagusiekiko loturetan.	2.1.11	BI-3602 errepidea hobetzea, Zallan	Amaituta	% 100
		2.1.12	Obrak egitea BI-2121ean, Morgako udal-mugarlean	Amaituta	% 100
		2.1.13	Obrak egitea AP-8an eta N-240an, Usansolon	Gauzatzen	% 95
		2.1.14	Jarduketa egitea N-634an, Arriandi-Berna tartean	Gauzatzen	% 95
		2.1.15	Obrak N-634an, Galdakaon	Diseinatzen	% 20
		2.1.16	Jarduketa N-240an	Diseinatzen	% 23
		2.1.17	Obrak Sopuertan	Gauzatzen	% 26
		2.1.18	Hobekuntza obrak BI-633an	Diseinatzen	% 23
		2.1.19	Lankidetzaz hitzarmena Askatasun Bidea kalea luzatzeko eta Bermeoko saihesbidearekin lotzeko	Diseinatzen	% 15
		2.1.20	Metro Bilbaoren 3. linea abian jartzea	Amaituta	% 100



2. ARDATZA GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
2.1	Bizkaiko komunikazio sarea hobetzea eta garraio mota guztien bitartez gure konektibitatea areagotzea, bai barruko komunikazioetan, bai Europako metropoli eta eskualde nagusiekiko loturretan.	2.1.21	Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzaren sorrera	Amaituta	% 100
		2.1.22	Garraio publikoaren tarifen integrazioarako lehenengo azterlanak	Gauzatzen	% 30
2.2	Bizkaiko eskualde guztietan garapen iraunkorra sustatzea, ingurumen aldetik, eta orekatua, gizarte aldetik, eta eskualde guztientzako aukerak sortzen laguntzea	2.2.1	Bilboko Metropoliko Lurralde Plan Partziala hastea eta aztertzea	Gauzatzen	% 85
		2.2.2	Lea-Artibaiko saneamendua	Gauzatzen	% 55
2.3	Gizarte zerbitzuen eta laguntzen sare iraunkorra sendotu eta indartzea, inor atzean utziko ez duena eta konponbide azkarrak eta kalitate onekoak eskainiko dituen arreta gehien behar duten kolektiboen beharrezanetarako, batez ere gogoan hartuta adinekoak, umeak, desgaitasunen bat duten pertsonak eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeak	2.3.1	Desgaitasuna duten pertsonak etxean edota beren ohiko ingurunean mantentzeko programa berriak garatzea	Gauzatzen	% 45
		2.3.2	Tutoretzapeko adingabeen egoitza-harreraren ordezkotako aukerak diseinatu eta zabaltzea	Gauzatzen	% 50
		2.3.3	Etxebarrin autonomia pertsonala sustatzeko adinekoentzako zentro bat zabaltzea	Gauzatzen	% 75
		2.3.4	Zorrotzan adinekoentzako egoitza eta eguneko zentro bat zabaltzea	Amaituta	% 100
		2.3.5	Zaintzaileen estatutua onestea	Diseinatzen	% 25
		2.3.6	Ume Babesgabeentzako II. Plana onestea	Amaituta	% 100



2. ARDATZA GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
2.3	Gizarte zerbitzuen eta laguntzen sare iraunkorra sendotu eta indartzea, inor atzean utziko ez duena eta konponbide azkarrak eta kalitate onekoak eskainiko dituen arreta gehien behar duten kolektiboen beharrezanetarako, batez ere gogoan hartuta adinekoak, umeak, desgaitasunen bat duten pertsonak eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeak. (jarr.)	2.3.7	Desgaitasuna duten pertsonen komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitate ona izateko II. Plana onestea	Amaituta	% 100
		2.3.8	Familiatzako topagune berria, babesik gabeko umeak eta euren familiak elkartzeko	Amaituta	% 100
		2.3.9	"Bizkaia, adin guztietarako lurraldea" estrategia hedatzea	Gauzatzen	% 75
		2.3.10	0 eta 6 urte bitarteko haurrentzako arreta goiztiarra ituntzea	Gauzatzen	% 75
2.4	Aurrerapausoak ematea aukera-berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioa eraikitze bidean	2.4.1	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei laguntzeko programa	Gauzatzen	% 70
		2.4.2	Pertsonen salerosketaren aurkako Bizkaiko plan integrala	Gauzatzen	% 67
		2.4.3	Gizarte-bazterkeria handiko etxegabeei laguntzeko esku-hartzea	Gauzatzen	% 80
		2.4.4	Bizkaia erreferentzia-nodo bilakatzea gizarte-berrikuntzan	Gauzatzen	% 50
		2.4.5	Errefuxiatuei laguntzeko esku-hartze sozialeko Goiabe programa	Gauzatzen	% 70



2. ARDATZA GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
2.4	Aurrera egitea aukera-berdintasunaren bidean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioaren eraikuntzan (jarr.)	2.4.6	Nazioarteko lankidetzarako plan zuzentzailea lantzea	Amaítuta	% 100
		2.4.7	Berdintasunari buruzko Foru Arauaren proiektua	Gauzatzen	% 80
2.5	Bizkaiko gazteriari zuzendutako konfiantzazko esparru berriak sortzea, gure lurraldearen etorkizuna eraikitzen lagun dezaten	2.5.1	Legegintzaldiko Gaztedi Bizkaia 2020 plana	Gauzatzen	% 50
		2.5.2	Haur eta nerabeen arloan esku-hartzeko Bizkaia 2020 estrategia bultzatzea	Amaítuta	% 100
		2.5.3	Aisia inguruneetan gizarte- eta hezkuntza-jarduerak antolatzea umeen artean euskara, kultura eta kirola sustatzeko	Gauzatzen	% 50
2.6	Bizkaiko gazteriari zuzendutako konfiantzazko esparru berriak sortzea, gure lurraldearen etorkizuna eraikitzen lagun dezaten	2.6.1	Euskararen erabilera sustatzeko hizkuntza-marka bateratua sortu eta abian jartzea	Amaítuta	% 100
		2.6.2	Bizkaiko biztanle helduak euskalduntzeko laguntza ekonomikoen lerroa	Gauzatzen	% 50
		2.6.3	Erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea euskararen gizarte-erabilera bultzatzeko	Gauzatzen	% 50



	HELBURUA	EKINTZA		EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
2.7	Kulturaren aldeko apustu irmoa egitea, Bizkaiko garapen sozial eta ekonomikorako gako den aldetik; horretarako, kultura denen eskura jartzea, gure baliabide kulturalen balioa agerian jartzea eta sormenaren adierazpenak babestea.	2.7.1	Bilboko Udalarekin lankidetzan Euskal Museoa guztiz eraberritzeko proiektua	Gauzatzen	% 30
		2.7.2	Bizkaiko sorkuntza-lantegien eta kultura adierazpenen mapa egitea	Amaituta	% 100
		2.7.3	Tribisburuko nekropoliaren balioa nabarmentzea	Gauzatzen	% 40
		2.7.4	Bizkaiko Kultur Txartela programa	Gauzatzen	% 50
		2.7.5	Abantoko Meataritzaren Kultura eta Ingurumen Parkea	Amaituta	% 100
		2.7.6	Bizkaiko memoria historikoa kontserbatzen laguntzea	Gauzatzen	% 50

**3. ARDATZA
BIZKAIA MODERNOA,
HURBILA ETA ARDURATSUA**



3. ARDATZA BIZKAIA MODERNOA, HURBILA ETA ARDURATSUA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
3.1	Foru-administrazioa modernizatzea eta udalerriak xede dituzten zerbitzuak ahalik eta gehien hobetzea	3.1.1	Gertu programa. Aldundiaren arreta integralerako bulego pilotu bi martxan jartzea, Durangon eta Busturialdean. Emaizten arabera, ebaluatuko da programa Bizkaiko beste eskualde batzuetara zabaltzen den ala ez	Gauzatzen	% 60
		3.1.2	Eraginkortasunerako foru plana	Gauzatzen	% 50
		3.1.3	Bizkaiko Foru Aldundiaren udal-zerbitzuen katalogoa sortzea	Amaituta	% 100
		3.1.4	Lizitazio elektronikorako proiektu pilotua	Amaituta	% 100
		3.1.5	Azterlan bat egitea ahalik eta administrazio-prozedura gehien sinplifikatzeko eta izapideak zein agiriak murrizteko	Gauzatzen	% 40
		3.1.6	Erosketa-zentral bakarra eratzea erakundeetarako	Amaituta	% 100
		3.1.7	Nekazaritza eta abeltzaintzako teknologia berrietarako plan pilotua abian jartzea	Amaituta	% 100
		3.1.8	Busturialdean suhiltzaile etxe berria egitea	Diseinatzen	% 15
		3.1.9	Enkarterrin suhiltzaile etxe berria egitea	Diseinatzen	% 20
		3.1.10	Larrialdiak kontrolatzeko zentroa bateratzeko proiektua	Diseinatzen	% 20



3. ARDATZA BIZKAIA MODERNOA, HURBILA ETA ARDURATSUA

	HELBURUA	EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)	
3.1	Foru administrazioa modernizatzea eta udalentsako zerbitzuak optimizatzea (jarr.)	3.1.11	Erakunde arteko hitzarmen bat sustatzea, mugako eremuetan larrialdi-zerbitzuak emateko	Amaituta	% 100
		3.1.12	Iruzuraren aurka (zerga iruzurra nahiz gizarte laguntzen ingurukoa) jarduteko urteko hiru plan bultzatzea	Gauzatzen	% 50
		3.1.13	Aplikazio teknologikoak garatzea Bizkaiko herritarren artean kirol jarduera sustatzeko	Gauzatzen	% 75
		3.1.14	Lurralde barruko eta lurralde arteko elkarreragingarritasunerako programa	Gauzatzen	% 60
		3.1.15	Katastro balioak eguneratzea	Amaituta	% 100
		3.1.16	Foru Liburutegiko funtsak digitalizatzea	Gauzatzen	% 90
		3.1.17	Bizkaiko museoen sarea, BizkaiKOA, berrabiarazteko plan indartsua	Amaituta	% 100
		3.1.18	Ingurune teknologikoan euskarazko baliabide digital berriak eskaintzea eta herritarren artean haien erabilera sustatzea, bereziki gazteen artean eta hezkuntza-komunitatean	Gauzatzen	% 50



3. ARDATZA BIZKAIA MODERNOA, HURBILA ETA ARDURATSUA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
3.2	Herritarrengandik zein Bizkaiko udalerrietatik hurbilago dagoen aldundia lortzea, eta Bizkaiko eskualdeetara ere fisikoki hurbiltzea. Komunikatzeko eta parte hartzeko bide berriak ezartzea, zeinen bitartez lurraldeko erronka eta premiei eta pertsoneri hobeto erantzun ahal izango zaien.	3.2.1	Bizkairako politika publikoak aztertze eta ebaluatze sistema jartzea martxan	Gauzatzen	% 70
		3.2.2	Herritarren parte-hartzerako eredu propioa diseinatzea	Gauzatzen	% 70
		3.2.3	Gardentasunari buruzko foru araua egin eta sustatzea	Amaituta	% 100
		3.2.4	Interes-gatazkari eta bateraezintasunei buruzko foru araua egitea	Gauzatzen	% 40
		3.2.5	Aldundiaren web-orria berregituratzea	Gauzatzen	% 60
		3.2.6	Ate irekiko hainbat jardunaldi antolatzea aldundiaren eraikin nagusietan	Gauzatzen	% 50

***4. ARDATZA
BIZKAIA MUNDUAREKIN
LOTUTA***



4. ARDATZA BIZKAIA MUNDUAREKIN KONEKTATUTA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
4.1	Bizkaiko enpresa-ehunari eta erakundeei babesa eskaintzea nazioartekotzearen aldeko erronkan, eta etorkizunerako aukera gehien dituzten merkatuetan lekua hartzen laguntzea.	4.1.1	Europar dauden aukeren inguruko bulegoa irekitzea	Gauzatzen	% 75
		4.1.2	Bizkaiak nazioarteko foroetan duen presentzia bultzatzea	Gauzatzen	% 70
		4.1.3	Bizkaiko enpresei laguntzea negozio-aukera izan daitezkeen Ameriketako Estatu Batuak, Latinoamerika eta Asia bezalako lekuetan	Gauzatzen	% 70
		4.1.4	ETEak nazioarteratzeko laguntza programak	Gauzatzen	% 50
4.2	Gure gazteek nazioarteko esperientziak, ezagutza eta harremanak eskura izan ditzaten erraztea, ekonomia eta gizarte globalizatuen erronketarako prestaturik egon daitezen.	4.2.1	Basque Talent Network sarea sendotzea	Gauzatzen	% 62
		4.2.2	Bizkaia Katedra martxan jartzea	Gauzatzen	% 60
		4.2.3	Gazte bizkaitarren ezagutza eta nazioarteko prestakuntza sustatzea	Gauzatzen	% 66
		4.2.4	Kanpoko mugikortasunerako gida argitaratzea gazteentzat, haien prestakuntza hobetzen lagunduko duena	Amaituta	% 100



4. ARDATZA BIZKAIA MUNDUAREKIN KONEKTATUTA

	HELBURUA		EKINTZA	EGOERA	AURRERAPEN-MAILA (%)
4.3	Bizkaiari tartea egitea nazioarteko foro garrantzitsuetan, Bizkaiko herritarren eta enpresen munduarekiko lotura erraztu ahal izateko eta munduko erreferentzia diren herrialde eta eskualdeetako praktikarik onenak geureganatu ahal izateko.	4.3.1	Gizarte programei eta adinekoentzako programei buruzko esperientziak trukatzea Iparraldeko herrialdeekin	Gauzatzen	% 50
		4.3.2	Hondakinen tratamenduei eta ingurumen-praktika onei buruzko esperientziak trukatzea	Amaituta	% 100
		4.3.3	Ekonomia Ituna nazioartean ezagutu dadin sustatzea	Gauzatzen	% 30
		4.3.4	Smithsonian Folklife jaialdian parte hartzea	Amaituta	% 100
		4.3.5	NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sarean sartzea	Gauzatzen	% 75
4.4	Osoki garatzea Bizkaiak nazioarteko helmuga turistikoa gisa duen ahalmena, sektoreko agente eta enpresak babestuz eta nazioartean garrantzia duten ekitaldiak erakarriz	4.4.1	Nazioarteko gertakariak Bizkaira erakartzea	Gauzatzen	% 40
		4.4.2	Bizkaia Tourism Action Group erakundea sortzea	Gauzatzen	% 70
		4.4.3	Bilbao-Bizkaia helmuga turistikoa munduan sustatzea	Gauzatzen	% 70
		4.4.4	Bizkaiko turismo industria bultzatzeko plana	Gauzatzen	% 70

5

GENERO- ETA GAZTERIA- IKUSPEGIA ETA PARTE HARTZEKO BALIABIDEAK ERABILTZEA





GENERO IKUSPEGIA

Genero-ikuspegia guztiz integratuta dago Bizkaiko Foru Aldundiaren politika, zerbitzu eta programetan, bide luze baten ondoren 2016an “V. Foru Plana Bizkaian Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 2015-2019” agiria sortzearekin gailendu zena.

Foru politika horrekin bat eginez, 2015-2019 aldirako Bizkaia Goazen 2030 programaren lehentasunezko proiektuen artean integratuta dago baita ere genero-ikuspegi hori, bai proiektuak definitzean, bai sexuen arabera banatutako adierazleak eskuratzean, baita jarduketak ebaluatzeko logikan ere.

Lehentasunezko jarduketan barnean, hauek nabarmendu behar dira lurraldean aukera berdintasunak egoteko egiten dituzten ekarpenak direla-eta:

- A.1.1.1 Enplegu Publikoaren Eskaintza Bizkaiko Foru Aldundiarentzat: Deialdi guztietan genero-inpaktuari buruzko txostena txertatzea.
- A.1.1.2. Enplegu-anezkek sortzea (ANEZKA) Bizkaiko eskualdeetan: Anezkak genero-ikuspegia kontuan hartuz diseinatu ziren, eta horren ondorioz, bertan parte hartzen duten % 66 emakumeak dira.

- A.1.2.1. Mentoring edo coaching programa ekintzaileentzat. Etengabeko esfortzua egiten da sarean emakume mentoreak txertatzeko, enpresa munduan emakumeen presentzia agerian uzteko eta enpresa erreferente femeninoak sortzeko. Hala, horiek ekintzailtza bokazioa duten emakumeentzat efektu traktorea eta ereduagarria sortuko dute.
- A.1.2.2. Emakumeek gidatutako ekintzailtza sustatzeko plana. Programa espezifikoa honen helburua emakume ekintzaile eta enpresariak ahalduentzea, enpresa-sarean emakumeen presentzia bistaratzeko eta erreferenteak izango diren emakume ekintzaileak identifikatzea da, horiek motibagarriak izango baitira emakumeen arteko bokazio ekintzaileetarako.
- A.1.2.4. Laguntza-programak enpresa berritzaileak sortzeko eta anezkak kudeatzeko: Diskriminazio positiboko irizpideak erabiltzea emakumeak gidatutako ekintzailtza berritzaileko proiektuak programan sartzea ahalbidetzeko.
- A.1.2.5. Kapital Hazien eta Mikrokredituen Funtsekin indartzea ekintzaileentzat: Diskriminazio positiboko irizpideak erabiltzea emakumeak gidatutako ekintzailtza proiektuak mikrokredituen Mikro Funtsean sartzea ahalbidetzeko.



- A.1.3.1. 3i programa martxan jartzea: Proiektuetan laguntza ematen zaien enpresetako zuzendaritza taldeetan gutxienez % 35 emakumeak izatea bultzatzen da.
- A.2.4.1. Genero-indarkeriako emakume biktimen seme-alabei arreta emateko programa: Berariaz genero-indarkeriako emakume biktimen seme-alabei zuzendutako programa.
- A.2.4.2. Bizkaian gizakien salerosketaren aurkako plan integrala: Plan integral honen helburua nagusiki emakumeei eragiten dien arazoa ekiditea eta horren aurrean erantzuna ematea da.
- A.2.4.5. Errefuxiatuekin esku-hartze soziala egiteko Goihabe programa: Emakumeentzako lehentasunezko sarbidea programara eta plaza espezifikoak egotea emakumeentzat.
- 2.4.6. Nazioarteko lankidetzako zuzentaraua sortzea: Genero-ikuspegia txertatzea lankidetzako proiektu guztiak gauzatzean eta lehentasunezko jarduketara eremu bezala emakumeen ahalduntzea zehaztea.
- A.2.4.7. Berdintasunerako Foru Arauaren proiektua: Foru Arauaren helburu nagusia Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiten jarraitzea da.
- 2.5.1. Gaztedi Bizkaia 2020 legealdi-plana: Ekintza positiboko neurriak txertatzea gazteei buruzko politikak eta jarduketak diseinatzean.
- A.3.1.3. Bizkaiko Foru Aldundiaren udal-zerbitzuen katalogoa sortzea: Tokiko Erakundeei zuzendutako Zerbitzuen Katalogoan udalerrri mailako genero-proiektuei laguntzeko laguntza-lerroa txertatzea.
- A.3.2.2. Herritarren parte hartzerako eredu propioa diseinatzea: Martxan jartzen diren parte-hartze proiektuetan emakumeen eta gizonen parte-hartzean oreka egotea bilatzen da deialdiak egitean eta edukierak osatzean.



GAZTERIAREN IKUSPEGIA

Bizkaiko Foru Aldundiak aurretik eta modu jarraituan integratu du bere politika, zerbitzu eta programetan gazteria-ikuspegia, eta hori era berean, islatuta geratu da Bizkaia Goazen 2030 programaren estrategia, helburuak eta proiektuak definitzean eta planteatzean.

Modu horretan, Bizkaia Goazen-en zenbait lehentasunezko jarduketa daude, eta horien helburuak, besteak beste, gazteentzat kalitatezko enplegua egoteko aukerak sortzea, gazteei zuzendutako konfiantzazko espazioak garatzea, gazteen kualifikazioa eta prestakuntza hobetuko duten nazioarteko esperientzietara gazteek sarbidea izatea ahalbidetzea eta zailtasun gehien dituzten kolektiboek zuzendutako zerbitzu eta laguntzen sare iraunkorra bermatzea dira.

Lehentasunezko jarduketa horien artean, honakoak azpimarratu behar dira:

- A.1.1.2. Enplegu-anezkek sortzea (ANEZKA) Bizkaiko eskualdeetan: Lehentasuna izango dute 35 urte baino gutxiagokoek anezken 4tik 16rako deialdietan (Bilboko 2, Ezkerraldeko 1 eta Eskuinaldeko 1).
- A.1.1.4. Gazteen enplegarritasuna sustatzeko plana: Laguntza espezifikoak gazteen enplegarritasuna hobetzeko laneko trebakuntzarako neurriekin, gaitasunetan prestakuntza emanez eta kontratazioari lagunduz.

- A.1.2.3. Kultura ekintzailea sustatzeko Egin eta Ekin eta Zitek programak indartzea: Kultura ekintzailea sustatzeko programa espezifikoak egotea unibertsitateko alorretik eta unibertsitatekoa ez den alorretik (Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa) bultzatuta.
- A.1.2.4. Laguntza-programak enpresa berritzaileak sortzeko eta anezkak kudeatzeko: Ekintza positiboko irizpide bat txertatuko da proiektua sustatzen gehienbat gazteak daudenean.
- A.1.2.5. Kapital Hazien eta Mikroredituen Funtsak indartzea ekintzaileentzat: Enpresetako inbertsioetara lehentasunezko sarbidea izango dute kapital nagusia gazteena duten enpresek.
- A.2.3.2. Tutoretzapeko adingabeei egoitzazko harrera ematearen orde, beste irtenbide batzuk diseinatzea eta hedatzea: Jarduketa honen helburua tutoretzapean edo zaintzan dauden 18 urte baino beheragokoei harrera emateko formula berriak garatzea da.
- A.2.4.7. Berdintasunerako Foru Arauaren proiektua: Foru Arauaren barne daude berariaz gazteekin lotura duten gaiak, eta kontuan hartu da alor horretan hasierako etapetatik lan egitearen garrantzia.
- A.2.5.1. Gaztedi Bizkaia 2020 legealdi-plana: Lanerako esparru-estrategia espezifiko komuna onestea Bizkaiko gazteria politikak garatzeko.



- A.2.5.2. Bizkaia 2020 estrategia sustatzea umeei eta nerabeei zuzendutako esku-hartzea gauzatzeko: Hasierako adinetan esku-hartzerako estrategia espezifikoa sortzea.
- A.2.5.3. Jarduera sozial eta hezkuntzakoak antolatzea aisialdi-eremuetan, umeen artean hizkuntza, kultura eta kirola sustatzeko: Berariazko jarduera sozial eta hezkuntzakoak garatzea umeentzat, hala, beraien garapen pertsonala hobetzeko aisialdi-eremu batean.
- A.3.1.3. Bizkaiko Foru Aldundiaren udal-zerbitzuen katalogoa sortzea: Tokiko Erakundeei zuzendutako Zerbitzuen Katalogoan udalerrri mailako gazteria-proiektuei laguntzeko laguntza-lerroa txertatzea.
- A.3.2.2. Herritarren parte hartzerako eredu propioa diseinatzea: Parte-hartze ereduaren barnean berariazko proiektu parte-hartzailea txertatzea gazteentzat.
- A.3.2.5. Aldundiko webgunea berriz ere antolatzea: Atal edo sekzio espezifiko bat sortuko da webgunean, gazteei zuzenduta egongo dena.

- A.4.2.2. Bizkaia Katedra martxan jartzea: Bizkaia Katedra programa unibertsitateko alorrera zuzenduta dago, eta bere helburua lurraldearen etorkizunerako lehenetasunezko sektorean ikasleen prestakuntza sustatzea da.
- A.4.2.3. Bizkaiko gazteen ezagutza eta nazioarteko prestakuntza sustatzea: Gazteen ezagutza eta nazioarteko prestakuntza sustatzeko berariazko kualifikazio-bekak (London School of Economics eta Europako Gaiak)
- A.4.2.4. Kanpo-mugikortasuneko gida bat argitaratzea gazteentzat, horien prestakuntza hobetzeko: Berariazko tresna Europa mailan gazteen mugikortasuna eta esperientzia orientatzeko, ahalbidetzeko eta sustatzeko.

Gainera, gazteria Bizkaiko Foru Aldundiak 2017an jorratu dituen alor nagusietako bat izan da, urte hori Bizkaiko gazteen urtea izan baita, eta bertan, Bizkaia Goazen programa "Bizkaia Goazen Gazteak" programan bilakatu da, eta bere helburu nagusia gazteei aukera eta laguntza gehiago eskaintzea izan da.



PARTE-HARTZE IKUSPEGIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Gobernu Onaren, gardentasunaren, lankidetzaren eta herritarren eta lurraldeko agenteen parte-hartzearen aldeko apustu garbia egin du, eta hori islatuta geratu da gehituz doazen parte hartzerako espazio, prozesu eta aukeretan, eta horrez gain, du erakunde publiko bezala dugun izaera irekia erakusten du.

Aldundiaren iritiz parte-hartzeak, zentzu orokorrean, hainbat bide eta mota ditu, izaerari, irismenari eta formatuari dagokionez. Esperientziei buruz ari gara sinpleenetik abiatuz, adibidez iradokizunen postontzia, eta konplexuenera iritsi arte, besteak beste intentsiboagoak diren eztabaidarako eta parte-hartzerako tailerrak eta batera sortzeko espazioak. Garrantzi bera dute espazio formal eta egonkorrei egiten zaizkien erreferentziek eta txikiagoak eta puntualagoak diren esperientziek. Guztiak dira garrantzitsuak.

Parte-hartzearen aldeko apustu hau Bizkaia Goazen 2030 programaren lehentasunezko proiektuetan ere islatzen da. Lehentasunezko proiektu horien barnean honakoak nabarmendu behar dira, parte-hartzerako hainbat eredu barne hartzen dituztelako:

- **a.** Lehentasunezko jarduketak, non herritarrek eta lurraldeko agenteek parte hartzen duten informazio eta komunikazio esperientzien bitartez (iradokizunen eta kexen postontziak, informazio-puntuak, etab) eta kudeaketan eta erabakiak hartzean lankidetzan arituz (espazio formalak eta egonkorragoak, besteak beste foruak, kontseiluak, mahaiak, batzordeak, herritarren edo agenteen parte hartzearekin planak eta arauak sortzea, erabiltzaileen ekarpenetatik abiatuz gauzatutako proiektuak, etab).
- A.1.2.2. Emakumeek gidatutako ekintzailletza sustatzeko plana. BM30, Cebek eta AED erakundeek lagundutako jarduketaren diseinuan eta horien definizioan parte hartzea.
- A.1.3.3. Energy Intelligence Center sortzea, energia sektorearen ainguratzea eta Bizkaian bere balio-katea ahalbidetzeko. Proiektuak diseinatzea eta identifikatzea sektoreko enpresekin lankidetzan.
- A.1.3.9. Tokiko merkataritza garatzeko programa: Jarduketak diseinatzea eta garatzea merkataritza-elkarte ezberdinekin lankidetzan.



- A.1.4.7. ETE-ak nazioartekotzeko laguntza-programak: Laguntza programen inguruko hausnarketarako tailer bat antolatzea nazioartekotzea sustatzen duten agenteekin eta **enpresekin**.
- A.2.2.1. Bilbo Metropolitiko Lurralde Plan Partziala hastea eta aztertzea. Parte-hartze publikoko prozesua garatzea Bilbo Metropolitiko Lurralde Plan Partzialaren (BMLPP) Berrikuspen Prozesuaren esparruan gaikako foroak antolatuz.
- A.2.2.2. Lea-Artibaiko saneamendua. Aulestiko eta Munitibarko Hondakin Uren Araztegiak (HUA) eraikitzeako proiektuak jendaurrean erakustea, horien onesteko fasean zehar.
- A.2.3.3. Etxebarrin, nagusiei zuzendutako autonomia pertsonala sustatzeko zentroa irekitzea: Zentroaren izena, diseinua eta bertan gauzatuko diren programak Etxebarrin eta inguruan egindako prozesu parte-hartzaile batetik sortu dira. Proiektua Bizkaiko Adinekoen Kontseiluaren aurrean ere aurkeztu zen, horiek ekarpenak eta oharrak emateko.
- A.2.3.4. Zorrotzan egoitzazko eta eguneko zentroa irekitzea nagusientzat: Egoitzaren eta zentroaren lehenengo urteko ebaluazio kualitatiboa eta kuantitatiboa egitean, erabiltzaileek eta/edo horien familiakoek parte hartu dute.
- A.2.3.6. Babesgabe dauden Umeei buruzko III. Plana onestea: Plan hori sortzean Udaletako Gizarte Zerbitzuek, Eudel-ek, Arartekoak, Fiskaltzak, Osakidetzak eta hainbat Unibertsitatek parte hartu zuten, bestelako agente nagusien artean. Gainera, Plana “Umeak eta Nerabeak Babesteko Batzordeak” onetsi zuen.
- A.2.3.7. Desgaitasuna duten Pertsonen Komunitatean Parte Hartzerako eta Bizitza Kalitaterako II. Plana onestea: Plana jada sortu zen eta hedatzen ari dira Bizkaiko desgaitasuna duten pertsonen eta/edo familiakoen erakunde ordezkariekin lankidetzan.



- A.2.4.5. Errefuxiatuekin esku-hartze soziala egiteko Gohabe programa: Programa CEAR, Espainiako Gurutze Gorria, Cáritas, Fundación Ellacuría eta Lagungo erakundeekin garatu da.
 - A.2.4.7. Berdintasunerako Foru Arauaren proiektua. Lan-mahaiak gauzatu dira berdintasunaren alorrean garrantzia duten agenteekin, eta Aldundiaren webgunean espazio bat ireki da, herritarrek inkesta bat betez beraien iritzia eman dutelarik.
 - A.3.1.13. Bizkaiko biztanleriaren artean kirola egitea sustatzeko aplikazio teknologikoak garatzea: Datuak jasotzeko elkarrizketak egin ziren ibilbideetako erabiltzaileekin.
 - A.3.2.1. Bizkaiarentzat politika publikoen analisi eta ebaluazio sistema martxan jartzea: Kontu publikoak azaltzeko prozesu parte-hartzailea martxan jartzea eskualde guztietan. 2016ko azaroa eta 2017ko maiatza bitartean 10 topaketa egin dira Bizkaiko hainbat eskualdeetan.
 - A.3.2.2. Herritarren parte hartzerako eredu propioa diseinatzea: Herritarren parte-hartzea sustatzeko proiektu espezifikoak da.
- b.** Lehentasunezko jarduketa hauetan barneko parte-hartze esperientziak gauzatzen dira Sailen eta foru erakundeen lan koordinatuaren bitartez, zeharkakotasuna lan-estrategia eta helburu bezala kontuan hartuz.
- A.3.1.3. Bizkaiko Foru Aldundiaren udal-zerbitzuen katalogoa sortzea: Bizkaiko Foru Aldundiko Sail guztiek eta Foru Sozietate Publiko guztiek parte hartu dute zerbitzuak eta diru-laguntzak identifikatzen.
 - A.3.1.6. Erakundeentzako erosketetarako zentral bakarra sortzea: Udal guztiek eta foru erakunde publiko guztiek parte hartu dute.
 - A.3.1.10. Larrialdiak Kontrolatzeko Zentroa bateratzeko Proiektua: Prozesuaren barne dauden Aldundietako Zuzendaritza Nagusi guztiek parte hartu dute.



- c. Erakunde arteko parte-hartze espazioetan parte hartzen dugun lehentasunezko jarduketak (beste Aldundi, udal batzuekin, Eusko Jaurlaritzarekin, etab).
- A.3.1.11. Mugako eremuetan larrialdietako zerbitzuak emateko erakunde arteko hitzarmena sustatzea: Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundien larrialdi-zerbitzuek parte hartzea, eta Aiarako eremuan jarduketarako hitzarmen bat sustatzea.
- A.3.1.14. Elkarreragingarritasunerako programa, lurralde artean eta lurraldeen barnean: Lurraldeko udal guztiek, Bizkaiko Foru Aldundiko Sailek, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Gobernu Zentralak parte hartu dute Administrazio Publikoen artean datuak trukatzeko azpiegitura teknologikoa diseinatzen eta garatzen.
- A.4.4.2. Bizkaia Tourism Action Group sortzea: Lankidetzak publikoa eta pribatua egoteko espazioa, Bizkaiko Foru Aldundiak sortutakoa lurraldean sektore turistikoa sustatzeko. Bertan parte hartu dute Basquetourrek, Bilboko, Getxoko eta Barakaldoko Udalek, Bilboko Merkataritza Ganberak, Portuko Agintaritzak, Bilboko Aireportuak eta Basque Mountains, Basque Sea-Ura eta Basque City-Hiria helmugek.
- A.4.4.3. Bilbao-Bizkaia helmuga munduan sustatzea: Sektore turistikoko udalek eta enpresek parte hartu dute turismoa sustatzeko planaren lerro eta arlo nagusiak definitzen.

6

BALORAZIO OROKORRA





Bizkaia Goazen 2030 ezarri zenetik bi ekitaldira egin den balantzeak Bizkaia hobeto baterantz egiten ari garen ibilbidea erakusten du, eta balantzea oso positiboa da: Ekintzen % 29 amaituta; % 62 gauzatu; % 9 diseinatzen; lehentasunezko jarduketa bat ere ez dago hasi gabe edo atzeratuta, eta batez besteko egikaritze-maila % 67koa da.

Inpaktuari dagokionez, honako jarduketa eta datu nabarmenak azpimarratu behar dira:

1

JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA DITUEN BIZKAIA

- Deitutako enplegu publikoko 238 plaza, eta horietatik 127 plaza jada beteta daude.
- 2016an eta 2017an zehar Bizkaiko hainbat eskualdeetan 16 enplegu-anezka martxan jarri ziren, eta horietatik 11 jada bukatuta daude. Guztira 327 pertsonen parte hartu zuten eta laneratzeko batez besteko gehiengo maila % 60koa izan da.
- 525 pertsona laneratu dira enplegua lortzeko zailtasun gehiago dituztenei zuzendutako laneratzeko-programei esker: 30 urte baino gutxiagoko gazteak, 45 urte baino gehiago dituztenak, epe luzeko langabetuak eta gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak.
- 142 enpresa proiektu berritzaile berri eta 92 enpresa berritzaile berriri laguntza eman zaie.
- Laguntza ematen zaien ETE-etan berrikuntza sustatzeko 442 proiektu egon dira, eta lagundutako inbertsio hautagarria 55 milioi euro baino gehiagokoa izan da.
- Bat Funts ekonomikoaren (oraintsu sortu diren enpresa berritzaileei zuzendutakoa) eta Mikro Funtsaren (5 urte baino gutxiagoko jardura duten mikroenpresei zuzendutakoa) laguntzarekin sortutako 309 lanpostu.
- Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 3i programa berria martxan jartzea. 2016-2017an 27 proiektuari laguntza eman zaie eta eragindako inbertsioa 41 milioi euro baino gehiagokoa izan da.
- Tokiko merkataritzan dinamizazioko eta prestakuntzako 75 proiektu, eta 1.259 merkatariri prestakuntza eskaini zaie.
- Nazioartekotzerako 184 proiektu eta lankidetzako 31 proiektu, ETE-etan oinarritutako kanpoko merkatu berrietara iristeko.



2

GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA

- Bukatu dira Gerediaga-Elorrio ardatzeko obrak, N-637, N-633 eta BI-737 Errontegi-Mungia (Derio lotunea) loturako egokitze-obrak, BI-623 errepidea Durangotik pasatzen den zatiko obrak, Santo Domingoko gasolindegien eta gainaren trazatua zuzentzeko obrak, Oruetako eta Santo Domingo gaineko BI-631 errepideko sarbideetako eta espaloietako obrak, Morgako udal mugarteko BI-2121 errepideko obrak eta BI-3602 errepidea Zallatik pasatzen den tarteko obrak. Obra guzti horien ondorioz, edukiera eta kalitate handiko errepideen komunikaziorako azpiegitura sortzen jarraitzen da bide-segurtasuna handituz, bidaien denboran aurreztuz, hiriguneetan zaratak gutxituz eta emisio kutsatzaileak murriztuz.
- Bidesarea Planean jasota dauden beste jarduketa batzuk martxan daude, Bizkaiko eskualde guztietan obrak daudelarik.
- Gaitasun handiko bidesari sareari zuzendutako tarifa integralen eredu berria funtzionatzen dago jada, eta azken urtean 15.500 pertsona baino gehiago altan eman dira bertan.
- Bilboko Metroaren 3. linea martxan jarri da eta Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzak sortu da.
- Zorrotzako nagusientzako egoitzazko eta eguneko zentro berria martxan jarri da osorik, eta erabiltzaileei dagokionez beteta dago.
- Onetsi eta ezarri egin dira desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako komunitatean parte hartzeko eta bizi-kalitatea izateko II. Plana eta babesgabe dauden umeei zuzendutako III. Plana.
- Etxebarriko autonomia pertsonala sustatzeko zentro berria ireki da, eta zentro horren helburua dependentzia moderatuko egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden nagusien autonomia hobetzea eta horien narriadura prebenitzea da.
- Babesgabe dauden adingabeak eta horien familiak batzeko topaleku berria martxan dago.
- Martxan jarri dira genero-indarkeriako biktime diren umeei arreta emateko bi programa eta Gohabe programa, errefuxiatuekin esku-hartze soziala gauzatzen duena.



2

GIZARTE ZEIN LURRALDE KOHESIOA ETA AUKERA BERDINTASUNA DITUEN BIZKAIA

- Onetsi dira nazioarteko lankidetzako Plan Zuzentzailea eta Bizkaiko Gizarte eta Hezkuntzako Estrategia, umeekin eta nerabeekin esku hartzeko dena.
- Udalekuetarako 3.165 plaza eskaini dira jarduera sozial eta hezkuntzakoak gauatzeko aisialdi-eremuetan, umeen artean hizkuntza, kultura eta kirola sustatzeko.
- Zentro homologatuetan euskara ikasteko ikastaroak egiteko laguntza ekonomikoak jaso dituzte 3.051 pertsonak.
- Bizkaiko Kultur Txartela izeneko programa arrakastatsua izan da. Programa hori hainbat euskarritan produktu kulturalak erosteko da, eta 2016-2017 kanpainan 3,92ko salmenta-inpaktua izan du, hau da, programa honetan inbertitutako euro bakoitzeko ia 4 euroko kontsumo kulturala suspertu da.



3

BIZKAIA MODERNOA, HURBILA ETA ARDURATSUA

- Lehenengo urtez martxan egon da Durangoko herritarrei arreta integrala emateko bulego pilotua Gertu programaren bitartez, eta 62.289 kontsulta eta izapidetze erregistratu ziren bertan.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Zerbitzuetako Katalogoa argitaratu da, eta euskarri fisikoan eta nabigagarria den euskarri digitalean dago.
- Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako kontratu irekientzako lizitazio elektronikoko plataforma guztiz martxan dago.
- Bizkaiko Kontrataziorako Foru Zentrala eratuta eta hedatzen dago, eta horren bitartez gastua optimizatzen da, Aldundiaren eta foru sektore publikoko erakundeen karga administratiboa arintzen da eta kontratazio-prozesuak bizkortzen dira.
- Sinatu da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko lankidetzaren mugakide diren eremuetan Prebentzio, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuen mobilizazioa eta esku-hartzea koordinatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Iruzzurren aurkako Plana eta 2017rako Euskal Autonomia Erkidegorako Iruzur Fiskalaren aurkako Plan Bateratua onetsi dira eta Zerbitzu eta Gizarte Prestazioen Ikuskaritza eta Kontrolerako Plan Orokorra martxan jarri da; plan hori hainbat urtetarako da eta 2017-2019 aldian gauzatuko da.
- Udaletako katastro-txostenak % 100ean eguneratu dira.
- Foru Artxibategi Historikoko eta Foru Liburutegiko 1.200.000 ondare funts baino gehiago digitalizatu dira eta sarearen bitartez horiei zuzendutako 1.960.000 kontsulta baino gehiago egin dira.
- Bizkaiko 10 eskualdeetan kontuak azaltzeko prozesu parte-hartzailea gauzatu da.
- Gardentasunerako Foru Araua onetsi eta ezarri da eta Gardentasunari dagokionez, Erreklamazioen Batzordea eratu da.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru sektore publikoko erakundeen gardentasunerako atari guztiak aktibo daude indarrean dagoen araudiak zehaztutako epean.
- Aldundiaren www.bizkaia.eus webgunea berregituratzeko lehenengo fasea bukatu da eta atal berriak garatzen ari dira, besteak beste GeoBizkaia, OpenData, Gardentasuna eta Arreta Goiztiarra.



4 BIZKAIA MUNDUARI LOTUTA

- Bizkaiko Foru Aldundiari eta bere organismo autonomoei zuzendutako Europako Orientazioko Bulegoa martxan jarri da.
- Bizkaia nazioarteko foroetan egotea sustatu da, besteak beste 2016an Smithsonian Folklife Festival-en, non 600.000 pertsonen zuzenean ezagutu ahal izan zituzten gure kultura, gure hizkuntza eta gure enpresak.
- 7 enpresa-misio gauzatu dira aukerak dauden eremuetara, besteak beste Ameriketako Estatu Batuetan, Latinoamerikan eta Asian, eta Estatu Batuetako, Europako eta Afrikako nazioarteko ordezkarien 22 misio izan ditugu gurean.
- 23 beka eman zaizkie Bizkaiko gazteei horien nazioarteko ezagutza eta prestakuntza hobetzeko eta hala, beraien etorkizuna eta lurraldekoa ahalbidetzeko.
- Kanpo-mugikortasuneko gida bat eguneratzea gazteentzat, horien prestakuntza hobetzeko. Gida 1.400 aldiz deskargatu dute.
- Aldundia «Silver Economy» Europako saria gidatzen duen taldean txertatu da, baita Aldundiak garatzen duen iparraldeko herrialdeekin gauzatutako programa sozial eta adinekoei buruzko esperientziak partekatzeko esparruan ere.
- Bilbao Bizkaia Action Group (BBAG) eratu eta dinamizatu da. Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako tresna berria da publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako, eta hala, lurraldean sektore turistikoa sustatzeko; 91 erakundek parte hartzen dute bertan.
- Bilbao-Bizkaia helmuga turistikoa bezala sustatu da munduan zehar nazioarteko garrantzia duten 27 ekimenetan eta helmuga sustatzeko 138 jarduketa B2B, B2C eta zeharkako ekintza gauzatu dira.
- Bilbao-Bizkaian jarduera turistikoa sustatzeko lagundutako 168 proiektu gauzatu dira.

***ERANSKINA:
LEHENTASUNEZKO PROIEKTUEN
JARRAIPEN-FITXA ZEHATZAK***



A

*Eranskina: Lehentasunezko proiektuen
jarraipen-fitxa zehaztuak*

***1. ardatza. Jarduera ekonomikoa
eta enplegua dituen Bizkaia***



A.1.1.1.

Bizkaiko Foru Aldundirako lan-eskaintza publikoa

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.1. Kalitatezko enplegua sortzeko aukerak lortzea bizkaitarrentzat
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Foru Aldundian enplegatu publiko moduan lana eskuratzeko hautagaiak
HELBURU OROKORRA	Plantilla egonkortzea eta kalitatezko enplegu publiko iraunkorra bermatzea
EGINIKO JARDUERA	<p>Helburua hautaketa-prozesuak egitea da, prozesu hori gainditzen dutenek foru enplegu publikoa eskuratzeko modua izan dezaten. Hala, egonkortasuna emango zaie langileei eta kalitatezko enplegua sortuko da.</p> <p>2014ko, 2015eko, 2016ko eta 2017ko lehen faseko eskaintzak betearazten ari dira batera eta pixkanaka.</p> <p>2017an, 56 plaza berrirako deialdia egin da, 15 kategoriatakoak, eta aurreko urteetako deialdietakoekin batera, guztira 238 plaza dira; 127 plaza bete dira, eta ez da plaza hutsik adierazi bukatutako deialdietan.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 53
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Deialdietako plazak	176	238 (*)
Bete diren plazak	0	127 (**)

(*) Deituriko indarreko eskaintzen deialdien plaza kopurua (guztiz garatzeko hiru urte dituzte) eta urtean beterikoak; (**) 2017an deiturikoa plaza berriei nahiz 2016ko deialdietakoei dagokie.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	2016an, inskribaturiko pertsonen % 53 emakumeak izan ziren. 2017an, berriz, % 65 izan dira. Deialdi guztietan genero-eraginari buruzko txostena izan da
GAZTERIA	Prozesuon helburuetarako bat erakundeko pertsonen belaunaldien arteko erreleboa da. Deialdi hauetara gehienetan, ez beti, gazteak datoz, kalitatezko eta egonkor den lana bila.
PARTE-HARTZEA	-



A.1.1.2.

Enplegu-anezkak (ANEZKA) sortzea Bizkaiko eskualdeetan

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.1. Kalitatezko enplegua sortzeko aukerak lortzea bizkaitarrentzat
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna
JASOTZAILEAK	Bizkaiko langabeak
HELBURU OROKORRA	20 anezka jartzea martxan Bizkaiko eskualdeetan, Anezka programan parte hartzen duten pertsonen laneratzeari laguntzeko.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an zehar enplegurako 3 anezka sortu eta amaitu ziren, hau da, Bilbo, Ezkerraldea eta Enkarterrikoa.</p> <p>2017ko ekainaren 30ean 2016ko urrian abian jarri ziren beste 8 anezka amaitu ziren: Bilbo eta Ezkerraldeko bigarren anezkak (Fundación Telefónica-ren lankidetzarekin burutu zirenak eta finantzaketan Europako Gizarte Funtsak ere lagunduta daudenak) eta lehenengoak izan zirenak Busturialdean, Uribe-kostan, Nerbioi-Ibaizabalen, Meatzaldean eta Durangaldean, eta hirugarren anezka bat Bilbon, 2016ko abenduan abian jarri zena. 8 anezka horietan guztira parte hartu duten pertsonak 145 izan dira eta laneratze-ehunekoak, gutxi gorabehera, % 60 izan da.</p> <p>2017ko urrian 5 anezka berri jarri ziren abian Bilbon eta Eskuinaldean (bata eta bestea Telefónicaren lankidetzarekin eta finantzaketan Europako Gizarte Funtsak lagunduta); halaber, abian jarri ziren Ezkerraldean, Meatzaldean eta Nerbioi Garaian. Hauen kasuan bakoitzean batezbeste parte hartu duten pertsonak 23 izan dira.</p> <p>Guztira abian jarri diren anezkak 16 izan dira. 11 amaituta daude eta laneratzearen batezbestekoa gutxi gorabehera % 60koa izan da, eta abian daude 2018an amaituko diren beste 5.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 80
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Martxan jarritako anezka kopurua	11	16
Anezkaren bat duten eskualdeen portzentajea	% 66,6	% 66,6
Anezketan parte hartzen duen pertsona kopurua	212	327
Laneratzen diren parte-hartzaileen kopurua (*)	59	110

(*) Adierazle hau anezkak amaitzen diren datan zenbatesten da. Horrela, 2017an amaitu diren anezketan 2016an parte hartu zuten 212 pertsonetatik 110 pertsonaren kontratazioa bideratu da.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Anezkak diseinatzerakoan generoaren ikuspegia hartu da aintzat eta horri esker horietan parte hartu duten pertsonen % 66 emakumeak izan dira.
GAZTERIA	Fundación Telefónica erakundearen lankidetzarekin egin diren 4 anezken kasuan (2 Bilbon, 1 Ezkerraldean eta 1 Eskuinaldean) lehenetsia 35 urtetik beherako gazteak izan dira.
PARTE-HARTZEA	-



A.1.1.3.

Bazterkeria-arriskuan dauden langabeak laneratzeko plana

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.1. Kalitatezko enplegua sortzeko aukerak lortzea bizkaitarrentzat
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna
JASOTZAILEAK	45 urtetik gorako langabeak, iraupen luzeko langabeak eta bazterkeria-arriskua duten langabeak.
HELBURU OROKORRA	Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegarritasuna sustatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016ko ekainaren 14ko 110/2016 Foru Dekretuaren bidez, laneratzeko zailtasun handiak dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko pertsonen enplegarritasuna sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia ezarri ziren (Lan Berri programa).</p> <p>Helburua laneratzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak ohiko lan merkatu arruntean sartzea izan da, eta, horretarako, 45 urtetik gorako langabeak, iraupen luzeko langabeak eta bazterkeria-arriskua duten langabeak hartu ditu aintzat.</p> <p>Lanberri programa 2017ko ekainaren 30ean amaitu zen eta parte hartu zuten pertsonak 5.467 izan ziren. Programaren bidez hiru neurri garatu dira :</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lan-gaitasuna (orientazioa, talde prestakuntza, bitartekaritza eta laneratzeari). Atal horretan parte hartu dutenak 627 pertsona izan dira. - Gaitasun pertsonal eta profesioaletan trebatzea. Kasu honetan parte hartzaileak 4.840 izan dira. - Kontratazioan laguntzea. Lanberri programak guztira 315 kontratazio bideratu ditu.

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Lanerako orientazio-jarduketetako parte-hartzaile kopurua	39	627
Trebakuntza-jardueretako parte-hartzaile kopurua	110	4.840
Laneratutako pertsona kopurua (*)	131	315

(*) Adierazle honetan 1 linearen (Lan-gaitasuna) eta 3 linearen (Kontratazioan laguntzea) bidez diruz lagundu diren ibilbideetan egin diren kontratuen kopurua azaltzen da.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Lanberri programan parte hartu dutenen % 51,6 emakumeak izan dira. Parte hartu duten 2.821 emakumeetatik % 16ak lan-gaitasunaren linean hartu du parte da eta % 84ak gaitasunaren prestakuntzaren arloan. Lanberri programak guztira emakumeen 209 laneratzeko lagundu ditu (muntza osoaren % 66,3).
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.1.1.4.

Gazteen enplegarritasuna sustatzeko plana

DESKRIBAPENA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.1. Kalitatezko enplegua sortzeko aukerak lortzea bizkaitarrentzat
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna
JASOTZAILEAK	30 urtera arteko langabe gazteak.
HELBURU OROKORRA	Enplegurako sarbidea erraztea gazteei.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016ko maiatzaren 31ko 102/2016 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko langabetu gazteen enplegarritasuna sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia ezarri ziren.</p> <p>Helburua 30 urtera arteko langabe bizkaitarrak ohiko lan-merkatuan sartzea eta haien enplegarritasuna hobetzea izan da.</p> <p>Gazteen enplegarritasuna sustatzeko programa 2017ko ekainaren 30ean amaitu zen. Programaren bitartez hiru neurri garatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lan-gaitasuna (orientazioa, talde prestakuntza, bitartekaritza eta laneratzea): Oinarrizko ikasketak amaitu gabe dituzten, DBH edo Batxillergoa egin duten edo Lanbide-Heziketako titulazioa duten gazte langabeei zuzenduta dago. Parte hartu duten pertsonak: 495. - Gaitasunetan trebatzea: Erdi edo goi mailako Lanbide-Heziketako titulazioa duten gazteei edo gradu-ikasketak amaituta unibertsitateko titulazioa duten gazteei zuzenduta dago. Trebakuntzako jardueretan parte hartu duten pertsonak 1.666 izan dira. - Kontratazioari laguntzea: Enplegarritasunaren Programaren bidez lortu diren laneratzeak 210 izan dira.

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Lanerako orientazio-jarduketetako parte-hartzaile kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: ekintzak 2017an hasita daudenean.	495
Trebakuntza-jardueretako parte-hartzaile kopurua	668	1.666
Laneratutako gazte kopurua (*)	76	210

(*) Adierazle honetan 1 linearen (Lan-gaitasuna) eta 3 linearen (Kontratazioan laguntzea) bidez diruz lagundu diren ibilbideetan egin diren kontratuen kopurua azaltzen da.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Programaren barruan sustatu egiten da emakumeen parte hartzea. Gazteen enplegarritasunaren programan parte hartu duten emakumeen kopurua 218 izan da Orientazioko jardueretan eta 721 trebakuntzaren arloko jardueretan. Programaren bidez laneratu diren emakumeak, guztira, 94 izan dira.
GAZTERIA	Enplegarritasunaren programan parte hartu duten pertsona guztiak 18 eta 30 urteko gazteak dira.
PARTE-HARTZEA	-



A.1.2.1.

Ekintzaileentzako mentoring edo coaching programa

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.2. Ekintzaileentzaren alderdi guztiak sustatzea
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena
JASOTZAILEAK	Bizkaiko ekintzaileak
HELBURU OROKORRA	Bizkaiko ekintzaileek beren enpresak sortzeko ezagutza gehiago eta hobeak izan ditzaten laguntzea. Horretarako, Bizkaiko <i>startup</i> -en hazkundera azkartuko da.
EGINIKO JARDUERA	2016an garatutako jarduerarekin jarraituz, 2017an zehar «Bizkaia mentoring network» mentoring sarea osatzen duten pertsonen mentorizatu beharreko proiektuak eta pertsona sustatzaileak identifikatzen jarraitu da. Abenduan, 51 mentorek osatzen duten sare horren aurkezpena egin da. Gaur egun 14 proiektu ari gara laguntzen; 2016an lagundutako 9 proiektuei gehitu behar zaizkie.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Mentoring-prozesuetan lagundutako proiektuen kopurua	9	23
Sareko kide diren mentoreen kopurua	40	51
Sareko kide diren emakume mentoreen portzentajea (*)	% 7,5	% 15,6
Mentorizatatutako proiektuek sortutako enpleguen kopurua	15	78

(*) Datua kasuan kasuko urteko abenduaren 31n zeuden emakume mentoreen ehuneko efektiboari dagokio.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Ahalegin etengabea egiten ari da sarean emakume mentoreak sartzeko, alde batetik, emakumeek enpresa-munduan duten presentzia ikusarazteko, eta, beste alde batetik, bokazio ekintzailea duten emakumeentzat eragile eta erreferente diren emakume ekintzaileak sorrarazteko.
GAZTERIA	Mentoringak ekintzaileei balorea gehitzen die ezagutza eta esperientzia alorrean. Hau esanguratsuagoa da ekintzaileak gazteagoak diren heinean edo aurretiazko esperientzia profesional urria dutenean.
PARTE-HARTZEA	Mentoreen sarea Administrazio Publikotik kanpoko pertsonen osatzen dute; esperientzia profesional eta enpresarial handia dute eta ekintzaile berrien eskura jartzen dute beren esperientzia



A.1.2.2.

Emakumeak buru dituen ekintzailtza sustatzeko plana

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.2. Ekintzailtza alderdi guztiak sustatzea
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena
JASOTZAILEAK	Bizkaiko emakume ekintzaileak
HELBURU OROKORRA	Emakumeen ekintzailtza sustatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>2017an beste erakunde batzuekin lankidetzan jarduketak egiten jarraitu da, emakumeak buru dituen ekintzailtza sustatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearekin, emakumeen lidergoa sustatu eta indartzeko, behatoki bat abiarazi eta haren jarraipena eginda. - Cebek Bizkaiko Enpresarien Konfederazioarekin, Enpresa Bardin proiektua garatzeko, emakume enpresaburuak ikusarazteko asmoz eta kide anitzeko ordezkari-organoean emakumeen presentzia handiagoa izan dadin. - Bilbao Metropoli 30 erakundearekin (BM30), ANDREkintzailea ekimena garatzeko, enpresa-kudeaketa hobetzeko eta emakume ekintzaile eta enpresaburuaren arteko sareak sortzeko. <p>Kasu guztietan, barruko eta kanpoko jarduerak egin dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren garrantzia barneratzeko eta emakume ekintzaileak eta enpresaburuak gizartean ikusarazteko. Esparru horretan, ahalegina egiten da emakume ekintzaile eta enpresaburuaren presentzia handia duten enpresa-sareak sustatzeko.</p> <p>Era berean, eskuliburu bat ere egin da, ekintzailtza sustatzeko prozesuan genero-ikuspegia kontuan hartzeko. Eskuliburu hori Emakunderen Berdintasunerako Foroan aurkeztu da.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Emakume ekintzaileak eta enpresaburuak ikusarazteko eta haien balioa aitortzeko egindako jarduketaren kopurua	3	6
Emakume ekintzaileei prestakuntza eta laguntza emateko jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	50	163
Emakume ekintzaileei prestakuntza eta laguntza emateko jarduera espezifikoetan parte hartu duten gazteen portzentajea	% 0	% 0

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Jarduketaren helburua da emakume ekintzaileak eta enpresaburuak ahalduntzea, enpresa-sarean haien presentzia ikusaraztea eta erreferente diren emakume ekintzaileak identifikatzea, emakumeen artean bokazio ekintzaile berriak sortzeko motibazio izan daitezen.
GAZTERIA	Coaching, mentoring, enpresa-kudeaketa eta sareak sortzeko jarduketak ere eragin handiagoa dute ekitea erabakitzen duten emakume gazteengan.
PARTE-HARTZEA	Sustatzen diren jarduketak AED, Cebek eta BM30 erakundeetatik egiten dira; Bizkaiko Foru Aldundiak garatu beharreko jarduketak diseinatzen hartzen du parte, sinergiak sorrarazteko.



A.1.2.3.

Kultura ekintzailea sustatzeko Egin eta Ekin eta Zitek programak indartzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.2. Ekintzailetzaren alderdi guztiak sustatzea
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena
JASOTZAILEAK	Gazteak
HELBURU OROKORRA	Kultura ekintzailea sustatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Egin eta Ekin programak ekintzailetzaren balioekin zerikusia duten edukiak lantzen ditu Bizkaiko ikastetxeetan, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleekin.</p> <p>Egin eta Ekin programa 2016-2017 ikasturtean gauzatu da, eta 25 zentrotako 1.015 ikaslek parte hartu dute. 2017ko hirugarren hiru hilabetean, programaren 2017-2018 ikasturteko beste edizio bat hasi da, eta 24 hezkuntza zentrotako 920 gaztek parte hartu dute.</p> <p>Era berean, UPV/EHUren Bizkaiko campuseko ikasle, irakasle eta ikertzaileen artean kultura ekintzailea sustatzeko lan egiten da.</p>

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Gaur egun, emakume ekintzaileak gutxiago dira gizonak baino; hori dela-eta, ekintzailetza kultura sustatzeko eta haren gaineko sentsibilizazioa lantzeko jarduketek oinarrian berdintasuna izanik eta genero-roleri lotuta dauden ekintzailetzarako oztopoak baliogabetuz ekintzailetzan hastea erabakitzen duten emakumeen eta gizonen arteko aldea epe ertainean murriztea lortu nahi da.
GAZTERIA	Jarduketa honekin, kultura ekintzailea gazteen artean sustatu nahi da. Helburu horrek aparteko garrantzia du, izan ere, zenbait ikerketen arabera, etorkizunean pertsona ekintzaileak nahi baditugu behar-beharrezkoa da ekintzailetzaren kultura eta balioak gaztetatik lantzea.
PARTE-HARTZEA	Jarduketa hori UPV/EHUrekin eta Bizkaiko hezkuntza-zentroekin lankidetzan egiten da, eta, ahal den neurrian, ekintzailetzaren kultura eta balioak prestakuntza arautuarekin uztartzen dira.

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Kultura ekintzaileari buruzko jardueretan parte hartu dutenetatik, unibertsitateaz kanpoko ikasketetan ari diren pertsonak, guztira	1.957	2.877
Kultura ekintzaileari buruzko jardueretan parte hartu dutenetatik, unibertsitateaz kanpoko ikasketetan ari diren emakumeen portzentajea (*)	% 51	% 50
Kultura ekintzaileari buruzko jardueretan parte hartu dutenetatik, unibertsitateaz kanpoko ikasketetan ari diren gazteen portzentajea (*)	% 100	% 100
Unibertsitatean, kultura ekintzaileari buruzko jardueren bidez sentsibilizatu diren pertsonak, guztira	35.568	70.833
Unibertsitatean, kultura ekintzaileari buruzko jardueren bidez sentsibilizatu diren emakumeen portzentajea (*)	% 59	% 54
Unibertsitatean, kultura ekintzaileari buruzko jardueren bidez sentsibilizatu diren gazteen portzentajea (*)	% 93	% 92

(*) Datu hauek kasuan kasuko urteko abenduaren 31n zegoen ehuneko efektiboari dagozkie.

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	----------	------------------	------



A.1.2.4.

Enpresa berritzaileak sortzeko eta enpresa-haztegiak kudeatzeko laguntza-programak

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.2. Ekintzailetzaren alderdi guztiak sustatzea
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena
JASOTZAILEAK	Bizkaiko ekintzaileak
HELBURU OROKORRA	Ekintzailetzari bultzada ematea, enpresa-proiektuak eta <i>startup</i> -ak babestuz.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an garatutako jardunarekin jarraituz, 2017an Enpresa Berritzaileak Sortzeko programaren deialdia ebatzi da. Orotara 69 proiektu lagundu dira, enpresa berrien bideragarritasuna aztertzeraz bideratutakoak; hala, 2016ko deialdian lagundutako 73 proiektuei gehitu behar zaizkie.</p> <p>Bidenabar, 2017an sortu berri diren 59 enpresei laguntza eman zaie, eta 2016an lagundutako 33 enpresei gehitu behar zaizkie, baita gazela enpresak bizkortzeko proiektu 1 ere.</p> <p>2017ko ekitaldian zehar, guztira 125 enpresa Bizkaiko Foru Aldundia partaidetza gisa dituen enpresa haztegiengan kokatuta egon dira.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Lagundutako enpresa-proiektu berritzaileak, guztira	73	142
Lagundutako enpresa berritzaile berriak, guztira	33	92
Enpresa-haztegiengan egon diren enpresak, guztira	122	125
Lagundutako enpresa berritzaile berriek sortutako enplegua	154	494
Enpresa-haztegiengan egondako enpresetan sortutako enplegua	538	592

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Enpresa berritzaileetan diharduten emakume ekintzaileen kopurua gizonena baino txikiagoa da, eta, beraz, alde hori gutxitzeko, ekintza positiboko irizpide bat sartzen da proiektuaren sustatzaile gehienak emakumeak direnean.
GAZTERIA	Enpresa berritzaileetan diharduten ekintzaile gazteen kopurua txikia da, eta, beraz, programak ekintza positiboko irizpide bat sartzen du proiektuaren sustatzaile gehienak gazteak direnean.
PARTE-HARTZEA	Sareko enpresa-haztegiak ekintzailetza-sistemako eta ezagutza eta berrikuntza sistemako beste eragile batzuekin (Spri, UPV/EHU, Beaz...) elkarlanean kudeatu dira, eta horrek sinergiak sortzen ditu eta sarearen eraginkortasuna areagotzen du.



A.1.2.5.

Ekintzaileentzako hazi-kapitaleko funtsak eta mikrokredituak sendotzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.2. Ekintzaileentzaren alderdi guztiak sustatzea
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena
JASOTZAILEAK	Bizkaiko ekintzaileak
HELBURU OROKORRA	Enpresei finantziarioa lortzeko erraztasunak eskaintzea.
EGINIKO JARDUERA	Bat eta Mikro funtsak kudeatzen jarraitu da, bai eta Seed Capital Bizkaia sozietateak kudeatutako gainerako funtsak ere. 2017an, sortu berri diren enpresa berritzaileentzako Bat Funtsak 4 enpresatan inbertitu du. Urte horretan, jardueran 5 urte baino gutxiago daramaten mikroenpresentzako Mikro Funtsak maileguak eman dizkie 32 enpresari.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Enpresen lehen kapital-eskuraketak eta hazi-kapitaleko funtsak (Bat funtsa) enpresei emandako lehen partaidetza-maileguak, guztira	7	11
Mikrofinantziarioaren bidez (Mikro funtsa), enpresei emandako lehen partaidetza-maileguak, guztira	19	51
Partaidetza duten enpresei egindako kapital-ekarpena	965.000€	1.365.000€
Maileguetan (mikrokredituak) emandako zenbatekoa	362.000€	965.750€
Emandako laguntzari esker sortu diren lanpostuak (Bat funtsa)	40	76
Emandako laguntzari esker sortu diren lanpostuak (Mikro funtsa)	98	233

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Mikro Funtsak lehentasuna ematen dio kapital gehiena emakumeena duten enpresetan inbertsioa egiteari.
GAZTERIA	Mikro Funtsak lehentasuna ematen dio kapital gehiena erdi- edo goi-mailako ikasketak dituzten gazteena duten enpresetan inbertsioa egiteari.
PARTE-HARTZEA	Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, hainbat enpresak parte hartzen dute Seed Capital Bizkaia sozietatearen kapital sozialean. Ondorioz, erakunde horiek osatzen dituzte sozietate horren kudeaketa-organoak.



A.1.3.1.

3i programa martxan jartzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.1.3. Gure enpresa-sareari laguntzea, Aldundiaren eta Bizkaiko enpresen arteko aliantza estrategiko batean oinarrituta
Laguntza Espezializatua Emateko Familia Elkargune berrian guztira lagundutako mutilak	120	119
Laguntza Espezializatua Emateko Familia Elkargune berrian guztira lagundutako neskek	113	124

(*) Ekitaldi bakoitzari dagokion balioa. Metatu gabeko datuak.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	2017an 124 neskatari eman zaie arreta (guztiaren % 51) laguntza espezializatuko Familia Elkargune berrian.
GAZTERIA	Jarduketa hau babesgabetasun egoeran dauden 0 eta 18 urte arteko adingabeen komunitateari dago berariaz zuzenduta.
PARTE-HARTZEA	-



A.2.3.9.

«Bizkaia, adin guztientzako lurraldea» estrategia zabaltzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koheretza eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.3. Gizarte-zerbitzu eta -laguntzen sare iraunkor bat finkatu eta indartzea, pertsona guztiak kontuan hartzen dituen eta laguntza handiena behar duten taldeen premiei erantzuteko konponbide arin eta kalitatekoak eskaintzen dituen
ARDURA DUEN SAILA	Gizarte Ekintza
JASOTZAILEAK	Bizkaiko adinekoak
HELBURU OROKORRA	Bizkaia adin guztietarako lurralde bihurtzea, kontuan hartuta 317.000 pertsona (herritarren %27,8) 60 urtetik gorakoak direla.
EGINIKO JARDUERA	2017ko uztailean Bizkaiko Zahartze Aktiboko Indizearen bigarren neurketa jakinarazi zen, UPV/EHUK egindakoa; % 0,6ko igoera agerrarazi zuen (2014an 35 zen eta 2016an, berriz, 35,2). 2016an bezala, 2017an ere toki erakundearen proiektuetarako diru-laguntzen deialdi publiko eta oinarri arautzaileak argitaratu dira, Bizkaia adin guztietarako lurralde izan dadin lagungarriak badira, zahartze aktiborako baldintza onak sustatuz. 2017ko lehen deialdiaren ondoren, abuztuan diru-laguntzen deialdi berriz egin behar izan zen, premia, aurreko deialditik kanpo gelditutako eskaerei erantzuna emateko. Tokiko 20 erakundek egin dute bat honekin, Bizkaiko populazioaren % 58tik gora hartuz.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 75
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Bizkaian desgaitasunik gabe bizitzeko itzaropena (desgaitasunik gabe batez beste bizi izandako urteak) (*)	71,2	71,2
Adin-perspektibari buruzko estrategiak dituzten udalerrietan bizi diren Bizkaiko biztanleen portzentajea	% 48	% 58
Talde eragilearen parte-hartzea duten prozesuak dituzten udalerrien portzentajea.	Kuantifikazioaren aurreikuspena: estrategia hedatzen denetik aurrera	% 50

(*) Euskadiko Osasun Inkestako datuen arabera, 2013. 2018an datu eguneratuak izatea aurreikusi da.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Prozesu osoa Bizkaiko Adinekoen Kontseiluarekin eta berariazko lantalde batekin (talde traktorea) batera garatzen ari da.



A.2.3.10.

0 eta 6 urte bitarteko haurrentzako arreta goiztiarra ituntzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koherentzia eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.3. Gizarte-zerbitzu eta -laguntzen sare iraunkor bat finkatu eta indartzea, pertsona guztiak kontuan hartzen dituen eta laguntza handiena behar duten taldeen premiei erantzuteko konponbide arin eta kalitatekoak eskaintzen dituen
ARDURA DUEN SAILA	Gizarte Ekintza
JASOTZAILEAK	Beharrianak dituzten adingabeak
HELBURU OROKORRA	Lehenbailehen laguntza 0 eta 6 urte bitarteko umei garapenaren trastornoak direla-eta premia iragankor edo iraunkorrak dituztenean.
EGINIKO JARDUERA	<p>Arreta goiztiarra ituntzeko esparruan, 2016an Bizkaian zerbitzu horiek ematen dituzten zentroi baimentzeko baldintzen berri eman zitzaizkien Aldundiak antolatutako informazio jardunaldi batean. Bidean, Arreta Goiztiarreko Euskal Kontseiluan parte hartze aktiboa izan dugu, EAEn berau arautzeko dekretua aplikatzearen xehetasunak argitzeko.</p> <p>2017an arreta goiztiarra ituntzeko kontratua lurralde historikoko 49 zentrori esleitu zaie, eta zerbitzua ematea pixkanaka hartuko dute haien gain. Halaber, fakturazio elektronikoa eta kudeaketako informatika aplikazioan prestakuntza eta informazio lan sakona egin da. Arreta Goiztiarreko Zerbitzu Publikoaren prestazioa arautu duen Foru Dekretua 2017ko urriaren 31n argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.</p> <p>Maiatzean bilera egin zen zentro baimenduekin eta urrian familientzako GURASO ESKOLA informazio saioak garatu ziren.</p> <p>Ekitaldia ixteko laguntzen sistema ituntze berrira igarotzeko jarduerak garatzen ari dira.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 75
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Izapideen sinplifikazio-graduari buruzko pertzepzioa	Kuantifikazioaren aurreikuspena: ituntze berria martxan jartzen denetik aurrera	Kuantifikazioaren aurreikuspena: ituntzeta egonkortzen denetik aurrera
Izapideen murrizketaren portzentajea	Kuantifikazioaren aurreikuspena: ituntze berria martxan jartzen denetik aurrera	Kuantifikazioaren aurreikuspena: ituntzeta egonkortzen denetik aurrera
Itundutako zentroak dituzten eskualdeen portzentajea	Kuantifikazioaren aurreikuspena: ituntze berria martxan jartzen denetik aurrera	% 89
Preskripzioa dutenen artean, arreta jasotzen dutenen portzentajea	Kuantifikazioaren aurreikuspena: ituntze berria martxan jartzen denetik aurrera	Kuantifikazioaren aurreikuspena: ituntzeta egonkortzen denetik aurrera

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	Arreta goiztiarra 0 eta 6 urte arteko adingabeei dago berariaz bideratuta.
PARTE-HARTZEA	GURASO ESKOLA informazio saioak egin dira (Getxon, Barakaldon, Durangon eta Bilbon) familiei sistemen berrikuntzaren berri emateko.



A.2.4.1.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak artatzeko programa

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koheresia eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.4. Aurrerapausoak ematea aukera-berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioa eraikitze bidean.
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
JASOTZAILEAK	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak
HELBURU OROKORRA	Adingabeen bizi-kalitatea hobetzea, eta, horretarako, genero-indarkeria bizi izan duten neska-mutileen ongizatea eta garapen integrala hobetzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Familian esku hartzeko programa, bikotearen barruan genero-indarkeriaren biktima diren adingabekoei arreta eskaintzean espezializatu dena. Programa 2016an jarri zen abian eta era egokian ari da garatzen bere bi ildoetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egonaldi ertain-luzeko zentroan dauden umeekin burutzen de esku hartze terapeutikoko programa. 2017an 10 izan dira arreta hau jaso duten umek; erdiak neskek ziren. - Txikiak programa, euren familiekin etxeetan bizi diren eta genero-biolentziaren biktimak diren umeentzako programa. Honen barruan arreta jasotzen duten pertsonak, guztira, 52 dira, Horietatik 18 amak dira, 4 aitak, 6 beste senide batzuk eta 24 genero-biolentziaren biktimak diren umek.

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Artatutako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba kopurua	16 (*)	50

(*) Datu honek 2016/12/31n zenbat neska-mutilek zuten sinatuta arreta jasotzeko adostasun-agiria islatzen du.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Bikotearen barruan genero-indarkeriaren biktima diren adingabekoei arreta eskaintzean espezializatu den familian esku hartzeko programaren diseinuan eta abian jartzean aintzat hartu dira hala genero ikuspegia nola emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren baloreen ikuspegia.
GAZTERIA	Programan esku hartzea egiten da adingabekoei eta euren familiekin eta, ondorioz, hala diseinuan nola abian jartzerakoan kontuan hartu da adingabekoen arretaren ikuspegia, zertarako eta era positiboan adingabeko horien lehengoratzeko eta bizitza-garapena bideratzeko.
PARTE-HARTZEA	-



A.2.4.2.

Pertsonen salerosketaren aurkako Bizkaiko plan integrala

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koheresia eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.4. Aurrerapausoak ematea aukera-berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioa eraikitze bidean.
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
JASOTZAILEAK	Gizakien salerosketaren biktimak
HELBURU OROKORRA	Bizkaiko Foru Aldundia ere gizakien salerosketaren aurkako borrokarako agendan sartzea, Aldundiari dagozkion eskumenen barruan.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkailab Hitzarmenaren barruan: "Gizakien salerosketa prostituziora bortxatzeko: Informatzaile gakoen ondorioak" gaiari buruzko azterlana egin da.</p> <p>Halaber, 2017an zehar bi mintegi burutu dira eta horietan arloan adituak diren pertsonen, hirugarren sektoreak eta botere judizialak hartu dute parte.</p> <p>Azterlana amaitu ondoren eta bi mintegiak egin ondoren, esplotazio sexueralako helburuekin salerosketen biktimak diren emakumeekin esku hartzeko Plana egiten hasi zen. Gaur egun Plan hori betearazpen fasean dago. Egin diren kalkuluen arabera 2018ko martxoan bukatuko da.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 67
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Artatutako salerosketaren biktimak eta familia kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: plana martxan jartzen denetik aurrera	Kuantifikazioaren aurreikuspena: plana martxan jartzen denetik aurrera

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Pertsonen salerosketaren aurkako Plan Integralaren barruan egin diren jarduketak guztietan generoaren ikuspegia hartu da aintzat.
GAZTERIA	Pertsonen salerosketaren aurkako Plan Integralaren barruan egin diren jarduketak guztietan gazteen aldeko ikuspegia hartu da aintzat. Egutegia arte egin den lanari esker lortu diren datuen arabera esan daiteke biktimak 23 eta 27 urte arteko emakumeak direla eta, ondorioz, Esku Hartzeko Planak kontuan hartu du hartzailak batez ere pertsona gazteak direla.
PARTE-HARTZEA	-



A.2.4.3.

Gizarte-bazterketa handia pairatzen duten etxegabeekin esku hartzeko dispositiboa

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.4. Aurrerapausoak ematea aukera-berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioa eraikitze bidean.
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
JASOTZAILEAK	Etxegabeak
HELBURU OROKORRA	Arreta-plana garatzea etxegabeak izateaz gainera esku-hartze soziala onartzen ez duten pertsonekin, «housing first» metodologia erabiliz.
EGINIKO JARDUERA	<p>Habitat Bizkaia Programaren oinarria etxerik gabeko egoeran dauden pertsonentzako Housing First eredu da.</p> <p>Dispositibo honen helburua elementu egonkorra den etxebizitzara iristeko aukera ematea da, etxebizitza horrek etxerik ez duten eta gizarte bereizkeria altuaren egoera bizi diren pertsonen kasuan autonomia eta segurtasuna ematen duelako.</p> <p>2016ko irailean lankidetzaren hitzarmena harpidetu zen Zubietxe Elkartearekin eta lankidetzaren proposamenak garatu dira udalerriek etxebizitza horiek eskura jartzearen ondoretarako.</p> <p>Une hauetan 16 dira programaren erabiltzaileak eta garapena egokia eta asetzeko modukoa da.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Artatutako gizarte-bazterketa handia pairatzen duten etxegabeen kopurua	8	16
Programa parte hartzen dutenetatik etxegabetasunera bueltatzen ez diren portzentajea	% 100	% 100

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Habitat Bizkaia Programaren diseinuan eta abian jartzean kontuan hartu da generoaren ikuspegia eta, ildo horretatik, pertsona erabiltzaileen artean gutxienez % 25 emakumeak dira.
GAZTERIA	Habitat Bizkaia Programaren lehentasuna bereizkeria egoera larrian dauden 18-29 urte arteko gazteei arreta eskaintzea da.
PARTE-HARTZEA	Gizarte erakundeek parte hartu dute programan eta horren ebaluazioan.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 80
--------	-----------	------------------	------



A.2.4.4.

Bizkaia erreferentzia-nodo bilakatzea gizarte-berrikuntzan

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.4. Aurrerapausoak ematea aukera-berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioa eraikitzeko bidean.
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena Gizarte Ekintza Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
JASOTZAILEAK	Lurralde osoa
HELBURU OROKORRA	Gizarteratzerako ekintzailtza eta berrikuntza sustatzeko tresnak finkatzea, eta haien zabalkundea eta eragina bultzatzea.
EGINIKO JARDUERA	2017an gizarte berrikuntzako jardunaldi bat egin da berriz ere, eta, 2016an bezalaxe, 300 parte hartzaile baino gehiago izan dira. Bidenabar, berrikuntzako 2 tailer ere antolatu dira, eta 40 parte hartzaile baino gehiago bildu dira. Horrez gain, maiatzaren 16ko 66/2017 Foru Dekretua ere onartu da, 2017ko Ekintzailtza eta Gizarte-berrikuntzako Programa arautu zuena; horren bitartez 7 gizarte proiektu berritzaile eta 3 gizarte enpresa berritzaile berri lagundu dira. Orotara, 2016 eta 2017 artean 20 gizarte proiektu berritzaile eta 10 gizarte enpresa berritzaile berri babestu dira, ekintzailtza eta gizarte berrikuntzako programaren bitartez. Bidenabar, 2017an oinarri komunitarioko proiektu berritzaileak abiarazten ere aurrera egin da.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Sentsibilizazio eta zabalkunderako jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	327	610
Prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	40	53
Lagundutako gizarte-proiektu berritzaileen kopurua	20	30
Oinarri komunitarioko proiektu berritzaileen kopurua	0	20
Lagundutako proiektuek sortutako enpleguen kopurua	25	48
«Social angels» eragileen kopurua	3	3

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Egiten diren jarduerak kontuan hartzen dute, batetik, emakumeek gidatutako jarduketari bultzada, eta, bestetik, hainbat motatako diskriminazioa jasaten duten taldeei bereziki zuzendutako jardueren garapena.
GAZTERIA	Egiten diren jarduerak kontuan hartzen dute, batetik, gazteek gidatutako jarduketari bultzada, eta, bestetik, hainbat motatako diskriminazioa jasaten duten taldeei bereziki zuzendutako jardueren garapena.
PARTE-HARTZEA	Jarduerak garatzeko, Administrazio publikokoarekin lan harremanik ez duten «Social angels»-en laguntza dugu, esperientzia profesional handia baitute, eta gizarte-berrikuntzako proiektuei eta gizarte arloan berritzaileak diren enpresei lagunduz mentoring funtzioak egiten dituzte.



A.2.4.5.

Errefuxiatuekin esku-hartze soziala egiteko Gohabe programa

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.4. Aurrerapausoak ematea aukera-berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioa eraikitze bidean.
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
JASOTZAILEAK	Errefuxiatuak
HELBURU OROKORRA	Gizarteratzeko fasean dauden errefuxiatuekin esku hartzeko estrategia bat garatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Gohabe gizarte-inklusioko programa integral bat da, errefuxiatuak gurera ailegatu eta haien harrera egin osteko garaian garatzen dena. Harrera-prozesua Espainiako Gobernuaren Barne Ministerioari dagokio eta Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza-lanak egiten ditu, fase horretan hutsuneak edo urritasunak ikusten direnean.</p> <p>Programa abian jarri zen arlo honetan pilotutako esperientzia dela eta hautatu ziren gizarte ekimeneko irabazteko asmorik gabeko lau erakunde hauekin: CEAR, Espainiako Gurutze Gorria, Cáritas eta Ellacuría Fundazioa.</p> <p>2017an arreta psikologiko espezializatuko zerbitzu berria jarri zen abian. Zerbitzu hori Lagungo erakundearekin egin da.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Gohabe programaren erabiltzaile diren errefuxiatuen kopurua (*)	118	453 (**)
Gure lurraldera ailegatu diren errefuxiatuen artean Gohabe programaren erabiltzaile diren portzentajea (***)	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017ko uztailetik aurrera, justifikaziorako epea amaitu ondoren	Ezinezkoa da zebatespena egitea.

(*) Adierazle honek arreta jaso duten kasuen kopurua islatzen du, eta ez pertsonen kopurua, gerta daitekeelako pertsona berak Gohabe programa garatzen duten erakundeek ematen dituzten prestazio desberdinak jasotzea;

(**) Zenbaki hori aldatu egin daiteke. Behin betiko datuak bidezkoketa-epea amaitu ondoren lortuko dira;

(***) Adierazle hau Gobernu Espainiarraren eta Europar Batasunaren arteko akordioaren arabera ezarri zen; akordio horien bidez gure Lurraldera 500 pertsona errefuxiatuak heldu behar zuten. Hori ez da horrela gertatu eta, ondorioz, Gohabe programa gure lurraldean zeuden pertsona errefuxiatuetara eta beste leku batzuetan kokatzeko eta jartzeko pertsona errefuxiatuetara zabaldu da.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Gohabe programak generoaren ikuspegia integratzen du bere garapenean. Programaren erabiltzaileak diren emakumeak 172 dira.
GAZTERIA	Gohabe programak gazteen ikuspegia integratzen du bere garapenean eta diseinuan. Arreta jaso duten pertsona gazteak 149 izan dira.
PARTE-HARTZEA	Programa hau CEAR, Espainiako Gurutze Gorria, Cáritas eta Ellacuría Fundazioa eta Lagungo erakundeekin lankidetzan garatu da.



A.2.4.6.

Nazioarteko lankidetzarako plan zuzentzailea lantzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohesioa eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.4. Aurrerapausoak ematea aukera-berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioa eraikitzeko bidean.
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
JASOTZAILEAK	Bizkaiko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak
HELBURU OROKORRA	Garapenerako politika koherentea eta kalitatezkoa garatzeko ildo estrategikoak ezartzea, ardatz hauekin: desberdintasunen aurkako borroka, garapenerako hezkuntza eta genero-ekitatearen sustapena.
EGINIKO JARDUERA	<p>2017ko maiatzaren 2an Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak Lankidetzarako Plan Zuzentzailea onetsi zuen. Plan horrek garapenerako lankidetzarako jarduteko zeharkako ildoak, lehenetasun geografikoak eta lehenetasunezko sektoreak ezartzen ditu 2019ra arte.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiarentzat plan hau lankidetzaren deserdiratuaren barruan kokatzen da, hau da, lurraldean finkatuta solidaritate-loturak ezartzeko, toki garapenerako prozesuak laguntzeko eta deserdiratzeko, erakundeak eta gizarte zibila sendotzeko eta partaidetzako esparruak sortzeko aukerak ematen dituen ekintza moduan ulertuta, herritarren hurbiltasuna aprobetxatuz gizarte eraldaketarako hezkuntzan sakontzeko bidea ematen dutenak. Helburu nagusia lankidetzako politika publiko guztietan ardatzak diren zeharkako ildoak eguneratzea da eta, aldi berean, lehenetasun geografikoak eta sektorialak ezartzea eta jarduteko sektorerik garrantzitsuenak finkatzea.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Plan zuzentzailea lantzen parte hartu duten erakundeen kopurua	27 GGKE (32 pertsona) eta 4 aditu	27 GGKE (32 pertsona) eta 4 aditu
Herritarrek egindako ekarpenak	4 ekarpen (ekarpenetako bat GGKEen koordinatzailearena da; hala, adostasuna lortu du bertako kide guztiekin – Bizkaian, 50 bat erakunde– dokumentu bakarra landu eta bidaltzeko)	4 ekarpen (ekarpenetako bat GGKEen koordinatzailearena da; hala, adostasuna lortu du bertako kide guztiekin – Bizkaian, 50 bat erakunde– dokumentu bakarra landu eta bidaltzeko)

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Generoaren ikuspegia Planaren funtsezko atala da. Lankidetzaren funtsezko ildoetako bat generoaren ekitatea lortzeko helburuarekin lan egitea da eta horrek esan nahi du lankidetzaren proiektu guztiek generoaren ikuspegia ezarri behar dituztela euren proiektuetan. Jarduteko lehenetasunezko sektoreei dagokienez lehenengo tokian emakumeen ahalduak dago.
GAZTERIA	Lankidetzarako Plan Zuzentzaileak gizartearen transformaziorako estrategia ezartzen du; estrategia horrek eragin zuzenak ditu gazteen prestakuntzaren arloan.
PARTE-HARTZEA	Plana egiterakoan Bizkaiko GGKEen lankidetzaren egon da eta, horiek ez ezik, giza eskubideen, generoaren, lankidetzaren deserdiratuaren eta ingurumenaren jasangarritasuna bezalako arloetako adituen parte hartzea eduki du. Bizkaiko lankidetzaren eragileekin bi tailer egin dira (lehen tailerrean 24 erakunde parte hartu zuten, eta bigarrenetan 15 erakunde), eta helburua zeharkako ildoak, geografikoak eta sektorialak eztabaidatzea eta sortzea izan da), eta baita Planaren sartu beharreko agenteak eta erremintak definitzea ere. Tailer horien ondorioak era indibidualean aztertu ziren eta horietarako asko Plan Zuzentzailean sartu ziren.



A.2.4.7.

Berdintasunari buruzko Foru Arauaren proiektua

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koheresia eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.4. Aurrerapausoak ematea aukera-berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidarioa eraikitze bidean.
ARDURA DUEN SAILA	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna
JASOTZAILEAK	Bizkaitar guztiak, baina, bereziki, emakumeak.
HELBURU OROKORRA	Bizkaiko lurraldean emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko beharrezko baldintzak bermatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Berdintasunari buruzko etorkizuneko Foru Arauak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketa gidatu behar duten oinarriak eta helburuak ezarriko ditu; abiaburua ildo estrategiko batzuk izango dira, adibidez berdintasuneko politiken zeharkakotasuna, ahalduntzea eta baloreen aldaketa, kontziliazioa eta erantzukidetasuna, eta genero indarkeria ezabatzea.</p> <p>Foru Araua 2016ko maiatzean hasi zen prestatzen, partaidetzan oinarritu den prozesuan burutu da eta hiru maila zaintzen ditu : soziala, politikoa eta teknikoa.</p> <p>Une hauetan Gobernu Kontseiluan Foru Arauaren proiektua onesteko lanak amaitzen ari dira, ostean Batzar Nagusietan aurkezteko, onesteko eta onartzeko.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 80
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Berdintasunari buruzko foru-araua lantzen parte hartzen duten eragileen kopurua	22 elkarte	22 elkarte
Herritarrek egindako ekarpenak	1.200	1.200

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Generoaren ikuspegia Arauaren prestakuntzaren prozesuan eta proposatu den testuan aplikatu da.
GAZTERIA	Foru Arauaren Proiektuan berriaz gazteriarri lotuta dauden alderdiak proposatzen dira, ezaugarri horrek zeregin garrantzitsua duelako berdintasunaren arloan eta, bereziki, rol eta estereotipoak gaitzetzeari dagokienez.
PARTE-HARTZEA	<p>Berdintasunari buruzko Foru Arauaren Proiektua partaidetza-prozesu baten eraiki da eta hiru maila lantzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Soziala: web inkesta baten bidez; inkesta horretan herritarrek aukera izan dute Foru Arauaren alderdi guztiei buruzko euren iritzia emateko. - Politikoa: Aldundiaren pertsonal politikoarekin burutu den prozesuaren bidez, baita Batzar Nagusiekin eta erreferentziako beste erakunde batzuekin mantendu den elkarrizketa-mahaiaren bidez ere. - Teknikoa: pertsonal teknikoarekin eta arloan adituak diren pertsonekin, elkarrizketa sakonen bidez.



A.2.5.1

Gaztedi Bizkaia 2020 legegintzaldiko plana

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.5. Bizkaiko gazteriari zuzendutako konfiantzazko esparru berriak sortzea, gure lurraldearen etorkizuna eraikitzen lagun dezaten
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaiko gazteak
HELBURU OROKORRA	Bizkaiko gazteen bizi-baldintzak hobetzen laguntzea, eta, horretarako, Aldundiko sailek lurraldeko gazteei zuzendutako ekintzetan koordinatuta aritzea sustatuko da.
EGINIKO JARDUERA	<p>Gaztedi Bizkaia 2020 Legegintzaldiko dokumentuak Bizkaian gazte politikak garatzeko lan komunerako esparru estrategia jaso zuen; 2016an onartu zen eta 2017an egin da.</p> <p>Foru dimentsioari dagokionez, 2017ko ekitaldirako foru jarduketa plana onartu da. Planak 70 milioi euroko zuzkidura eta lurraldeko gazteen baldintzak hobetzera bideratutako 137 ekintza bildu ditu.</p> <p>Lurraldearen dimentsioari dagokionez, lurraldeko 91 toki erakundeekin urte anitzeko lankidetzak hitzarmenak sinatu dira Bizkaiko gazteen aukerak errazteko.</p> <p>Gazteen dimentsioari dagokionez, gazteen parte hartzea sustatzeko ekintzak garatu dira Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK), enplegarritasuna hobetzeko, boluntario izatea sustatzeko, desgaitasunen bat daukan komunitateari eskaintako arreta hobetzeko eta bizitza ohitura osasuntsuak sustatzeko. Horrez gain, Bizkaian gazteriaren urtea garatzeko lankidetzak ere bideratu dira.</p> <p>Horrez gain, 2017an bi ekimen berritzaile abiarazi dira: GAZTE SAREGILEAK, gazteek parte hartu eta lankidetzan aritzeko proiektu gisa, eta Bizkaia Challenge programaren barruan GAZTE TXARTELAren diseinu parte hartzailea.</p> <p>Bestalde, gazteria arloko gizarte berrikuntzako proiektuak finantzatzeko diru-laguntzen deialdiak egin dira.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Plana definitzen eta inplementatzen inplikaturako gizarte-agenteen eta gazteelkarteen kopurua	34	92
Gazteen gogobetetasun-maila garatutako jarduketekin (eskala 1-10)	6,5	7,07 (*)
Gazteriaren arloko politika integralak inplementatu eta garatzeko beste administrazio batzuekin sinatutako hitzarmenen kopurua	13	12

(*) NEURBI 2017 azterlaneko datuen arabera, 18-29 urteen arteko adin-tartean.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Gaztedi Bizkaia 2020 osatzen duten jarduketa guztiak berdintasun arloko ekintza positiboko neurriak dituzte. Proiektuan jasotako datu guztiak sexuaren arabera banatu dira.
GAZTERIA	Proiektu osoa Bizkaiko Lurralde historikoko 15 eta 30 urte arteko gazteei dago zuzenduta.
PARTE-HARTZEA	Proiektuak 3 dimentsioko egitura du, eta parte hartzea sustatzeko espazio arautuak daude.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------



A.2.5.2

Haur eta nerabeen arloan esku-hartzeko Bizkaia 2020 estrategia bultzatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.5. Bizkaiko gazteriarri zuzendutako konfiantzazko esparru berriak sortzea, gure lurraldearen etorkizuna eraikitzen lagun dezaten
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaiko umeak eta nerabeak
HELBURU OROKORRA	4 urterako plan estrategiko bat lantzea talde horientzat. Itun handi bat sortzea Bizkaian, arlo sozialean, kulturaren arloan zein hezkuntzarenean esku hartzeko, txiki-txikitatik.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an zehar haur eta nerabeekin esku hartzeko estrategia sustatzen aurrera egin zen, zenbait jarduketaren bitartez; horrek ekarri du 2017an Bizkaiko Gizarte eta Hezkuntzako Estrategiaren txostena aurkeztu izana; honako hau zehaztu da txosten horretan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bizkaiko Foru Aldundiaren misioa haur, nerabe eta gazteen gizarte eta hezkuntza politiken arloan koordinazioa, parte hartzea eta ikerkuntza sustatzea eta erraztea da. - Errazteko lan hori zenbait esparrutan lehentasunez aplikatu behar da, hain zuzen ere sarean lana sortzeko esparruan, prestatzaileen prestakuntzan eta gizarte eta hezkuntzaren arloan erreferentziazko jarduerak bilatzean.

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Agenteen mahaiarekin egindako bilera kopurua	8	10
Proiektua lantzen parte hartu duten gizarteeragileen kopurua	45	45

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Prozesu guztiak genero ikuspegia du diseinu eta garapenean.
GAZTERIA	Prozesua 30 urtetik beherako gazteekin egin da, profesionalak zein boluntarioak.
PARTE-HARTZEA	Plan estrategikoa egiteko zenbait prozesu parte hartzaile abiaraztea oinarritzat hartu da, haur eta gazteen sektorean lan egiten duten eragileekin batera.



A.2.5.3.

Gizarte- eta hezkuntza-jarduerak antolatzea aisialdi-inguruneetan, haurren artean hizkuntza, kultura eta kirola sustatzeko

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte zein lurralde kohesioa eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.5. Bizkaiko gazteriar zuzendutako konfiantzazko esparru berriak sortzea, gure lurraldearen etorkizuna eraikitzen lagun dezaten
SAIL ARDURADUNA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko umeak eta nerabeak
HELBURU OROKORRA	Umeen garapen pertsonala sustatzea.
EGINIKO JARDUERA	Urtero plazak eskaintzen dira udalekuetan, 7-13 urte bitarteko umeentzat. Gutxi gorabehera astebeteko txandak eskaini dira udalekuetan, uztailetik abuztura bitartean, 14 instalaziotan (3, Araban; 6, Bizkaian; 4, Gipuzkoan; eta 1, Nafarroan). 2016an, guztira 1.593 plaza eskaini ziren, eta horietatik 80 hezkuntza behar bereziak dituzten pertsonentzat izan ziren, astebeteko eta 10 eguneko txandetan. Uztailearen 1etik abuztuaren 14ra izan ziren. 2017an, guztira 1.572 plaza eskaini dira, eta horietatik 78 hezkuntza behar bereziak dituzten pertsonentzat izan dira, astebeteko txandetan. Uztailearen 1etik abuztuaren 7ra izan dira.

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Okupatutako plazen %, eskaintzarekin Alderatuta (*)	% 99,60	% 98,79
Beharrian bereziak dituztenei eskaintako plazen okupazioaren % (*)	% 69	% 79,49

(*) Adierazle hauetan, okupazioaren portzentajeari dagokio abenduaren 31ko datua.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Genero-ikuspegia Udalekuak 2016ko kanpainaren jardueren helburua eta edukia izan da; 768 neskak hartu dute parte 2016ko kanpainan (guztizkoaren % 48) eta 705ek 2017an (guztizkoaren % 45).
GAZTERIA	Umeentzako programa bat da (7-13 urte). Desgaitasun psikikoa duten pertsonen kasuan, 15 urte bete arte ere parte hartu ahal dute.
PARTE-HARTZEA	-



A.2.6.1.

Euskararen erabilera sustatzeko hizkuntza-marka bateratu bat sortu eta ezartzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.6. Euskararen erabilera bultzatu hezkuntza esparrutik haratago, eta bereziki sustatzea gizarte-hezkuntzako eta aisialdiko jarduerak euskaraz eskaintzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Euskararen eguneroko erabilera sustatzea.
EGINIKO JARDUERA	2016an, "Euskararen txantxangorria" ekimena sortu eta egikaritu zen, hizkuntza-marka bateratu berria, txori horren bidez irudikatuta. Herritarrak euskaraz egitera bultzatu nahi dira. Jarraitu da «Euskararen txantxangorria» hizkuntza-marka zabaltzeko kanpaina egiten, bai Bizkaiko Foru Aldundian (2016-2017 Normalizazioko Planean ezarri baita), bai Bizkaiko udaletan. Horrez gainera, jarduera gehiago egin dira «Euskararen txantxangorria» Bizkaiko biztanleen artean ezagutarazi eta zabaltzeko.

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ez dago adierazlerik identifikatuta	-	-

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.2.6.2.

Bizkaiko helduak euskalduntzeko diru-laguntzen lerro bat sortzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koherioa eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.6. Euskararen erabilera bultzatu hezkuntza esparrutik haratago, eta bereziki sustatzea gizarte-hezkuntzako eta aisialdiko jarduerak euskaraz eskaintzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko pertsona helduak
HELBURU OROKORRA	Egunerokoan euskararen erabilera sustatzea.
EGINIKO JARDUERA	Laguntza honen helburua da euskara ikasteak dakarren kostua arintzea eta doakotasunaren bidean aurrera egitea. 2016an, «Euskara Eskura Txartela» laguntza ezarri zen. Bonu bat da, Bizkaian erroldatutako pertsonentzat dena baldin eta zentro homologatuetan euskara ikasi badute eta ezarritako mailetako bat gainditu badute (A1, A2 eta/edo B1). 2017an, «Euskara Eskura Txartela» laguntzaren bigarren edizioa egin da, baina berrikuntza batekin: edizio honetan B2 mailara handitu da laguntza.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Laguntzen onuradun diren pertsonen kopurua	1.094	3.051

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Onuradun diren pertsona guztietatik % 60 emakumeak izan ziren 2016an, eta % 40, gizonak. 2017an, onuradunen % 71 emakumeak izan dira eta % 29 gizonak.
GAZTERIA	Eginiko kalkuluen arabera, onuradun diren pertsona guztietatik % 70 30 urtera arteko gazteak izan dira, bai 2016an, bai 2017an.
PARTE-HARTZEA	-



A.2.6.3.

Erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea euskararen gizarte-erabilera bultzatzeko

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koheretza eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.6. Euskararen erabilera bultzatu hezkuntza esparrutik haratago, eta bereziki sustatzea gizarte-hezkuntzako eta aisialdiko jarduerak euskaraz eskaintzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak, oro har
HELBURU OROKORRA	Hizkuntza-elkarbizitza finkatzea Bizkaiko gizartean, eta, gaur egungo gizarte modernoaren erronkekin bat, gizarte eleaniztun bat lortzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartu du HAKOBA batzordeak sustatutako foro, jarduera eta ekimenetan, batzordeko gainerako kideekin batera (Eusko Jaurlaritza, Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiak, EUDEL, EUMA eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalak). Hauek izan dira gai nagusiak erabakiak hartzeko eta koordinazioa egiteko orduan: euskararen erabilera administrazio publikoetan normalizatzeko VI. Planerako irizpideak bateratzea, 2018-2022, eta "Euskaraldia" ekimena abiaraztea, 2018an egingo dena eta euskararen lurralde guztiak hartzen dituena.</p> <p>Euskara Bizia Batzordeak lanean jarraitu du Bizkaian euskara sustatzeko esparru bateratu bat bultzatzeko eta finkatzeko; horretarako, euskararen arloko eragile ugariaren ekarpenak jaso ditu. Horrez gainera, lan koordinatu bat egiten hasi da arlo jakin batzuetan: kirola, teknologia berriak, lan-mundua eta administrazioa.</p> <p>ALKARBIDE foroak jarraitu du Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara-zerbitzuak biltzen dituzten proiektuak eta ekimenak garatzen eta aurrera eramaten.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Euskara Bizia Batzordean parte hartzen duen pertsona kopurua (*)	41	34
HAKOBAn parte hartzen duen erakunde Kopurua (*)	9	9
AlkARBIDE parte hartzen duen erakunde Kopurua (*)	91	91

(*) Pertsona edo erakunde parte-hartzaileen kopurua adierazten dute datuek, betiere ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Honako erakunde hauek parte hartzen dute HAKOBA hizkuntza-politikako batzordean: Eusko Jaurlaritza, 3 Foru Aldundiak, EUDEL, UEMA eta Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalak.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------



A.2.7.1.

Bilboko Udalarekin batera Euskal Museoa eraberritzeko proiektua gauzatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koheresia eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.7. Kulturaren aldeko apustu sendoa, funtsezkoa baita Bizkaiaren garapen ekonomiko eta sozialerako
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bilboko udalerrria. Nazioartera zabaldu nahi den proiektua
HELBURU OROKORRA	Epe ertainean euskal kulturaren eta gizartearen aurkezpen-txartela izango den museo bat izatea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Euskal Museoa eraberritzeko proiektuak aurrera darrai, eta, orain arte, honako jardura hauek egin dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Museoko klaustroko teilatua: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin lankidetzan, klaustroa egikaritzeko ideien lehiaketa baten deialdia egin zen. Deialdian zehaztutako irizpideekin bat eginez proposamenak aukeratu ondoren, hiru proposamen aukeratu zituzten azkenean. Horien artean, aho batez onetsi zen egokiena zena higiezinaren tipologia kontuan hartuz. Ondoren, egikaritzearen adjudikaziorako pleguak idatzi ziren, eta aurreikusitakoaren arabera, 2018 hasierarako teilatua museoko klaustroan jarrita egongo da. - Materialen biltegia: museoak duen behar nagusietako bat da. Hala, kanpoko espazio bat kudeatu eta egokitu da, eta horrela, epe ertainean museoak espazio hori izango du; etorkizunean bisitak egiteko aukera jarri nahi da. - Proiektu museologikoa eta museografikoa: proiektu museologiko eta museografikoaren oinarrietan lan egiten hasi dira, eta hala, hurrengo urteetan idatzi eta egikarituko den proiektuaren oinarriak izango dira horiek.

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Eginiko lanaren portzentajea	% 10	% 20
Proiektu museologikoan idatzitako portzentajea	% 0	% 5
Proiektu museografikoan eta arkitektonikoan idatzitako portzentajea	% 0	% 0

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 30
--------	-----------	------------------	------



A.2.7.2.

Bizkaiko sorkuntza-lantegien eta kultura adierazpenen mapa egitea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.7. Kulturaren aldeko apustu sendoa, funtsezkoa baita Bizkaia-aren garapen ekonomiko eta sozialerako
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Kulturenearen aukerak aztertzea. Horretarako, Bizkaiko sare sortzaile eta kulturalaren errealitatea mapa kuantitatibo eta kualitatibo batean jasotzea, sektorearen errealitatea hobeto ezagutu eta ulertzeko.
EGINIKO JARDUERA	2016an, arlo honetan lehenik dauden dokumentazioa eta lanak aztertu ziren; azterlanaren kontzeptua eta jarduera-esparrua mugatu ziren, eta sorkuntza-lantegien eta kultura adierazpenen maparen egitura orokorra diseinatu ziren. Horren osagarri, landa-lan bat egin da: galdera sorta bat diseinatu da eta inkestak egin zaizkie sektoreko 30 eragileri. Lan horri esker, sektoreko erakunde erreferenteak identifikatu dira eta, ondoren, informazioa kontrastatzeko lan bat egin da sektoreko 10 eragile nagusiekin. Txosten batean jaso da eginiko lan guztien azken emaitza.

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE Kuantitatiboak

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Mapa egiteko aztertutako erakunde kopurua	30	30

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.2.7.3.

Tribisburuko nekropoliaren balioa ezagutaraztea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.7. Kulturaren aldeko apustu sendoa, funtsezkoa baita Bizkaia-aren garapen ekonomiko eta sozialerako
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Tribisburuko nekropoliko aztarna arkeologikoak zaintzea, ezagutzea eta ezagutzera ematea.
EGINIKO JARDUERA	2016an zehar berritasun bezala txertatu zen Tribisburu proiektura egindako bisiten programa, Urdaibai eskualdeko ibilbide historikoaren esparruan. 2017an zehar Tribisburuko nekropolia Busturialdeko eskualdean bisitatu ahal izan den eta bisita ugari jaso dituen lekuetako bat izan da. Bisita gidatuz gain, ikerketa-lanekin jarraitu dute, eta hala, kokalekuari buruzko ezagutza gehiago eskuratu nahi dira, eta etorkizunean ezagutza hori bisitariei helarazteko helburua bete nahi da.

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 40
--------	----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Bisitariek bisitaren kalitateari buruz egindako ebaluazioa (1-10)	9	9
Eskaintako bisiten betetze-portzentajea	% 100	% 100

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.2.7.4.

Bizkaiko Kultur Txartela programa

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.7. Kulturaren aldeko apustu sendoa, funtsezkoa baita Bizkaia-aren garapen ekonomiko eta sozialerako
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Kulturaren kontsumoa sustatzea lurraldean.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaiko Kultur Txartela programa produktu kulturalen, horiek dituzten euskarri guztietan, kontsumoa pizteko eta sustatzeko ekimena da. Ondore horretarako 2016ko abenduaren eta 2017ko urtarrilaren artean garatu zen kanpainan 3 motako bonu plazaratu ziren euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzaz eginiko kultura-produktuak eta zuzeneko ikuskizunetarako sarrerak erosteko. Bonuen bidez, 40 eurora arteko erosketak egin daitezke, eta bonuen prezioa 32, 28 eta 24 euro da hurrenez hurren. Bonuak argitaratu eta lau egunetara agortu ziren.</p> <p>Kanpainak salmentetan izan zuen eragina 3,92koa izan zen, hau da, programa honetan inbertitutako euro bakoitzeko establezimenduek ia halako laukoa saldu zuten.</p> <p>Nahiz eta ezarri zen konpromisoa 2016an deialdi bakarra argitaratzea izan zen arren, izan duen arrakastaren ondorioz 2017ko abenduan eta 2018ko urtarrilean kanpaina berria jarri zen abian. Kanpaina honetan berriz ere 3 motako bonuak argitaratu ziren.</p>

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
BKT - Bizkaiko Kultur Txartela programak salmentetan izandako eragina (Salmentak / Programan inbertitutako aurrekontua)	Kuantifikazioa egiteko aurreikusitako data: 2017ko otsaila-martxo.	3,92 (*)

(*) 2016-2017 kanpainak salmentetan izan duen eragina. Kalkuluaren arabera 2017-2018 kanpainari buruzko datuak 2018ko martxoarako egongo dira.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.2.7.5.

Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkea, Abanton

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-koheresia eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.7. Kulturaren aldeko apustu sendoa, funtsezkoa baita Bizkaiaren garapen ekonomiko eta sozialerako
ARDURA DUEN SAILA	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Eskualdeko historiaren balioa ezagutaraztea eta bertako erakargarritasun turistikoa indartzea, jarduera eta enplegua sortzeko.
EGINIKO JARDUERA	<p>Proiektu honetan, erabilera bateraturako eraikin bat egin da, bertan kokatzeko Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretazio Zentroa.</p> <p>Horretarako, Peñas Negras Ingurumenaren Interpretazio Zentroa Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearekin integratu da; eta Corta eraikinean behar diren instalazioak eta erakusketa-materiala jarri dira erabilera bateratu horretarako; horrez gainera, Bizkaiko Meatzaldeko Biotopo Babestuari dagokion ingurumen-interpretazioa ere integratu da.</p> <p>Proiektu bateratu bat da: Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Abanto-Zierbenako Udalak eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoaren Fundazioak hartzen dute parte.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ez dago adierazlerik identifikatuta	-	-

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Abanto-Zierbenako Udala, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioa eta Eusko Jaurlaritza.



A.2.7.6.

Bizkaiko memoria historikoa kontserbatzen laguntzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.2. Gizarte- zein lurralde-kohera eta aukera-berdintasuna dituen Bizkaia
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.2.7. Kulturaren aldeko apustu sendoa, funtsezkoa baita Bizkaiaren garapen ekonomiko eta sozialerako
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Memoria historikoari buruzko ikerketa sustatzeko eta leku esanguratsuen balioa ezagutarazteko ekintzak egitea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Euskara eta Kultura Sailak bere ikerketa-ildoei jarraitu die bai diru-laguntzen bitartez, baita zuzenean ere.</p> <p>Era berean, eta kontuan hartuz ezagutza historikoa dibulgatzea oinarritzkoa dela, foru-sarearen barne dauden museoek memoriari lotutako jarduera eta erakusketak programatu dituzte, Gernika-Lumoko Museo de la Paz-Bake Museoa ahaztu gabe.</p> <p>Argitalpenei dagokienez, La memoria abierta izeneko ikerketa-lana nabarmendu behar da.</p>

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Foru museoetako bisitari kopurua	93.860	195.990

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

3. ard. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua



A.3.1.1.

Gertu programa. Aldundiaren arreta integralerako bulego pilotu bi martxan jartzea, Durangon eta Busturialdean. Emaizten arabera, ebaluatuko da programa Bizkaiko beste eskualde batzuetara zabaltzen den ala ez

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Lehen fasean, Durango-Arratia eta Busturia-Urbe eskualdeetako egoiliarak eta enpresak. Emaizten arabera, baliteke beste eskualde batzuetara zabaltzea.
HELBURU OROKORRA	Foru-administrazioa eskualdeotako herritarrei gerturatzea, eta izapideak erosoago eta eraginkorrago bihurtzea haien artean.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaia Gertu proiektuaren bitartez, arreta-zerbitzu integralak eskaini nahi dira, leihatila bakarrean eta hainbat bide dituen eskaintza baten bidez (aurrez aurre, telefonoz eta telematikoki), horrela herritarrengatik gertuago egoteko eta lurralde-koherentsia handiagoa lortzeko.</p> <p>Aurrerapausoa egin da Durangon arreta integralerako bulego pilotu bat irekiz; bertan bildu dira zenbait sailerako jarduerak. Horrela, Ogasuneko eta Iraunkortasuneko bulego deszentralizatueta jadanik egiten ziren izapideez gainera, Aldundiko sailen beste izapide batzuk sartu dira, orain arte Bilboko bulegoetan bakarrik egiten zirenak hain zuzen ere.</p> <p>2017an zehar, aurrerapausoak eman dira Busturialdeko bulego pilotuaren diseinuan. Bi bulego izango ditu, bat Bermeon eta bestea Gernikan. Bermeoko bulegoa 2018ko uda baino lehen zabalduko da; Gernikakoa, berriz, uda ostean.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Bulego pilotuetan eginiko kontsultak eta izapideak	2.600 (2016ko abenduko jarduera)	62.289

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 60
--------	-----------	------------------	------



A.3.1.2.

Eraginkortasunerako Foru Plana

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-entitateen gastu arruntak optimizatzea.
EGINIKO JARDUERA	Eraginkortasunerako Foru Plana egin da. Planak gastuaren atal batzuetan hobetzeko proiektuen zorroa ematen du eta ezartzeko eta banatzeko sailen arteko lan-taldea eratu da.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Gastu arrunten murrizketa arrazionalizazioa ezartzen den gastu-partidetan	Kuantifikazioaren aurreikuspena: arrazionalizazio-proiektu bakoitza gauzatzen den egunetik aurrera (2017an zehar)	Kuantifikazioaren aurreikuspena: arrazionalizazio-proiektu bakoitza gauzatzen den egunetik aurrera (2018an zehar)

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.3.1.3.

Bizkaiko Foru Aldundiaren udal-zerbitzuen katalogoa sortzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko lurralde guztia
HELBURU OROKORRA	Programa birtual berean batzea, etengabe eguneraturik, Aldundiak Bizkaiko udalerrientzat daukan eskaintza guztia, eta, horrela, eraginkorragoa bihurtzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>2017ko uztailean Bizkaiko Foru Aldundiak Zerbitzuen Katalogoa argitaratu zen (guztira 93). Katalogo horretan Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko herriei laguntzeko erreminta moduan udalen eskuetan jartzen dituen zerbitzuak azaltzen dira, adibidez informazioa emateko gune bakar bat.</p> <p>Katalogoa euskarri fisikoan eta euskarri digital nabigagarrian eskuratu daiteke. Euskarri digital nabigagarrian ematen den katalogoa sei hilerik behin eguneratuko da eta ezarri da hurrengo eguneratzea 2018ko urtarrilean burutuko dela, definitzen eta egiten ari den katalogo birtual berria eskuratu arte.</p> <p>Katalogo birtual horrek aukera emango du 93 zerbitzu horiek (edo sortuko diren beste batzuk) katalogoaren bidez eta era elektronikoan zuzenean tramitatzeko eta infomazio guztia beti eguneratuta edukitzeko.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ez dago adierazlerik identifikatuta	-	-

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Bizkaiko udalei eman beharreko zerbitzuen barruan, genero-politiketarako laguntza gehitu da.
GAZTERIA	Bizkaiko udalei eman beharreko zerbitzuen barruan, gazteriaren arloko politiketarako laguntza gehitu da.
PARTE-HARTZEA	Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiek eta foru-sozietate publiko guztiek hartzen dute parte.



A.3.1.4.

Lizitazio elektronikoaren proiektu pilotua

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Lizitazio elektronikorako plataforma bat inplementatzea Bizkaiko Foru Aldundian. Gardentasun eta segurtasun handiagoa bermatzea kontratazio publikoan, lizitazio elektronikoko konponbideak ezarriz.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaiko Foru Aldundiak 2017ko uztailetik erabat operatibo dagoen lizitazio elektronikoko erreminta bat dauka. Urte horretako urritik Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatuta irekita dauden kontratu guztiak (% 100) era elektronikoan lizitatzen dira.</p> <p>Halaber, plataforma korporatiboa da eta, aldi berean, foru sektore publiko erakundeek ere euren lizitazioak era elektronikoan egiteko balioko du. Gaur egun talde horri dagokionez banatzearen fasean dago.</p> <p>Azkenik, BiscayTIKen lankidetzarekin, Bizkaiko toki-erakundeei lizitazio elektronikoa erabili ahal izateko ezarpenean lanean ari gara.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Elektronikoki lizitaturiko kontratazio-prozesuak	Kuantifikazioaren aurreikuspena: Lizitazio elektronikoaren plataforma martxan jartzen den egunetik aurrera kuantifikatuko dira, 2017an zehar	16

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Lizitazio elektronikoko plataformaren erabilerarako prestakuntza-saioak egin dira talde batzuekin: erakunde lizitatuak; Foru Kontratazio Zentralari atxikita dauden erakundeak; foru erakundeak; eta Bizkaiko Foru Aldundiak adjudikatzeko ahal dutenak.



A.3.1.5.

Azterlan bat egitea ahalik eta administrazio-prozedura gehien sinplifikatzeko eta izapideak zein agiriak murrizteko

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Herritarren eta Administrazioaren arteko harremana sinplifikatzea, prozesuak murriztuz, izapideak online eginez, elkarreragingarritasunaren bidez eta kanal anitzeko arretaren bitartez.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an, «laguntzak eta diru-laguntzak» eta «eskuespenak, lizentziak eta baimenak» familiei lotutako administrazio-prozedurak aztertu ziren, eta, horretarako, oinarri modura hartu ziren bai indarreko legedia bai sinplifikazio administratiboaren arloko praktika onak. Aurrekoa egin eta gero, orain, prozedura horiek izapidetzeko aplikazio informatikoa prestatzen ari gara.</p> <p>Halaber, gainerako «BAT» elementuetan beharrezkoak diren funtzionaltasunak diseinatzen eta garatzen ari gara, eta zehatz-mehatz aztertzen ari dira prozedurak, berezitasunak ikusteko eta lehenengo fasean izapidetu behar diren prozedura gisa sartu behar diren ebaluatzeko.</p> <p>Azkenik, aplikazioaren bidez izapidetu ahal izango den lehenengo fasean sartuko diren erabilera-kasuak hautatzen ari gara.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Eredu berriaren arabera homologaturiko prozedurak	199 prozedura homologatuko dira, progresiboki, 2017tik aurrera	14
Sinplifikaturiko izapideen kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: martxan jartzen den egunetik aurrera, 2017an	Kuantifikazio-aurreikuspena: 2018ko egitarizetik aurrera

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 40
--------	-----------	------------------	------



A.3.1.6.

Erosketa-zentral bakarra eratzea erakundeetarako

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Gastua optimizatzea, BFaren eta foru-sektore publikoko entitateen zama administratiboa arintzea, BFaren kontratazio-prozesuak bizkortzea eta aukera ematea Bizkaiko Lurralde Historikoko entitate lokalei onura horiekin bat egiteko.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaiko Foru Kontratazio Zentrala 2016an eratu eta abiarazi zen. 2017ko ekitaldian Zentrala hedatzearekin jarraitu da, eta 91 tokiko erakundek egin dute bat Zentralarekin, dagokion atxikipen hitzarmena sinatu ondoren. Tokiko erakunde horietatik 65 udalak dira eta 26, berriz, udal, mankomunitate eta partzuergoen mendeko erakundeak dira.</p> <p>Bestalde, 2017an hasitako esparru akordio guztiak bukatu egin dira 2017/12/31n, bi salbu (gas naturalaren hornidura eta garbiketa produktuen hornidura); esleipen aurreko fasean daude, eta 2018ko lehen hiruhilekoan esleitzea aurreikusi da.</p> <p>Gainera, Zentralarekin bat egin duten erakundeen beharriaz buruzko inkestak egin dira, 2018ko ekitaldian hasiko diren esparru akordioei dagokienez: desfibriladoreak hornitzea; gailu altxagarrien mantentze lanak; pneumatikoak hornitzea; norbera babesteko planen zerbitzua eta ibilgailuak hornitzea.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
2017-2019an kontratazio-zentralaren bitartez eginiko lizitazioak	3	12
Kontratazio-zentralari atxiki zaizkion foru-entitate publikoak	% 100	% 100
2017-2019an kontratu zentralizatuei atxiki zaizkien foru-erakunde publikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bulego-materiala: % 94 - Garbiketa-materiala: % 67 - Material elektrikoa: % 50 	<ul style="list-style-type: none"> - Bulegoko materiala: % 94 - Garbiketa materiala: % 67 - Material elektrikoa: % 50 - Edukiontzi higienikoak: % 50 - C gasolioa: % 17 - Posta zerbitzuak: % 61 - Gas naturala: % 50 - Energia elektrikoa: % 78 - Paper hornidura: % 61 - Fotokopiagailuak: % 33 - Garbiketa materiala: % 61

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Udal eta foru erakunde publiko guztiak



A.3.1.7.

Nekazaritza eta abeltzaintzan teknologia berriei buruzko plan pilotu bat abiaraztea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
JASOTZAILEAK	Abeltzaintzako ustategien titularrak
HELBURU OROKORRA	Sektoreko profesionalen bizimodua eta lan-egoera hobetzea, zerbitzu telematikoak eskainiko dituzten aplikazioak garatuz, baserritarrek Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko aukera izan dezaten.
EGINIKO JARDUERA	Hiru zerbitzu telematikoak (hiltegia eramateko gidak; behi-azien jaiotzen jakinarazpena eta belarritako bikoiztuaren eskaera) abiarazteko eta egikaritzeko lanak burutu dira 2017an. Zerbitzu telematiko horiek egoitza elektronikoan abiarazi dira, eta abeltzaintzaren sektoreko pertsonen erabiltzen dituzte aplikazioak.

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Zentsuan sartutako baserritar guztien artean izapideak online egin dituztenen kopurua	% 0	% 1,5
Zentsuan sartutako baserritar guztien artean izapideak online egin dituztenen kopurua	0	341

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	Proiektu hau gazteei zuzentzen zaie bereziki, hobeto ezagutzen baitituzte sistema telematikoak.
PARTE-HARTZEA	Abeltzainen ordezkari batzuek hartu dute parte zerbitzu telematikoaren proba pilotuetan.



A.3.1.8

Suhiltzaile-etxe berria eraikitzea Busturialdean

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Busturia-Urbe eskualdeko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Larrialdietako zerbitzu hobe bat eskaintzea eskualdeko biztanleei, beharrezko hobekuntza eta berrikuntzak dituen suhiltzaile-etxe bat eskainiz eta hiri-eremua libre utziz herritarrentzat.
EGINIKO JARDUERA	<p>Suhiltzaile-etxe berriak gaur egun dagoena ordezkatzeko du Busturialdeari zerbitzua ematen. Horrela, instalazioak handitu eta hobetuko dira, gainerako suhiltzaile-etxeetako kalitate- eta ekipamendu-irizpide berei jarraituz. Horrekin batera, errepiderako sarbidea hobetuko da, zirkulazio gutxiagoko guneei batean kokatzeko baita, sarbide seguruagoa izateko.</p> <p>2016an, lursailaren neurriak ezarri ziren, suhiltzaile-etxea diseinatu zen, eta errepide, bidegorri eta aparkalekuaren urbanizatzeko lanak egin ziren. Arratzuko Udalak, bere aldetik, aurrera egin zuen hiri-antolamenduko plan orokorraren izapideetan, suhiltzaileen-etxea eraikitzei aukera emateko.</p> <p>2017an zehar Arratzuko Udalak parkea eraiki ahal izateko hirigintzako tramiteak egiten jarraitu du. Aldi berean aurrera egin da eraikuntza-proiektuan.</p> <p>Usteen arabera Udalak hirigintzako tramiteak amaitu ondoren 2018aren amaiera lizitatu ahal izango da.</p> <p>Uste da suhiltzaile-etxe berria eskualdeko 46.300 biztanleen onerako izango dela.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ez dago adierazlerik identifikatuta	-	-

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Jarduketarekin zerikusia duten zuzendaritza guztiek parte hartzen dute: Larrialdiak, Azpiegiturak, Lurraldearen Kohesioa, Ondarea eta Arratzuko Udala.

EGOERA	Diseinatzen	AURRERAPEN MAILA	% 15
--------	-------------	------------------	------



A.3.1.9

Suhiltzaile-etxe berria eraikitzea Enkarterrin

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Enkarterriko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Larrialdietako zerbitzu hobe bat eskaintzea eskualdeko biztanleei, beharrezko hobekuntza eta berrikuntzak dituen suhiltzaile-etxe bat eskainiz eta hiri-eremua libre utziz herritarrentzat.
EGINIKO JARDUERA	<p>Suhiltzaile-etxe berriak gaur egun dagoena ordezkatu du Enkarterri eskualdeari zerbitzua ematen. Horrela, instalazioak handitu eta hobetuko dira, gainerako suhiltzaile-etxeetako kalitate- eta ekipamendu-irizpide berei jarraituz.</p> <p>2016an, lursailaren neurriak ezarri ziren, suhiltzaile-etxea diseinatu zen eta errepede, bidegorri eta aparkalekuaren urbanizatzeko lanak egin ziren. Zallako Udalak, bere aldetik, aurrera egin zuen hiri-antolamenduko plan orokorraren izapideetan, suhiltzaileen-etxea eraikitze aukera emateko.</p> <p>2017an zehar Zallako Udalak parkea eraiki ahal izateko hirigintzako tramiteak egiten jarraitu du. Aldi berean eraikuntza-proiektua 2018ko otsailerako egongo da amaituta.</p> <p>Usteen arabera, Udalak hirigintzako tramiteak amaitu ondoren 2018aren bigarren hiruhilekoan lizitatu ahal izango da.</p> <p>Uste da suhiltzaile-etxe berria eskualdeko 31.800 biztanleen onerako izango dela.</p>

EGOERA	Diseinatzen	AURRERAPEN MAILA	% 20
--------	-------------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ez dago adierazlerik identifikatuta	-	-

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Jarduketarekin zerikusia duten zuzendaritza guztiek parte hartzen dute: Larrialdiak, Azpiegiturak, Lurraldearen Kohesioa, Ondarea eta Zallako Udala.



A.3.1.10

Larrialdiak kontrolatzeko zentroa bateratzeko proiektua

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko lurralde guztia
HELBURU OROKORRA	Larrialdi-zerbitzuak modu koordinatuago eta eraginkorrago batean jarduteko aukera ematea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Proiektuaren helburua da gune bat jartzea martxan, bertan kokatzeko larrialdiekin zerikusia duten Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu guztiak (Suhiltzaileak, Nekazaritza, Lanak, Errepideak, Gizarte Ekintza...).</p> <p>Zerbitzuak Foru Aldundiaren Sail eta zerbitzu guztien koordinazio-gune moduan jardungo du larrialdien egoeretan.</p> <p>2016an beharrianak definitzeko azterlana egin zen.</p> <p>2017an kokapen berria aztertu zen, hain zuzen ere Uriosteko Suhiltzaileen-etxea, horrek hobetu egiten duelako aurreko kokapena hala zentroaren kudeaketa administratiboaren ikuspegitik nola larrialdien kudeaketa operatiboarenetik.</p> <p>2017an zehar zentroaren diseinua egin da eta eraikuntza-proiektua egiten ari da eta, usteen arabera, eraikuntza hori amaituta egingo da 2018aren amaierarako.</p>

EGOERA	Diseinatzen	AURRERAPEN MAILA	% 20
--------	-------------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ez dago adierazlerik identifikatuta	-	-

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Jarduketarekin zerikusia duten zuzendaritza guztiek parte hartzen dute: Larrialdiak, Funtzio Publikoa, Nekazaritza, Ingurumena, Gizarte Ekintza, Azpiegiturak eta Interbiak foru erakundeak.



A.3.1.11

Erakunde arteko hitzarmen bat sustatzea, mugako eremuetan larrialdi-zerbitzuak emateko

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Mugako eskualdeetan bizi diren pertsonak
HELBURU OROKORRA	Larrialdietan, arreta eskaintzea halako guneeetan bizi diren 45.000 pertsoneri.
EGINIKO JARDUERA	<p>Jarduketa-hitzarmen bat sustatzea Aiararako eskualderako. Horrela, formalizatu egingo da akordio bat jada badena baina isilekoa dena, zeinaren arabera Bizkaiko eta Arabako larrialdi-zerbitzuek laguntza ematen dioten elkarki; akordio hori Aiara eskualdean betearazten da batez ere zirkulazio-istripuetan gertatzen da hori, eta, zenbaitetan, suteetan eta bestelako larrialdietan.</p> <p>2017ko uztailaren 4an Bizkaiko Foru Aldundiak "Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko lankidetzaren hitzarmena, hiru lurralde historikoen mugak diren aldeetan kasuan kasuko prebentzio, suteen itzaltze eta salbamendu zerbitzuak koordinatzeko, mugiarazteko eta horietan esku hartzeko" hitzarmena onetsi zen.</p> <p>2017ko abenduaren 11n hiru aldundiek hitzarmen hori sinatu zuten.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

IADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADI ERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Hitzarmenaren esparruan eginiko eskuhartzeen kopurua (*)	Kuantifikazioaren aurreikuspena: martxan jartzen denetik aurrera, 2017ko martxoan	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2018ko abendua

(*) Hitzarmena 2017ko abenduan sinatu zen; beraz horren barruko esku hartzeen kopurua indarrean jarri eta urte bateko epean zenbatetsiko da, 2018ko abenduan.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Hiru foru aldundietako larrialdietako zuzendaritza nagusiak.



A.3.1.12

Iruzuraren aurkako hiru jarduketa-plan espezifikoak bultzatzea (arloan fiskalean eta gizarte-laguntzen arloan)

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Ogasuna eta Finantzak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Iruzur fiskal eta sozialaren aurka egitea
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an egin zen legez, Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren Aurka Egiteko Batzordeak irizpide orokorrak onetsi zituen 2017ko otsailean, Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren Aurka Egiteko Planaren berri ematen dutenak. Ogasuneko zuzendari nagusiaren otsailaren 27ko 2/2017 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren irizpideok (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean martxoaren 13an).</p> <p>Bestalde, Euskadiko Iruzuraren Aurka Egiteko Batzordeak EAEko Iruzur Fiskalaren Kontra Egiteko Baterako Plana onetsi zuen 2017ko martxoan. Era berean, 2016ko Batzerako Planaren emaitzen txostena onetsi zen 2017ko maiatzean.</p> <p>2017ko abenduaren 31tik hasita, bi planon urteko burutzapena bukatu da, eta azken emaitzak daude zenbatzeke jarduketan eta antzemandako iruzurraren aldetik.</p> <p>Betalde, prestazio sozialei dagokienez, Gizarte Zerbitzuak eta Prestazioak Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plana abiarazi zen. Urte askotarakoa izango da, eta 2017-2019 aldian garatuko da. Plan horren bidez, Bizkaiko gizarte zerbitzuetako 350 zentroyen eta 16.000 prestazio baino gehiagoren betekizun eta helburuen betetze-mailari buruzko jarraipen sistematikoa eta koordinatua egingo du urtero Bizkaiko Foru Aldundiak, gizarte zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ustezko iruzur fiskala dela-eta eginiko jarduketan kopurua (BFaren urteko plana)	345.053	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2018ko otsaila-martxo
Detektatutako iruzur fiskala dela-eta likidatutako zenbatekoa (aurreko ekitaldia) (BFaren urteko plana)	461.611.157€	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2018ko otsaila-martxo
Ustezko iruzur fiskala dela-eta eginiko jarduketan kopurua (plan bateratua)	431.442	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2018ko maiatza
Detektatutako iruzur fiskala dela-eta likidatutako zenbatekoa (aurreko ekitaldia) (plan bateratua)	750.267.729€	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2018ko maiatza
Ustezko iruzur soziala dela-eta eginiko jarduketan kopurua	Ez du aplikatzen	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2018ko maiatza
Detektatutako iruzur fiskala dela-eta likidatutako zenbatekoa	Ez du aplikatzen	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2018ko maiatza

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.3.1.13

Aplikazio teknologikoak garatzea Bizkaiko herritarren artean kirol jarduera sustatzeko

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Udaletako teknikariei udalerriko herritarrek modu espontaneoan egiten dituzten ibilbideei buruzko informazioa ematea, eta herritarrei ariketa fisikoa egiteko (ibili) aukerei buruzko informazioa ematea, bizimodu osasuntsua eta osasungarria sustatzeko.
EGINIKO JARDUERA	2016an jarduera fisikoa (oinez ibiltzea) egiteko ibilbideak herritarrei ezagutarazteko web aplikatiboa sortu ondoren, 2017ko lehen hiru hilekoen web orri hori birsortzeko lanak egin dira, egitura praktikoagoa eta erakargarriagoa izan dadin erabiltzaileentzat. 2017ko azken hiruhilekoan, diseinu berria garatzeko eta maketatze faseari ekin zaio, eta eduki gehiago jarri dira, plataforman sartzeko bide edo ibilbide berrien azterketa eta diagnostikoa agindu baitira.

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 75
--------	----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Aplikazioan sartutako ariketa fisikoa egiteko ibilbide kopurua	155	155

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Web aplikatiboak irekitzeko du, berau kontsultatzen duen pertsona emakumea edo gizona den identifikatzeko, erabileraren balizko desberdintasunen berri izateko. Indarrean iraun bitartean, 101.171 lagun sartu dira plataforman; % 49,5 emakumeak. Zehazkiago, 67.183 lagun sartu dira, eta horietatik % 49,4 emakumeak dira.
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Ibilbide berriak hautatzeko, elkarrizketak egiten ari dira ibilbideen erabiltzaileekin eta udal teknikariek.



A.3.1.14 .

Lurralde barruko eta lurralde arteko elkarreragingarritasunaren programa

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrek
HELBURU OROKORRA	Aldundiaren eta Bizkaiko udalen datuak elkarreragingarriak izan daitezen lortzea, eta Bizkaiko administrazioek ez diezazkietela eskatu herritarrei jada administrazioen batek jasota dituen agiriak.
EGINIKO JARDUERA	<p>Elkarreragingarritasun programaren barne egindako ekintza nagusiak hauek izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azpiegitura teknologikoa: Bizkaiko elkarreragingarritasun nodoaren plataforma hobetu da. - Administrazio-kudeaketaren ereduak: Hitzarmena egikaritu da Administrazio Publikoen arteko lankidetzarako tresna juridikoa izan dadin. 2017ko abenduaren 31n 14 hitzarmen zeuden sinatuta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeen artean, datuak elektronikoki trukatzeko. - Komunikazio-plana: barneko-mailan, 2018rako Komunikazio Plana ezarri da. Kanpoko mailan, 3 jardunaldi egin dira erakundeekin, horiei elkarreragingarritasun proiektua, plataforma eta zerbitzuak kontsumitzeko prozesua azaltzeko. - ISA proiektua: I. fasea bukatu da prozedura pilotuekin, eta bertan proba pilotuentzako beharrezko informazioa jaso zen. 2018ko urtarrilean gauzatuko da II. Fasea. <p>Eskuragarri dauden zerbitzuei dagokienez, gaur egun 11 zerbitzu ekoizten ari dira bai barneko baita kanpoko kontsumoarentzat. Horietariko 6 zerbitzuetan Bizkaiko Foru Aldundia emakidaduna da, eta 5etan lagatzailea.</p> <p>Beste 13 zerbitzu garatzen ari dira, eta horietariko 3 azken proben fasean daude.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Erabilgarri dauden zerbitzu elkarreragingarriak	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017ko lehen hiruhilekoa	11
Plataforman dauden datuen lagapenhartzaileen kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: martxan jartzen den egunetik aurrera, 2017ko lehen hiruhilekoan	2
Zenbat datu-transmisio egin diren	Kuantifikazioaren aurreikuspena: martxan jartzen den egunetik aurrera, 2017ko lehen Hiruhilekoan	86.000

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Lurraldeko udal guztiak, Bizkaiko Foru Aldundiko Sailek, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek, Eusko Jauriritzak eta Gobernu Zentralak parte hartzen dute.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA (%)	% 60
--------	-----------	----------------------	------



A.3.1.15.

Katastro-balioak eguneratzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Ogasuna eta Finantzak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Hirigintzako errealitatea eguneratzea, azken eguneratzea orain 40 urte egin baitzen.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016ko maiatzean, Higiezin Katastroaren eta Ondasun Higiezin gainera Zergaren arauak onartu ziren; haien bidez, legezko estaldura ematen zaio Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri- eta landa-ondasun higiezin katastro-balioak berrikusteko proiektuari.</p> <p>Ekainean, berriz, jendaurreko erakusketan jarri ziren balio-txostenak; haien bidez, katastro-balioa zehazteko irizpideak, ebaluazio-moduluak eta beharrezkoak diren gainerako elementuak ezarri ziren. Irailtik aurrera, katastro-balioen banako jakinarazpenak egin dira.</p> <p>2017an, zergadunek Katastroaren Berrikuspenaren ondoriozko banakako jakinarazpenak direla-eta aurkezturiko errekurtsoak ebatzi dira. Hiriko eta landako higiezin katastro balioak eguneratutakoan, bukatutzat eman da jarduketa.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Udalen katastro-txosten eguneratuen portzentajea	% 100	% 100
Udalen katastro-txosten eguneratuen kopurua	Bizkaiko 112 udalerritatik 112ak.	Bizkaiko 112 udalerritatik 112ak.
Aurkeztutako errekurtsoen portzentajea (*)	% 2,9 (% 1,3 katastroko datuei buruz; % 1,6 titulartasuna aldatzeko)	% 4,51 (% 2,22 katastroko datuei buruz eta % 2,29 titulartasuna aldatzeko)

(*) Guztira 581.000 dira

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Bizkaiko 112 udalek eta EUDELeK hartu dute parte



A.3.1.16.

Foru Liburutegiko eta Agiritegiko funtsak digitalizatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Ikertzaileak eta Bizkaiko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Ondare-funtsen kontserbazioa bermatzea eta funts horien zabalkunde unibertsala erraztea.
EGINIKO JARDUERA	Foru Artxibategi Historikoa eta Foru Liburutegia funts dokumentalak, bibliografikoak eta hemerografikoak digitalizatzeko prozesuan daude, horien kontserbazioa bermatzeko, edozein puntu geografikoetatik kontsultatu daitezkeen inguru digitalak sortzeko eta nazioarteko sareetako presentzia sustatzeko. 2017an zehar espazio digital bat sortzen jarraitu dute.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 90
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Digitalizatutako ondare-funtsen kopurua	757.764	1.218.358
Sarearen bidez egindako kontsulta kopurua	973.752	1.965.752

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.3.1.17.

BizkaiKOA Bizkaiko museoen sareari bultzada berria emateko talka-plana

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkai modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru-administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Lurraldea
HELBURU OROKORRA	Museo horietako bisitari kopurua gehitzea eta museoak gehiago ezagutzea lortzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016. urtean, indartu egin zen jarduera-programa; horrek lagundu du La Encartada museoa ezagutarazten. Museo hori gure lurraldearen industria-ondarearen elementu garrantzitsuenetako bat da, eta kontserbazio egoera oso onean dago.</p> <p>Antolatutako jardueren artean, nabarmena izan dira tailer mekanikoa abian jartzeko egin dena (elementu paregabea delako), industria-ondarearen elementuak ikusteko bisitak eta Balmasedako Udalarekin batera Cerro del Castillo ikusteko antolatutako bisita gidatuak.</p> <p>Jarduketa 2016an bukatu zen, eta sarea mantentzeari eutsi zaio 2017an.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
La Encartada fabrika-museoko bisitari kopurua	11.304	-

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Bisitarien % 52 emakumeak izan dira.
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Nabarmendu behar da bertako kulturatalde batzuek parte hartu dutela jarduera batzuetan, esaterako La Encartada fabrika museoaren jardueraren errepresentazioan.



A.3.1.18.

Ingurune teknologikoan euskarazko baliabide digital berriak eskaintzea eta herritarren artean haien erabilera sustatzea, bereziki gazteen artean eta hezkuntza-komunitatean

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.1. Foru administrazioa modernizatzea eta udalenzako zerbitzuak optimizatzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Herritar euskaldunak, eta, bereziki, Bizkaikoak
HELBURU OROKORRA	Euskararen gizarte-erabilera areagotzea ingurune digitalean
EGINIKO JARDUERA	<p>2017. urtean, jarduera hauek egin dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - «Banden Lehia» lehiaketaren 9. edizioa; 22 bandak hartu dute parte, eta Bilboko ANEGURA izan da irabazlea. Lehiaketa Azkue Fundazioaren, Baga-Biga disko-etxearen zein Last Tour enpresaren arteko lankidetzaren emaitza da (enpresa horrek jaialdi batzuk antolatzen ditu, esaterako Bilbao BBK Live). Banda irabazleak disko bat grabatuko du baliabide profesionalekin, eta Bilbao BBK Live zein EH Sona jaialdietan joko du. - «Komiki Digitalak» lehiaketaren 5. edizioa, 2016/2017 ikasturteari dagokiona, eta 2017/2018 ikasturteko edizioa abian jartzea. Bosgarren edizioan, 60 ikastetxek hartu dute parte: guztira, 3.886 ikasle (% 60 bizkaitarrak). - 2016an bezala, 2017an Euskaraz IKT proiektuak egiteko laguntzen deialdia egin da: 26 proiektuk jaso dute diru-laguntza; gainera, Azkue Fundazioak BLOGETAN.EUS eta SAREA.EUS web orriak finantzatu dira. 2016an, 23 proiektuk jaso zuten laguntza eta SOKA app-a finantzatu zen. - 2017an, Azkue Fundazioaren web orriaren bidez, euskarazko aplikazio eta baliabide berriak aurkeztearekin jarraitu da

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Euskararen erabilera Interneten, EAEn	% 25,40 (*)	% 23,8 (**)
Diruz lagundutako baliabide teknologikoen kopurua	24	52

(*) 15 urte eta gehiago dituzten interneteko erabiltzaileen %-a (Eustat 2015);

(**) 15 urte eta gehiago dituzten interneteko erabiltzaileen %-a (Eustat, 2017/05/31ko datua).

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	«Banden Lehia» lehiaketan ez dago mugarik partaideen adinari dagokionez, baina gehienak gazteak izaten dira. «Komiki Digitalak» lehiaketa lehen hezkuntzako 5 mailatik batxilergoko 1. mailara arteko ikasleentzat da.
PARTE-HARTZEA	-



A.3.2.1

Bizkairako politika publikoak aztertze eta ebaluatze sistema jartzea martxan

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.2. Aldundi gertukoago bat lortzea, hala herritarrengandik nola Bizkaiko udalerrietatik gertuagokoa
ARDURA DUEN SAILA	- Ahaldu Nagusiaren Kabinetea - Modernizaziorako Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Herritarrei kontuak emateko sistema bat inplementatzea
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an politika publikoak aztertze egindako ekimena garatzeko lanarekin jarraitu da, eta, besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira: lurraldeko adierazle sistema garatzea, horren bigarren txostena 2017an aurkeztu baita (testuinguruko adierazleak, gizarte eta ekonomia mailan), eta Bizkaia Goazen 2030 egitasmoaren jarraipen eta ebaluazio sistema, Bizkaiko Foru Aldundiko dokumentu estrategiko bezala, urteko jarraipenaren bigarren txosten hau eginez.</p> <p>Gainera, eskualde guztietan kontu publikoak emateko parte hartze prozesua abiarazi da, eta 2016ko azarotik 2017ko maiatzera Bizkaiko 10 eskualdetan beste horrenbeste topaketa egin dira.</p> <p>2018. urteari begira, kontuak emateko topaketen ziklo horri jarraipena emateko formulak aztertzen ari gara, gogoan hartuz lehen zikloko parte hartzaileen balorazioak.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Pertsona parte-hartzaileek kontuak emateko prozesuari buruz egindako balorazioa (eskala 1-5)	4,1	4,1

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Kontuak emateko topaketetan emakumeen eta gizonen arteko genero oreka lantzen da. Gainera, datu guztiak sexuaren arabera banatuta batu dira. Batez beste, emakumeen parte hartzeak guztiaren % 45,6 hartzen du.
GAZTERIA	Kontuak emateko topaketen parte hartzaileen % 7,6 gazteak dira, 30 urtetik beherakoak.
PARTE-HARTZEA	Proiektu honen atalik garrantzitsuenetako bat kontuak emateko topaketa parte hartzaileak dira. Dagoeneko 10 topaketa egin dira eta datozen urteetan horrelako ekimen parte hartzaileekin jarraitzea aurreikusi da.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	-----------	------------------	------



A.3.2.2.

Herritarren parte-hartzerako eredu propioa diseinatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.2. Aldundi gertukoago bat lortzea, hala herritarrengandik nola Bizkaiko udalerrietatik gertuagokoa
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaitarrak
HELBURU OROKORRA	Herritarrekin harremanak izateko sistema propio bat ezartzea, gobernantza-prozesuaren baitan, eta sistema hori gardentasunaren, gobernu onaren eta kontuak ematearen inguruan garatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Herritarren parte hartzerako eredu propioa diseinatzeko esparruan existitzen diren parte hartze ekimenak aztertu dira, eta ondoren dokumentu bateratu batean jaso dira.</p> <p>Gainera, Gobernu Irekiko estrategia bat zehaztu da, eta horren barruan herritarren parte hartzearekin konpromiso zehatzak definitu dira.</p> <p>Webguneak parte hartzeko atal bat dauka, eta bertan dagoeneko eskuragarri daude xedapen arautzaileei lotutako parte hartze proiektuak; espazio hori are gehiago garatzea aurreikusi da, eduki berriekin eta 2018an zehar abiaraziko diren beste parte hartze ekimen batzuei leku eginez.</p> <p>Lurraldeko gazteekin bideratzeko parte hartze izaerako zenbait egitasmo dagoeneko martxan daude, 2016. urte amaieran definitu bezala.</p>

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Garatutako prozesu parte-hartzaileei buruzko batez besteko balorazioa (eskala 1-5)	4,2	4,1
Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaian sustatutako parte-hartze mailaren inguruko pertzepzioa (eskala 1-10)	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017ko maiatza	5,8

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Abiarazten diren parte hartze prozesuetan datuak modu berezian batu dira. Gainera, emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua lortu nahi da deialdiak egin eta edukiera betetzerakoan.
GAZTERIA	Bizkaiko gazteekin parte hartzeko proiektu zehatzak jorratzen ari gara. 2017. urtean zehar zenbait topaketa eta jarduerak parte hartzaile egin dira lurraldeko gazteekin.
PARTE-HARTZEA	Herritarren parte hartzea sustatzeko berariazko proiektua da.



A.3.2.3.

Gardentasunaren Foru Araua prestatzea eta sustatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.13. Aldundi gertukoago bat lortzea, hala herritarrengandik nola Bizkaiko udalerrietatik gertuagokoa, fisikoki gerturatuz eskualdeetara eta komunikazio zein parte-hartze bide berriak ezarriz, horrela lurraldearen eta pertsonen beharrian zein zailtasunei hobeto erantzuteko
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Foru-araudi propio bat izatea gardentasunaren arloan, garai berrietako eskakizunei egokituia
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren araugintzako ekimen baten bidez, Batzar Nagusiek Bizkaiko Gardentasunaren Foru Araua onartu zuten, eta 2016ko otsailean sartu zen indarrean. Horren bitartez, abangoardiako araudi batez hornitu ziren bai Bizkaiko Foru Aldundia bai foru-sektore publikoko entitateak gardentasunaren arloan.</p> <p>Era berean, foru dekretu baten bitartez erregulatu dira Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorderako antolakuntza-, prozedura- eta funtzionamendu-arauak, eta Aldundiaren erabaki baten bidez, berriz, Gardentasunaren Atariaren zehaztasun teknikoak nahiz edukia eta informazio publikoaren eskaerak izapidetzeko eskumena izango dute unitateak.</p> <p>2016an, formalki eratu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea, eta, behin bere kide guztiak izendaturik, bere eginkizunetan dihardu. Horrenbestez, amaitutzat jo dira proiektu horri dagozkion jarduerak.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-sektore publikoko entitateen gardentasun-atariaren portzentajea, arauz ezarritako epean aktibo	% 100	% 100

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	2016an, Gardentasunaren Foru Araua erraz irakurtzeko bertsioaren kontraste-saio bat egin zen (% 50 emakumeak eta % 50 gizonak). Halaber, Informazioa Eskuratzeko Nazioarteko Egunaren inguruko jardunaldi bat egin zen, eta, gutxi gorabehera, 50 lagunek parte hartu dute.

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------



A.3.2.4.

Zintzotasun, interes-gatazka eta bateraezintasunei buruzko foru arau bat prestatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.2. Aldundi gertukoago bat lortzea, hala herritarrengandik nola Bizkaiko udalerrietatik gertuagokoa, fisikoki gerturatuz eskualdeetara eta komunikazio zein parte-hartze bide berriak ezarriz
ARDURA DUEN SAILA	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Gobernantza-tresnak osatzea, Gardentasunaren Foru Arauarekin, kontu-ematearekin eta herritarrekiko harremanarekin batera.
EGINIKO JARDUERA	Foru kargu publikoen interesen gatazka eta bateraezintasunei buruzko Foru Arau bat sortzearen helburua erakundeen sistema bat ezartzea da, eta sistema horren ardatz nagusia mota guztietako intereseko gatazkek prebenitzea eta modu egokian foru kargu publikoen estatutua arautzea da, bateraezintasunen araubidea eta dagozkion zehapenak arautzeaz gain. 2016an arauaren lehenengo zirriborroa gauzatu zen. 2017an zehar, aruari emandako ikuspuntuaren bideragarritasunari buruzko hausnarketa eta planteamendua egin ziren, eta, ondorioz, araua berriz ere bideratzeko estrategia egokienari eta komenigarrienari buruzko bidea hobeto finkatu zen.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 40
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ez dago adierazlerik indentifikatuta	-	-

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.3.2.5.

Aldundiaren web-orria berregituratzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.2. Aldundi gertukoago bat lortzea, hala herritarrengandik nola Bizkaiko udalerrietatik gertuagokoa.
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak
JASOTZAILEAK	Bizkaitarrak
HELBURU OROKORRA	BFaren web erabiltzeko errazago eta herritarrentzat erabilgarriago bihurtzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016ko abenduan webgune berria sortzeko proiektuaren lehen fasea osatu zen. Lehen fase horretan aurreko webgunea aztertu zen eta web estrategia berria definitzeko abiapuntuaren diagnostikoa egin zen.</p> <p>2017an zehar, webgunearen atal berriak garatu dira, Bizkaia.eus egitura berrira eta diseinu berrira egokituta.</p> <p>Sortu diren orrialdeen artean nabarmendu behar dira GeoBizkaia, Open Data, Gardentasuna edota Arreta Goiztiarra, baita beste orrialde batzuk ere.</p> <p>Bidenabar, gaur egun Bizkaiko Foru Aldundirako garrantzitsuak diren beste atal eta webgune batzuk ere garapen fasean daude, esaterako Bizkaia Gaztea, edo turismoko webgunea, eta oraindik lekualdatu gabe dauden edukiak moldatzen ari dira.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 60
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri berriaren informazioa bilatzeko erraztasunaren inguruko gizarte-pertzepzioa (eskala 1-10)	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017ko martxoa	6,1
Web orriak izandako bisita kopurua	65.287 astean	5.535.556 (metatua)
Ikusitako orri kopurua	261.255	17.508.391 (urtekoa)

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Genero hizkera Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneko testu guztietan errespetatu da. Gainera, web erabilerako datuak sexuen arabera bildu dira.
GAZTERIA	Adin tarteen web erabilerari buruzko datuak bildu dira. Bigarren fasea dagoeneko martxan dago, eta Bizkaiko gazteei zuzendutako ataria sortzea aurreikusi da.
PARTE-HARTZEA	Parte hartzeko espazio berria ireki da, eta sarbidea erraztu da, informazioa eman da eta parte hartze prozesu guztien ondorioak argitaratzen dira.



A.3.2.6.

Jende guztiarentzako jardunaldiak antolatzea Aldundiaren eraikin nagusietan

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.3.2. Aldundi gertukoago bat lortzea, hala herritarrengandik nola Bizkaiko udalerrietatik gertuagokoa
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaitarrak
HELBURU OROKORRA	Erakundea herritarrei hurbiltzea eta fisikoki ezagutaraztea zer lekutan egiten diren erakundearen zein bere organoen eguneroko kudeaketak.
EGINIKO JARDUERA	2016 eta 2017 bitartean, jende guztiarentzat zabalik egon diren 6 jardunaldi antolatu dira, eta 700 lagunek baino gehiagok hartu dute parte. Leku hauetan antolatu dira: -Bizkaiko Fauna Basatia Sendatzeko Zentroa. -Gorlizko foru abeletxea. -Bizkaiko Foru Aldundiak Zallan duen upategi esperimentalak. -Euskalduna jauregia. -Zallako Frutikultura Estazioa. -Peñaskaleko trafikoa kontrolatzeko zentroa.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Bisitetan parte hartu duten pertsonen balorazioa (eskala 0-10)	7	7

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Jardunaldietako partaideen % 55 emakumeak izan dira, eta % 45 gizonak.
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

4. ard. Bizkaia munduari lotuta



A.4.1.1.

Europar dauden aukeren inguruko bulegoa irekitzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.1. Bizkaiko enpresa-ehunari eta erakundeei laguntzea nazioartekotzearen alde egiten duten apustuan, eta etorkizunerako potentzial handiena duten merkatuetan posizionatzeko laguntasuna ematea
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
	Ogasuna eta Finantzak
JASOTZAILEAK	Lurraldea
HELBURU OROKORRA	Europako laguntza eta programei buruzko ezagutza zein haietarako sarbidea erraztea eta optimizatzea Bizkaiko erakundeei.
EGINIKO JARDUERA	<p>Europako Orientazioko Bulegoaren sorkuntzaren helburua finantzaketa lehiakor europarreko proiektuen arloko parte hartzea dinamizatzea da Bizkaiko Foru Aldundiari eta Lurralde Historikoko udalei dagokienez. Bizkaiko Foru Aldundiarentzako eta bere erakunde autonomoentzako Europako Orientazioko Bulegoaren Estrategia 2017an jarri zen abian.</p> <p>Halaber, web atari bat egin da honako hauek zabaltzeko eta lortzeko: interesgarriak diren deialdiak; proiektu europarretarako bazkideak bilatzea; sare telematiko europarrak; eta baita hautatu diren deialdietako gaiei lotuta dauden jardunaldi interesgarriak ere.</p> <p>Horiek ez ezik, Bizkaiko 112 udalerrientzako estrategia espezializatu bat diseinatu da Batasunaren finantzetara iristea errazteko. Europako Orientazioko Bulegoaren aurkezpena egiteko jardunaldia antolatu zen berariaz udalentsat, zerbitzu berri honen berri emateko alegia. Halaber, 50.000 biztanletik beherako Bizkaiko udalek Europar Batasunaren programetan eta ekimenetan parte hartzea sustatzeko diru-laguntzei buruzko Dekretu berria prestatu da; Dekretu hori 2018an argitaratuko da.</p> <p>2017ko maiatzean Bizkaiko Foru Aldundiaren eta erakunde autonomoetako pertsonalarentzako kontaktuen sare bat sortu zen eta abenduan informazio europarra jasotzeko interesa duten udalen sare bat. Programa eta ekimen europarren 72 igorpen indibidualizatu egin dira, eta baita Europar Batzordean proiektuak aurkezteko bazkideen bilaketak ere.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Bulegoa sortzeko epeak betetzea	% 100	% 100
Diseinuan parte hartzen duten lurraldeko agenteak (foru-sailak)	8	19 (*)

(*) Beste eragile batzuen artean, unibertsitateak, Eudelek, foru sailek eta udalek hartu dute parte.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 75
--------	-----------	------------------	------



A.4.1.2.

Bizkaiak nazioarteko foroetan duen presentzia bultzatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.1. Bizkaiko enpresa-ehunari eta erakundeei laguntzea nazioartekotzearen alde egiten duten apustuan, eta etorkizunerako potentzial handiena duten merkatuetan posizionatzeko laguntasuna ematea
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea - Gizarte Ekintza - Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala-
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Kanpoko agenteekin harremanak izateko aukera ematea Aldundiaren gobernupeko edo erantzukizunpeko eremu guztietan.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaia inbertsio-leku eta kudeaketako erduen erreferentzia bezala kokatzeko estrategiaren barnean, helburu horietarako garrantzitsuak diren foroetan parte hartzeko beharra txertatu da.</p> <p>Modu horretan, interesekoak izan daitezkeen foruak aztertu eta aukeratu dira, eta horren ondorioz, 2016an Aldundiak Smithsonian Folklife Festival-en eta ICLEIn - Hiri eta Herri Iraunkorren 8. Biltzarra- parte hartu zuen. 2017an, honako nazioarteko foroetan parte hartzen jarraitu dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aldaketa demografikoari buruzko Aliantza. - Zahartze Aktiboaren Indizearen Adituen taldea, NBE-ak eta EK-ak sustatutakoa. - Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako Berrikuntza lortzeko Europako Elkartea (EIP AHA). - SIMWOOD (Batzorde Aholkulariko kide bezala egindako parte-hartzea). <p>IQNET-en parte hartzen jarraitzen dugu.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Zenbat foroetan parte hartzen den	6	7

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	-----------	------------------	------



A.4.1.3.

Bizkaiko enpresei laguntzea negozio-aukera izan daitezkeen Estatu Batuak, Latinoamerika eta Asia bezalako lekuetan

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.1. Bizkaiko enpresa-ehunari eta erakundeei laguntzea nazioartekotzearen alde egiten duten apustuan, eta etorkizunerako potentzial handiena duten merkatuetan posizionatzeko laguntasuna ematea
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaiko enpresak
HELBURU OROKORRA	Enpresentzako merkatu eta aukera berriak bilatzea, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea, eta Bizkaia aukerak eskaintzen dituen lurralde gisa posizionatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaiko enpresa eta erakunde sareak egin duen nazioartekotzerako prozesuari laguntzeko eta etorkizunera begira potentzial gehien dituzten merkatuetan kokatzen laguntzeko, enpresei bideratutako hainbat laguntza-ekintza egiten dira. 2016an Mexikora (Querétaro-ra) eta AEBetara (Idaho-ra eta Washington-era) egin ziren bidaiez gain, 2017an enpresekin batera joan ginen AEBetara prestakuntza eta unibertsitateko enpresa eta eragile kultural ezberdinekin harremanetan jartzeko nagusiki. Horrez gain, Londresera joan ginen automobilgintza eta energia sektoreetako enpresekin, baita Nevada-ra ere (AEB).</p> <p>2017an herrialde ezberdinetako ordezkariari harrera egin zitzaizen etorkizuneko merkataritza-harremanak aztertzeke eta jada badauden harremanak baieztatzeko. AEBetatik politika eta merkataritza alorretako ordezkariak etorri ziren Idahotik, Texasetik, Nevadatik eta Bostonetik hain zuzen ere. Europa mailan Errumaniako, Danimarkako eta Eskoziako ordezkariari egin zitzaizen harrera. Horrez gain, Paraguaiako ordezkariari, Argeliar-Espainiar Merkataritza Ganberako ordezkariari eta Nigeriako Energia ministroaren bisita izan genuen. Hala, horiek lurraldeko enpresak bisitatu zituzten eta elkarrizketak izan zituzten horiekin.</p> <p>Era berean erakundeetako bisitak izan ditugu harremanak sendotzeko helburuarekin eta merkataritza-harremanak emaitzak izan ditzaten. Helburu horrekin etorri ziren Suediako, Belgikako, Danimarkako, Brasilgo, Turkiako, Filipinetako eta Erresuma Batuko enbaxadoreak, Errumaniako eta Brasilgo kontsulak eta Moravia-ko (Txekiar Errepublika) eta Buzau-ko (Errumania) politiko eta merkatarien ordezkariak.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Beste herrialde batzuetara egindako misio enpresarialen kopurua	3	7
Gure lurraldean hartutako atzerriko misioen kopurua	1	22

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	-----------	------------------	------



A.4.1.4.

Enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko laguntza-programak

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.1. Bizkaiko enpresa-ehunari eta erakundeei laguntzea nazioartekotzearen alde egiten duten apustuan, eta etorkizunerako potentzial handiena duten merkatuetan posizionatzeko laguntasuna ematea
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena
JASOTZAILEAK	Lurraldeko ETEak
HELBURU OROKORRA	Ekoi-zeren nazioartekotzea sustatzea, 2019ra arte 800 nazioartekotze-proiekturako laguntza emanez.
EGINIKO JARDUERA	Jarduketak bi laguntza-programa ditu : - ETEak nazioartekotzeko programa; xedea da enpresei herrialde berri batean sartzeko laguntza ematea. Norgehiagoka bidez aukeratutako enpresek 24 hilabete dituzte aukeratutako merkatuan sartzeko behar diren ekintzak egiteko. 2017an zehar programaren barruan jaso diren 148 eskabide ebatzi dira; horietatik 71 onetsi dira eta 2017-2018an aldian haratuko dira. - Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko Programa kanpora elkarrekin irteteko lankidetzaren proiektu batean parte hartzen duten enpresei laguntza emateko da. Proiektu hauek irabazi-asmorik gabeko erakundeek koordinatzen dituzte, besteak beste, elkarteek, klusterrek edo garapenerako agentziek. 2017an, programan jasotako 17 eskabide ebatzi dira, eta horietatik 15 onetsi dira; 2017-2018ko aldian garatuko dira.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE Kuantitatiboak

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Lagundutako nazioartekotze-proiektuen kopurua	113	184
Lagundutako enpresen kopurua	93	155
Lagundutako lankidetzaren proiektuen kopurua	16	31
Lankidetzaren proiektuetan parte hartu duten enpresen kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017ko urria	287 (*)
Lagundutako zenbatekoa (**)	8.209.197€	13.216.552€

(*) 2017ko urriko balioa; (**) Proiektuetan eginiko gastuak, programan portzentaje batean lagunduta, % 50-% 60 gutxi gorabehera.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	2016an laguntza jaso zuten enpresen plantilla, guztira, honela dago osatuta: % 29, emakumeak eta % 71, gizonak, eta 2017an % 27 emakumeak eta % 73 gizonak.
GAZTERIA	2017an lagundutako enpresetako langile guztien % 16 30 urtetik beherako gazteak dira. 2016an, guztizko plantillaren % 12 ziren 30 urtetik beherakoak.
PARTE-HARTZEA	Laguntza-programei buruzko hausnarketa egiteko tailer bat egin zen 2016an nazioartekotzen laguntzeko agenteekin eta enpresekin. Horietan parte hartu zutenak 29 pertsona izan ziren (11 emakume eta 18 gizon), 23 enpresa eta erakundetakoak eta Aldundikoak.



A.4.2.1.

Basque Talent Network sarea sustatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.2. Bidea ematea gure gazteek nazioarteko esperientzia, ezagutza eta harremanetarako sarbidea izan dezaten eta, hala, prestatuta egon ahal daitezen ekonomia eta gizarte globalizatuak sortuko dituen erronketarako
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena
JASOTZAILEAK	Sareko kide diren pertsonak eta Bizkaiko enpresak
HELBURU OROKORRA	Kanpoan lan egiten ari diren Bizkaiko/Euskadiko pertsonen loturak sendotzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an eta 2017an, Basque Talent Network sarea sustatu da jarduketa hauen bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Be Basque Talent Meetings: azalpen-hitzaldiak eta topaketak euskaldunekin eta, oro har, profesionalekin (jatorrizko lurraldea edozein dutela), sarea indartzeko, lehiakortasuna sustatzeko elementua baita mundu mailako talentua aurkitzeko eta Euskadirekin lotzeko. 2017an 166 profesionalak hartu dute parte Boston, Dublin, Zurich, Londres eta Dusseldorfren egindako 6 topaketetan. - Be Basque Talent Conference: egun batean egiten da, eta parte hartzen duten profesionali lurraldeko oraingo eta etorkizuneko egoera sozioekonomikoa eta zientifiko-teknologikoa ezagutzeko aukera ematen zaie. Horrez gainera, talentuaren mugikortasunarekin zerikusia duten gaien gainean eztabaidatu ahal dute, tailer tematikoetan parte hartu eta hitzaldi pertsonalak izan jardunaldian dauden euskal erakundeetako ordezkariekin. 2017an Munichen egindako saioan 105 profesionalak eta 29 erakundeak hartu dute parte.

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Web plataforman inskribatu diren pertsona berrien kopurua	1.387	3.065
Hitzaldi eta topaketa kopurua	6	13
Hitzaldietan eta topaketetan parte hartu duten profesionalen kopurua	162	433
Hitzaldiak eta topaketak egin ondoren, sarean egon diren erregistro berrien kopurua	282	1.011

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Emakumeek topaketetan izan duten parte hartzea gutxi gorabehera % 50ekoa da.
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzaten	AURRERAPEN MAILA	% 62
--------	----------	------------------	------



A.4.2.2.

Bizkaia Katedra martxan jartzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.2. Bidea ematea Bizkaiko gazteek nazioarteko esperientzia, ezagutza eta harremanetarako sarbidea izan dezaten eta, hala, prestatuta egon ahal daitezen ekonomia eta gizarte globalizatuak sortuko dituen erronketarako
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Lurraldea
HELBURU OROKORRA	Aldundiak trebakuntzaren arloan duen politika legegintzaldiko ardatz estrategikoen inguruan optimizatzea eta uztartzea, baina mundu osoko zentroekin konektatuta betiere.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an tresna bat diseinatzeko hasi ziren agintaldiko helburu estrategikoak horien ildo, hitzarmen, beka eta Bizkaiko Foru Aldundiak ezagutzaren belaunaldia sortzeko eta lurraldeko prestakuntza indartzeko egiten dituen gainerako ekintza guztiak batu eta lerrotzeko.</p> <p>Hala, 2017an horretan lanean jarraitu dute, aurreikusitako etapei jarraiki, bai Nevadako (AEB) Unibertsitateekin dagoen hitzarmenean, baita UPV/EHU-ko Bizkaia Zientifikoa izeneko hitzarmenean ere.</p> <p>Era berean, Euskampus Fundazioarekin sinatuta dagoen hitzarmeneko fase guztiak betetzen ari dira Bizkaiko Lurralde Historikoan prestakuntza, berrikuntza eta enplegua sustatzeko. Ildo horri jarraiki, BBK-rekin intereseko akordioa bat sinatu zuten elkarrekin batera Bizkaia BBK beka sortzeko. Hala, prestakuntza aurreratua eskainiko zaie atzerriko goi-mailako unibertsitateetan unibertsitateko tituludun gazteei, eta Bizkaiko goi-mailako enpresa batean lanerako kontratua egingo zaie ondoren.</p> <p>Horrez gain, Interes komunek Akordio bat sinatu da baita Boise-ko (AEB) Unibertsitatearekin ere Bizkaia Katedra programaren barnean lankidetzahitzarmenen sortzea diseinatzeko, eta Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmen bat sinatu da lurraldean HUB finantzario bat diseinatzeko.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Erreferentzia diren zentroekin sinatutako akordioak	2	8
Sektore estrategikoen (automozioa, energia, finantza-nodoa, ile urdindunen ekonomia, IKTak) lehiakortasuna hobetzeko abiarazitako jardueren eta ekimenen kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017an zehaztuko da	3
Trebakuntzako estrategian sartu diren agintaldiko eremu estrategikoen kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017an zehaztuko da	5
Bizkaian ezagutza zabaldu eta sortzeko antolatutako jardueren kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017an zehaztuko da	3

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GÉNERO	-
JUVENTUD	Deialdia Bizkaiko Lurralde Historikoko unibertsitate-ikasleentzat da.
PARTICIPACIÓN	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 60
--------	-----------	------------------	------



A.4.2.3.

Gazte bizkaitarren ezagutza eta nazioarteko prestakuntza sustatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.2. Bidea ematea Bizkaiko gazteek nazioarteko esperientzia, ezagutza eta harremanetarako sarbidea izan dezaten eta, hala, prestatuta egon ahal daitezen ekonomia eta gizarte globalizatuak sortuko dituen erronketarako
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Gazteak
HELBURU OROKORRA	Gazteen kualifikazioa beken bidez hobetzea, haien etorkizunari zein lurraldearen etorkizunari laguntzeko.
EGINIKO JARDUERA	Bizkaiko pertsona gazteen ezagutza eta nazioarteko prestakuntza sustatzeko beken bi deialdi erregulatzen dituzten bi Foru Dekretu argitaratu ziren: London School of Economics (Erresuma Batua) erakundearen prestatzeko beka eta Europar Batasunarekin lotuta dauden gaietan espezializatzeko ikasketak egiteko beka. 2017an, elkarrizketa pertsonalak egin ziren eta hautagaiek aurkeztu zituzten merezimenduen balorazioa egin ondoren guztira 11 beka adjudikatu ziren: 8 London School of Economics-erako (beka horien onuradunei dagokienez 5 gizonezkoak dira eta 3 emakumezkoak), eta Europako Gaietarako 3 beka, hirurak emakumezkoentzat.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 66
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Emandako laguntza/diru-laguntzen kopurua	12	23

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	Deialdia Bizkaiko Lurralde Historikoko unibertsitate-ikasleentzat da.
PARTE-HARTZEA	-



A.4.2.4.

Gazteei zuzendutako gida bat argitaratzea, atzerriko mugigarritasunaren ingurukoa, beren prestakuntza hobetzen laguntzeko

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.2. Bidea ematea Bizkaiko gazteek nazioarteko esperientzia, ezagutza eta harremanetarako sarbidea izan dezaten eta, hala, prestatuta egon ahal daitezen ekonomia eta gizarte globalizatuak sortuko dituen erronketarako
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Gazteak
HELBURU OROKORRA	Gazteen mugigarritasunari laguntzea atzerrian
EGINIKO JARDUERA	<p>Kanpoko mugikortasunari buruzko gidaliburu eguneratu bat argitaratzearen helburua herritartasun europarra duten pertsonen EBren barruko mugikortasunari buruzko oinarritzko alderdiak, ezarrita dauden oinarriak eta eskubideak eta, halaber, eskubide horiekiko dauden ustezko salbuespenak aztertzea izan da.</p> <p>2017an eguneratu egin da 2016an argitaratu zen gida. Horretarako, lehen fase baten, gidaren edukiak prestatzeko ikerketak egin ziren eta informazio eguneratua bildu zen. Ostean gidaren maketazioa eta eguneratze grafikoari ekin zitzaion eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web atarian argitaratu zen.</p> <p>Unean-uneko jardura moduan, Europaren Egunaren ospakizunaren markoan Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako jardunaldia aprobetxatuz, aleen kopuru jakin bat paperean inprimatu eta banatu egin zen.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Banaturako/webean deskargatutako giden kopurua	800	1.400

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Aipatu den gidaliburu hori egiterakoan lengoia ez existaren erabilera zaindu da.
GAZTERIA	Gidaliburuaren hartzaileak batez ere Bizkaiko Lurralde Historikoko gazteak dira.
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------



A.4.3.1.

Gizarte programei eta adinekoentzako programei buruzko esperientziak trukatzea Europako iparraldeko herrialdeekin

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.3. Bizkaiko enpresei eta herritarrei mundura konektatzeko aukera emateko, Bizkaia nazioarteko foro garrantzitsuetan kokatzea
ARDURA DUEN SAILA	Gizarte Ekintza Ahalduen Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Nazioarteko esperientzietatik ikastea Bizkaiko adinekoei eta gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileei ematen zaien laguntza hobetzeko.
EGINIKO JARDUERA	<p>Aliantzen sarea eraikitzeari esker, Bizkaiko lurraldea Europa iparraldeko herrialdeetako erreferentziazko eragileekin konektatu nahi da, esperientziak eta ezagutzak elkar trukatzea eta ikastea errazteko.</p> <p>Hala, harreman puntualak kolaborazio sare egonkor bihurtzeko aurrerapausoa eman da, lankidetzeta eta garapen bateratuko modu berriak eragingo dituzten akordioak sinatuz.</p> <p>Aldundia "Silver Economy" saria garatzen ari den aliantzaren parte da, Europako Batzorderako, Finlandiako eskualde batekin batera.</p> <p>2016an jasotako bi bisitei (Suediako Stockholm eskualdeko udalerriena eta Suitzako Vaud kantoiko egoitzetako zuzendarien elkartearena), 2017ko maiatzean izandako beste bisita bat gehitu behar zaizkie: Suediako Stockholm eskualdeko Nacka udalerriko erakunde maila gorenaren bisita izan zen (politikoa eta teknikoa), gizarte zerbitzuei eta garapen sozio-ekonomikoari buruzko ezagutza trukatzeko helburuarekin.</p> <p>2017ko urrian, Zilar Ekonomiari buruzko jardunaldi baten testuinguruan, Kopenhageko (Danimarka) Etorkizuneko Ikasketen Institutuko zuzendariarekin harremanetan izateko aurrerapausoa eman zen.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Nazioarteko pertsonak gonbidatuta egon diren jardunaldi teknikoek kopurua	1	2
Sinatutako akordioek kopurua	0	0
Baterako presentzia duten nazioarteko sareek kopurua	3	3
Europako iparraldeko herrialdeetara eginiko bisiten kopurua	0	0
Europako iparraldeko herrialdeetako ordezkariak eginiko bisiten kopurua	1	2

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 50
--------	-----------	------------------	------



A.4.3.2.

Hondakinen tratamenduei eta ingurumen-praktika onei buruzko esperientziak trukatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.3. Bizkaiko enpresei eta herritarrei mundura konektatzeko aukera emateko, Bizkaia nazioarteko foro garrantzitsuetan kokatzea
ARDURA DUEN SAILA	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Ahalduen Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak
HELBURU OROKORRA	Bizkaiak hondakinen tratamenduan eta ingurumenaren babesean ematen duen zerbitzua hobetzeko esperientziak trukatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>2015eko azaroan, Saileko ordezkari batzuk Alemaniara joan ziren, konposta egiteko instalazioen funtzionamendua eta ezaugarriak ezagutzeko.</p> <p>2016. urtean, «Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentzia. Ekintza Eraldatzailea: Europarentzako potentziala» ekimenean hartu dugu parte. Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen apirilaren 27tik 29ra. Europako eta Estatuko erakunde batzuetako iraunkortasun arloko adituek Zabalgarbiko lantegia bisitatu zuten, Artigas-Arraizeko Ekoparkean, eta aukera izan zuten Bizkaiko Foru Aldundiak hondakin-kudeaketan erabiltzen duen sistema ezagutzeko.</p> <p>Jardunaldia amaitzeko, Mungian dagoen Koopera Reusing Center bisitatu zuten; han, etxeko hondakin txikiak berrerabiltzen dira (arropa, oinetakoak, osagaiak, liburuak, jostailuak, bazar-gaiak, aparatu elektriko eta elektroniko txikiak...), eta enplegua ematen zaie pertsona batzuei, inklusio sozialaren ikuspegiarekin betiere.</p> <p>Ekintza horiek eginda, bukatutzat eman da jarduketa.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Esperientziak trukatzeko eginiko topaketen kopurua	2	2

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------



A.4.3.3.

Nazioartean Ekonomia Itunaren ezagutza sustatzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.3. Bizkaiko enpresei eta herritarrei mundura konektatzeko aukera emateko, Bizkaia nazioarteko foro garrantzitsuetan kokatzea
ARDURA DUEN SAILA	Ogasuna Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Nazioartea
HELBURU OROKORRA	Atzerrian zabaltzea Itunak Bizkaian inbertsioak egiteko eskaintzen dituen ahalmenak.
EGINIKO JARDUERA	<p>Nevadako Goi-mailako Hezkuntza Sistemaren Zuzendaritza Kontseiluaren (SNES), Renoko Nevadako Unibertsitatearen ordezkari gisa (UNR), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean Ekonomia Itunaren ezagutza nazioartean sustatzeko lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuten, eta 2017 eta 2019 arteko iraunpena aurreikusten da.</p> <p>Sinatutako lankidetzaren hitzarmena dela eta, 2017. urtean karrerako funtzionario bat joan da UNRren Centre for Basques Studies (CBS) zentrorara, eta han izan da 80 egunez, udaberrian. Pertsona horrek Itunaren berri eman du nazioartean, arloari buruzko hitzaldiak emanez eta Ekarpenari zein haren nazioarteko proiektioari buruzko ekarpen zientifiko bat eginez idatziz argitaratzeko.</p> <p>Horrez gainera, 2017ko azken hiruhilekoan, 2018. urtean UNRra joango diren hautagaien aukeraketa egiteko prozedura hasi da lankidetzaren programa horren barruan.</p> <p>Bestalde, lanak hasita daude UNR-k hemendik gutxira editatuko duen argitalpenean jasoko diren ekarpen zientifikoak abiarazi eta koordinatzeko.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 30
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Ekonomia Itunari buruz ingelesez argitaratutako txostenen kopurua	0	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2019ko ekaina
Txosten horien argitalpenen hartzaile diren liburutegien kopurua	0	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2019ko ekaina
Urteko kongresu bakoitzera doazen pertsonen kopurua	0	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2019ko ekaina

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-



A.4.3.4.

Smithsonian Folklife jaialdian parte-hartzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.3. Bizkaiko enpresei eta herritarrei mundura konektatzeko aukera emateko, Bizkaia nazioarteko foro garrantzitsuetan kokatzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Nazioartea
HELBURU OROKORRA	Euskal kultura zabaltzea eta Bizkaia aukerak eskaintzen dituen lurralde gisa aurkeztea
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaiko Lurralde Historikoak Smithsonian Folklife Festival jaialdian izandako parte-hartzea, 2016an Estatu Batuetan izan zena, eta euskal kulturaren inguruko jarduera-programa oso bat egin zen.</p> <p>Xedea bete zen, hain zuzen, iparramerikarrei euskal kulturaren aberastasunaren berri ematea, hainbat elementu erabilita: dantza, musika, artisautza, gastronomia, hizkuntza, herri kirolak, lanbide tradizionalak, arte-adierazpenak... Eta bereziki nabarmendu zen euskal gizartearen izpiritu berritzailea.</p> <p>Oso garrantzitsua izan zen programak izan zuen eragina; izan ere, lehen mailako ekitaldi kulturala den Smithsonian Folklife Festival jaialdiaren barruan egin zen, ospe handiko kultura-erakundea den Smithsonian institutuak antolatua. Ahalmen sinboliko handiko leku batean egin zen, Estatu Batuetako hiriburuan, uztailaren 4aren inguruan. Beraz, bisitari ugari izan zituen ekimenak.</p>

EGOERA	Amaituta	AURRERAPEN MAILA	% 100
--------	----------	------------------	-------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Parte hartu duten erakundeen gogobetetzemaila (1-10 eskala)	9	Ez du aplikatzen (*)
Plangintzan jasotako arteen, gauzatutako jardueraren portzentajea	% 100	Ez du aplikatzen (*)

(*) Ez du aplikatzen. 2017/12/31n metatuta dauden datuak bat datoz 2016/12/31ko datuekin, 2017an ez delako parte hartu Jaialdian.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	Kontuan hartu da genero-ikuspegia, eta programatutako jarduera guztietan emakumeek eta gizonen parte-hartze orekatua izan dute.
GAZTERIA	Programan sartutako jarduerak adin guztietako jendearentzat izan arren, espazio berezi bat prestatu zen ume eta gazteentzat, Txiki-txoko izenekoa, programazio berezi batekin.
PARTE-HARTZEA	Bereziki baloratzen zen programatutako jarduerak parte-hartzea bultzatzeko zirela eta euskal diasporako taldeen lankidetzaren egon zela.



A.4.3.5.

NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sarean sartzea

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.3. Bizkaiko enpresei eta herritarrei mundura konektatzeko aukera emateko, Bizkaia nazioarteko foro garrantzitsuetan kokatzea
ARDURA DUEN SAILA	Euskara eta Kultura
JASOTZAILEAK	Nazioartea
HELBURU OROKORRA	Euskara eramatea Europako hizkuntzen artean dagokion lekura, eta, era berean, hizkuntza-aniztasuna sustatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sare paneuropar bat da, Europako Batzordearen laguntzarekin sortutakoa eta estatu eta eskualdeetako hainbat gobernuren babes du. Sarean sartuta daude hizkuntza konstituzionalen, eskualdeetako eta estatu txikiak hizkuntzen arloko hizkuntza-politika eta plangintzaren eremuan lan egiten duten unibertsitateak, elkarteak eta GKEak.</p> <p>Hizkuntza-aniztasunerako Europako Sareak (NPLD) egindako ibilbide-orriaren helburua da hizkuntza-aniztasun sustatzea eta Europarako hizkuntza-politika propio bat osatzea, Europa Estrategiaren barruan.</p> <p>Aldundiak sare horretan parte hartu ohi du. Hala, 2017an NPLD sareak antolatutako "Hizkuntza gutxiagotuentzako erronkak egungo gizarte konplexuetan" hitzaldian hartu zuen parte 2017ko azaroaren 9an. Azaroaren 8an, 9an eta 10ean, High-level Conference izan zen Bruselan, eta bertan izan zen Euskara eta Kulturako foro diputatua.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartu duen Sarearen bilera kopurua	4	10

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTICIPACIÓN	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 75
--------	-----------	------------------	------



A.4.4.1.

Nazioarteko ekitaldiak erakartzea Bizkaira

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.4. Osoki garatzea Bizkaia nazioarteko helmuga turistikoko gisa duen ahalmena, agente eta enpresak babestuz eta nazioartean garrantzia duten ekitaldiak erakarriz
ARDURA DUEN SAILA	Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Nazioartea
HELBURU OROKORRA	Bizkaia aukerak, ezagutza eta jardunbide egokiak eskaintzen dituen lurralde gisa posizionatzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bizkaia nazioarteko helmuga erakargarria bihurtzeko, lurraldea sustatzeko nazioarteko ekimenen erakargarritasun-politika bat diseinatzen hasi gara, eta hala, tamaina handiko ekimenak identifikatzen saiatu gara eta in-house nazioartekotzean lanean hasi gara, hau da, ekimen hauetara enpresetako CEOak edo presidenteak erakartzeko lana egiten da ondoren horiek lurraldean inbertitu ahal izateko.</p> <p>2016an zehar aurrerapenak egin ziren merkatua aztertzeari dagokionez, ondoren lurraldeko ardatz estrategikoekin bat datozen nazioarteko ekimenak aukeratzeko.</p> <p>2017an zehar nazioarteko erakundeetako hainbat ordezkarekin bilerak egin dira 2018an Bizkaian antolatuko diren ekimen hauen programak sortzen jarraitzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - World Football Submit championship. - European Rugby Champions Cup. - World's Best Restaurants, "50 Best" gala. - MTV / EMA 2018 gala. <p>Une honetan, Bizkaira hurrengo ekimenak erakartzeko estrategian lan egiten ari gara.</p>

ADIERAZLE Kuantitatiboak

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Erakarrirako ekitaldi kopurua	Kuantifikazioaren aurreikuspena: 2017an, 2018an eta 2019an zehaztuko da	4

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	-

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 40
--------	-----------	------------------	------



A.4.4.2.

Bizkaia Tourism Action Group taldearen sorrera

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.4. Osoki garatzea Bizkaia nazioarteko helmuga turistikoko gisa duen ahalmena, sektoreko agente eta enpresak babestuz eta nazioartean garrantzia duten ekitaldiak erakarriz
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaiko sektore turistikoa
HELBURU OROKORRA	Bizkaiko sektore turistikorekin zerikusia duten eragile publiko eta pribatu nagusien ekintzak koordinatzea eta dinamizatzea.
EGINIKO JARDUERA	Bilbao Bizkaia Action Group (BBAG) taldea 2016an sortu zen, lurraldean turismoaren sektorea bultzatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako lankidetzako publiko-pribaturako tresna berri gisa. 2017an zehar BBAG dinamizatzen eta lan egiten jarraitu da; lau saio izan dira, eta Turismo Estrategia 2020 egitasmo berrian aurreikusitako jarduketak eztabaidatu eta adostu dira. Modu paraleloan, BBAGko 8 talde teknikoek planteamendu globalarekin lotutako 8 estrategia garatu dituzte, eta horien helburuak betetze aldera 2018an egin beharreko jarduketak proposatu dituzte.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
BBAGn parte hartzen duen erakundeen kopurua	25	91
Batera sortutako produktuen kopurua	0	49

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	Bilbao Bizkaia Action Group taldean Bizkaiko sektore publiko eta pribatuko 91 parte hartzaile daude.



A.4.4.3.

Bilbo-Bizkaia helmuga turistikoaren sustapena mundu

DESKRIPZIOA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.4. Osoki garatzea Bizkaia nazioarteko helmuga turistiko gisa duen ahalmena, sektoreko agente eta enpresak babestuz eta nazioartean garrantzia duten ekitaldiak erakarriz
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena Ahaldun Nagusiaren Kabinetea
JASOTZAILEAK	Bizkaiko sektore turistikoa
HELBURU OROKORRA	Lehentasunezko merkatuak: AEB, Europa iparraldea, Frantzia, Erresuma Batua eta Alemania, helmugan garatutako ekintzen bitartez.
EGINIKO JARDUERA	<p>2016an turismoaren kudeaketari buruzko azterketa sakona egin zen, baita sektore horrek Bizkaia lurraldera dakarren erronkari hurrengo urteetan aurre egiteko moduei buruzko azterketa ere. Horren ondoren, Bilbao-Bizkaia 2020 Turismo Estrategia berria aurkeztu da 2017ko urtarrilean.</p> <p>Bilbao-Bizkaia turismo estrategia aurkeztu ondoren, lehentasunezko merkatuen azterketa egin da; Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduna horietara bideratu behar da, turismo produktuen aukeraketaren bitartez.</p> <p>Zentzu horretan, 2017. urtean sustapen jarduna Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Europa iparraldeko herrialdeetan eta estatuan zentratu da, sektoreko kontsumitzaile eta profesionalei zuzendutako ekitaldien bidez. Fitur Madrilen, Matka Helsinkin, Top Résa Parisen, Foodies Festival Edinburgon, Unbox Milanen, Expovacaciones Bilbon eta Intur Valladoliden urteko ekitaldi esanguratsuenak izan dira.</p> <p>2017an sustapen ekintza honetan 300.528 kontsumitzaile eta 203.650 turismoko profesionaleko irismena lortu da, 6.500 harreman baino gehiago sortuz Bilbao Bizkaia eta lurraldeko sektore pribatuko enpresen artean.</p>

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Nazioartean garrantzia duten ekitaldiak	12	27
B2B eta B2C ekintzak eta zeharkako ekintzak, helmuga turistikoa sustatzeko eginak	68	138
Bizkaian izan diren bisitarien sarrerak	1.253.087 (*)	2.571.302 (**)

(*) Bisitarien (turistak) sarrera kopurua 2016ko urtarriletik azarora

(**) Bisitarien (turistak) sarrera kopurua 2016ko urtarriletik 2017ko azarora.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTE-HARTZEA	140 enpresa eta udalek turismo sustapen planean hartu dute parte, eta lurraldeko 97 enpresa turistiko eta eskualde atzerrian izan dira sustapen ekintzetan, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	-----------	------------------	------



A.4.4.4.

Bizkaiko industria turistikoa bultzatzeko plana

DESKRIBAPENA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	E.4. Bizkaia munduari lotuta
HELBURU ESTRATEGIKOA	O.4.4. Osoki garatzea Bizkaia nazioarteko helmuga turistiko gisa duen ahalmena, sektoreko agente eta enpresak babestuz eta nazioartean garrantzia duten ekitaldiak erakarriz
ARDURA DUEN SAILA	Ekonomi eta Lurralde Garapena
JASOTZAILEAK	Bizkaiko sektore turistikoa
HELBURU OROKORRA	Sektore turistikoaren ehun ekoizlearen lehiakortasuna hobetzea.
EGINIKO JARDUERA	<p>Bilbao-Bizkaia 2020 Turismo Estrategia berriak bi agertoki desberdinetan sustatu nahi du turismoa: marketina jatorrizko merkatuetan eta turismoa destinoan garatuz. Azken helburu horrekin Bilbao-Bizkaia destinoan turismoa garatzeko laguntzen deialdia egin da maiatzaren 30eko 76/2017 Foru Dekretuaren bitartez.</p> <p>Laguntzen programa horretan aurreikusitako artean daude, besteak beste, turismo destinoa kudeatzeko egitura indartzeko laguntza, lurraldeko turismo baliabideak balioan jartzea, destinoan turismo fluxua mugiarazteko gai izango diren ekitaldi berriak sortzea, destinoan pertsona bisitariei eskainitako arreta hobetzea, turistei bideratutako eskaintza bisitagarria hedatzea, txangoak egiten dituztenentzat eskaintza bisitagarria bultzatzea, turismoaren sektorea profesionalizatzea prestakuntza praktikoaren eta topaketa profesionalen bitartez, baita proiektu berritzaile edota destinoa digitalizazioa sustatzen duten proiektuak sustatzea ere.</p> <p>2016 eta 2017 artean, Bilbao-Bizkaian turismo jarduna sustatzeko 168 proiektu lagundu dira, destinoan turismoa garatuz.</p>

EGOERA	Gauzatzen	AURRERAPEN MAILA	% 70
--------	-----------	------------------	------

ADIERAZLE KUANTITATIBOAK

ADIERAZLEAK	Balioa 2016/12/31n	Balio metatua 2017/12/31n
Diruz lagundutako proiektu kopurua	90	168
Sortutako turismo enpresa kopurua (*)	3	3 (*)
Turismo enpresak sortzeko emandako laguntza ekonomikoen kopurua, guztira (*)	20.667€	20.667€ (*)
Laguntzarekin sortutako enpresetan eragindako enplegua (*)	4	4 (*)
Enpresa onuradunen kopurua	-	90
Destinoan turismo jarduna sustatzeko emandako laguntzen kopuru ekonomikoa guztira	-	532.918€

(*) 2017an argitaratutako dekretu berrian ez da aurreikusi turismo enpresak sortzeko laguntzarik ezta horiek nazioartekotzeko laguntzarik ere; Bizkaiko Foru Aldundian dagoeneko existitzen diren beste laguntza programa batzuetan bilduko dira.

PERSPEKTIBA ZEHARKAKO POLITIKETAN

GENEROA	-
GAZTERIA	-
PARTAIDETZA	-

